

Goienkaria

2010eko irailaren 10a > Egubakoitza > X. urtea > 433. zenbakia > Doan banatzekoa

Goiena 10 URTE

www.goiena.net

TOKIKOM

"Zokoratuak izan garen abertzaleak nagusi izan gaitzke Nafarroan"

Jon Abril

Aralarko koordinatzaileordea > 08



G2a

Orhipean parke tematikoa egingo dute Bergaran > 31

ARRASATE

Herriko berbak eta jaiak batzen dituen agenda argitaratu dute > 12

BERGARA

Fruta, barazki eta gazta feria bihar, San Martin jaien baitan > 16

KIROLA

Maider Unda oletarra Europako txapelketan dago, Moskun > 30

JENDARTEA > OSPAKIZUNA

Txirritola eguna etzi Aramaion

Herriko hamabi sagardogileren sagardoa dastatu ahal izango da > 28

POLITIKA > EUSKAL PRESOKAK

Presoen aldeko martxa

Frantziako Saint Martin de Re espetxera egingo dute hilaren 18an > 05

JENDARTEA > ERLIJOA

"Baldintza bariko tregua"

Hori eskatu zuen atzo Jose Inazio Munilla gotzainak Arantzazuko Amaren egunean. Erakundeetako ordezkariak ere joan ziren eta haiek iritsi orduko, euskal preso politiko-en aldeko elkarretaratzea zain zuten. Fraidetza lagatzekoa den Joxe Arregiren aldeko keinuak ere egon ziren. > 05

POLITIKA > ETA-REN SU-ETENA

Poza zein etsipena, biak piztu ditu ETaren adierazpenak

BAILARAKOAK Preso ohi, senide eta zinegotzi banak, eta enpresaburuek su-etenaz duten iritzia batu dugu

ESKAERA "Herri presioaz Estatua behartu behar dugu orain hain agerikoa ez den indarkeria gera dezan"

EZKORTASUNA "Ez naiz fidatzen; nik bizkartzainekin jarraituko dut, ETak armak behin betiko utzi arte" > 02-04

Ametsak errealitate bihurtu zirenekoa

Idazle izan nahi eta 10 urte buru-belarri jardun ostean, lehen eleberria argitaratu diote Martin Arriaran bergararrari. Polizia, misterio eta fantasiako nobela da: *Atejaun. El señor de las puertas* (Hiru). > 33



MISTERIOZKO NOBELA Hainbat genero nahastu ditu Arriaranek eleberrian, baina misterioa da nagusi.

ENEKO AZKARATE

AURKIBIDEA

Debagoiena > 05
Iritzia > 06
Gutunak > 07
Elkarrizketa > 08
Herriak > 11-29
Kirola > 30
Kultura > 33
Gazteak > 34
Sailkatuak > 35
Telebista-Irratia > 36
Zerbitzuak > 36
Berri-zakua > 37
Eskelak > 37
Non-zer > 38-39

izan ala not to be

M MONDRAGON LINGUA

www.mondragonlingua.com

Babes ofizialeko etxeetarako eskaintza bereziak



IKER

SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
ONATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR

POLITIKA > ETA-K SU-ETENA EGIN DU

Mesfidantzaren eta ilusioaren artean daude bailarakoak

NAHIKOA EZ ETAr armak "behin betiko" eta "baldintzarik gabe" uzteko eskatzen diote Lamarain zinegotziak eta enpresaburuek

ERANTZUN ESKE Letona preso ohiak eta Arregi preso baten senideak diote orain gobernuari dagokiela pauso bat ematea

LEIRE KORTABARRIA/MIRIAN BITERI

> BERGARA

Urte gutxiren buruan hirugarren aldiz jakinarazi zuen ETAk su-etena egiten zuela; hain zuzen ere, "ekintza armatu erasokorrek" uzteko erabakia. Hiru su-eten horietako bakoitzak erreakzio desberdinak sortu izan ditu; batzuek "etsita" hartu dute honakoa eta ez dute uste ezer aldatuko denik -zinegotziek bizkartzainekin jarraitzea erabaki dute, esaterako-; beste batzuek esaten dute ezker abertzaleak eta ETAk "urrats garbiak" egiten dihardutela, eta gobernuen eta gizartearen erantzuna eskatzen dute.

ITZIAR LAMARAIN

"Lasai egongo naiz bakarrik ETAk esaten duenean behin betiko joango dela"

Zelan hartu duzu ETAk su-etena iragarri izana?

Oso eszeptikoa naiz. Ez dit batere itxaropenik piztu. Testu osoa irakurriz gero, esaldi bakarra agertzen da su-eten baten gainean: ETAk erabaki duela "ekintza armatu erasokorrik" ez egitea. Ni berdin-berdin nago, erne jarraitzen dut.

Ez zaude lasai, beraz.

Ez. Lasai egongo naiz bakarrik ETAk jakinarazten duenean behin betiko joango dela. Egun horretan, etxafuegoak botako ditut Herriko plazatik.

Bizkartzainekin ibili behar izateak asko baldintzatzen zaitu?

Bai, izugarri. Kargu publiko izateko aurkeztu nintzenean, eta aurkeztu nintzen alderdiarekin, 2003an, banekien zelan bizi izan beharko nuen aurrerantzean. Pentsa: oporretara joateko, irtekeko, dei baten zain egon behar dut, "dena ondo dago, irten" esan-got didana. Edo paseatzera joan



1



3

gura badut, medikuak gomendatu didan bezala, egunero ordu bete, ordu hori aurretik zehaztuta egon behar da. Eguneroko bizitza zeharo baldintzatzen dit; etxetik irteteko, edozein eroketa egi-

teko, baita intimoenak ere, bi lagunekin joan behar dut. Nire bizitza alde aurretik programatuta dago, eta hori ez zait gustatzen, nik askatasuna maite dudalako.

Jendeak ulertzen du?

Askok ez. Komentarioak egiten dizkirate, "txoferra" dudala esaten didate. Gertukoak bai konturatzen direla guretako honela bizi izatea tormentua dela.

Rubalcaba ministroak esan du ez dela fidatzen. Zer diozu?

Ez dakit zer darabilten eskuarte. Egigurenek haren kontra esan du. Endredatzen dabil. Nik fidatu nahi dut gobernu ahal duen ondoen jokatzeko dabilela, baina ez didate konfiantza ematen. PPkook gura dugu hau amai dadin, baina ordain politikorik gabe. Esaten dute euskal herritarrek nahi dutena izan behar dela; bada, ni ere euskal herritarra naiz, baina ez naiz independentista, eta ez naiz inongo nazionalismoren aldekoa; askatasunaren aldekoa bakarrik naiz ni.

Bizkartzainekin ibiltzeari ez diozu uko egingo oraingoz, ezta?

Hala izango balitz...! Ez, ez horixe. Fidatu egin behar gara? Ni, behintzat, ez. Hara zer gertatu zitzaion gure herrikide Isaias Carrascori; hark ere ez zuen uste ezer gertatuko zitzaionik. Ez dakit terrorismorik ez dagoen egunik ikusiko dudana; hala bedi.

2. Fasea

1. Fasea BUKATUTA

2. FASEA SALMENTAN

San Lorenzo auzoa

BERGARA

“ 1 eta 2 logelako etxebizitzak, garaje eta trastelekuak. 3 logelako duplexak ”

Eraikitzailea

INGESLAN
CONSTRUCCIONES

Sustatzailea

Ormak

Argibidea eta Salmenta

943 424 430

www.ormak.es

132.000€-tik

aurrera



1 Itziar Lamarain
ALDERDI POPULARREKO
ZINEGOTZIA ARRASATEN
Alderdi popularreko kidea da. 2003an aurkeztu zen kargu publikoizateko. Alderdi horrek Arrasaten duen zinegotzi bakarra da.



2 Enrike Letona
ARRASATEARRA;
ETA-KO PRESO OHIA
Aske geratu zen 2003an Enrike Letona, 16 urteko kartzela zigorra bete ondoren. 1979-1983 urte bitarteko hainbat atentatu egotzi zizkioten.

3 Eduardo Zubiaurre
ADEGIKO PRESIDENTEA;
ENPRESABURUA
Zubiaurrek ez du elkarrizketarik eman su-etena jakin zenetik; Confebask eta Adegik prentsa ohar bidez eman dute euren iritzia.

4 Iñigo Arregi
XABIER ARREGI
PRESOAREN SENIDEA
Xabier Arregi bergararra 2007an atxilotu zuten, 18/98 sumarioko auzipetu gisa. Zazpi urte eta erdiko zigorra egotzi zioten 2009an.

ARGAZKIAK: ARRITXU BARRUSO, TXOMIN MADINA, GOIENKARIA, MIRIAN BITERI

ENRIKE LETONA

"Akordioa lortzen baldin bada etorriko da behin betiko konponbidea"

Zelan hartu duzu ETaren jakinarazpena?

Horren zain nengo; ezker abertzaleak hainbat urrats egin ditu azkeneko urtean, Zutik Euskal Herria txostenean bukatu zirenak, eta honakoa haren ondorioa da.

Gizarteak zelan hartu duela ikusi duzu zuk?

Gizarteak beti ondo hartzen duela ekintza armaturik ez egotea; nire iritziz, pozik hartu du. Orain, ikusiko dugu zelan gartzaren den prozesua; baina gizarteak izugarritzko garrantzia izango du, eta parte hartu behar du.

Zer diozu Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuak erakutsi duten jarreraz?

Eurek esaten dute dena "lehen bezala" dagoela; baina urtebete eman dugu ekintza armaturik gabe, eta hori ez da ohiko egoera.

Zer gertatu beharko litzateke orain, zure iritziz?

ETAk urrats bat egin du, eta orain gobernuak beste bat eman beharko luke; alderdi politikoak legezatu egin beharko lituzke.

Bestalde, presoekin ez dabil legea betetzen; sakabanatzen

jarraitzen du, zigorraren hiru laurdenak beteta dituztenak kartzela dauzka oraindik, ez ditu aske uzten. Bada, presoekin legea bete beharko luke; batzuk aske utzi, eta kartzela daudenak Euskal Herrira ekarri.

Jarrera aldaketa hori gertatu ote da?

Ez dakit ze jarrera hartuko duten. Nik nahiko nukeena da bi aldeek urratsak egin ditzaten. Ezker abertzaleak eta ETAk erakutsi dute garbi ze jarrera duten; euren mezua nahiko garbia da. Baina gobernuak, bere aldetik, errepresioa handitu egin du. Nire galdera hau da: ze egiteko prest dago?

Presoek ze rol izan beharko lukete, zure iritziz?

Munduko beste gatazka batzuk aztertuta -Hego Afrika, Irlanda...- ikusten da presoek oso paper garrantzitsua izan dutela. Hemen ere horrela izan behar da, eta gizarteak hori argi ikusten du. Gatazkaren alde bat dira, eta orain erabat zigortuta daude bai presoak, bai haien senideak ere. Akordioa lortuta etorriko da behin betiko konponbidea.

Oraingoan bai, lortuko da konponbidea?

Nik uste dut ezker abertzaleak eta ETAk ahalegin guztiak egingo dituztela. Baikorra naiz, eta uste dut oraingoan baietz, aurrera aterako dela, baina gizarteak parte hartu behar du.

EUSKAL ENPRESABURUAK

"Iragarpen etsigarria da, eta ez da euskal gizarteak behar eta eskatzen duena"

Confebask eta Adegik erakundeek prentsa ohar bidez jakinarazi dute euren iritzia. Honakoa da:

Euskal Enpresarien Konfederakuntzak (Confebask) eta bere kide diren elkarteek (Adegik, Cebek eta SEA) etsigarritzat, ez nahikotzat eta euskal gizarteak behar zuenetik eta eskatzen zuenetik oso urrutiztatu daukagu ETAk egindako adierazpena.

Euskal enpresaburuontzako, ez dago su-etena iragarpen bat modu positiboan ez baloratzerik; baina orain egin den iragarpenean ez da aipatzen denok benetan ETArengandik espero genuena: biolentzia behin betiko eta egiaztatzeko moduan uztea, eta edozein motatako mehatxu, xantai edo estortsio motarekin jarraitzeari espresuki uko egitea.

Confebasken eta bere elkarrekin iritziz, borrokaz eta gatazkaz hitz egiten jarraitzea eta terrorismoa guztiz eta behin betiko amaitzeari espresuki erreferentziarik ez egitea da ez ulertzea biolentzia sekula ez dela bidea izango eta, une honetara ailegata, Euskadik ezin duela eta ez duela utzi behar horrelako zerbaitek jarrai dezan.

(04. orrialdean jarraitzen du)

izan ala not to be triLINGUA

ez izan zalantzarik
eta zatoz triLINGUA komunitatera
Zatoz MONDRAGON LINGUAra!

Ingelesa, euskara, alemana, italiera, txinera, frantsesa... ikasi, metodo moderno eta eraginkorrenaren bidez

Adin guztietarako

Maila guztietarako

- Ikaskuntza-metodo eraginkorrena da, banan-banako tutoretzak, zuzeneko eta/edo Skype (Internet) bidezko klaseak eta tresna informatiko modernoak bateratzen dituelako.

- Hizkuntza lantzeko jarduerak: antzezlan didaktikoak, lehiaketak, Interneteko ikasgaitxoak, irakasledun bisitaldi gidatuak.


- Cambridgeko azterketak gure zentroan bertan egiteko aukera.
Emitza bermatuak.

%80e gaintzen ditte Cambridge azterketak



Adin guztietarako

Maila guztietarako



Gure zentroetara **hurbildu**

www.mondragonlingua.com

ARRASATE
Araba etorbidea 4
943 71 20 55

OÑATI
Montxon kalea
943 71 20 55



Orain, **hurbilago gaitu:**
Oñatiko erdialde

Urriaren 20a baino lehen egin matrikula eta Appleren iPad bat lor dezakezu.

(03. orrialdetik dator)

Enpresaburuok espero dugu, hain zuzen, euskal gizarteak bakea eta askatasuna nahi izateari esker eta horiek lortzeko egiten dabilen ahaleginei esker, nahi eta nahi ez, terrorismoa amaiztera eramango gaituztela.

RADIO EUSKADIN

"Estortsioa beti jasaten dugu"

Radio Euskadin elkarrizketatu zuten Eduardo Zubiaurre su-etena baino lehen, ekainaren 3an, hain zuzen. Adegiren ordezkari gisa, esan zuen "estortsioa fenomeno bat" dela eta biolentzia mailarekiko edo garaiarekiko zerikusirik ez duela izaten. Esan zuen enpresaburuoi "xantaiak denboran zehar berdin jarraitzen" duela, eta "batzuetan intentsitate handiagoa eta beste batzuetan txikiagoa" izaten duela. "Beti dago hor, eta su-etenak egon arren, iraganean gertatu den moduan, ez da desagertzen", esan zuen.

Labur esateko, enpresaburuok biolentzia "oso modu zuzenean" jasaten dutela salatu zuen Zubiaurrek.

Elkarrizketa berean, ETAK hildako Joxe Mari Korta enpresaburu eta Adegiko presidentea gogoratu zuen.

IÑIGO ARREGI

"Martitzenean anaiak deitu zidan eta jakin guraz sumatu nuen"

Zelan hartu duzu ETaren iragarpena?

Modu baikorren hartu dut, ilusioz eta itxaropenez.

Ze irakurketa egiten duzu?

Azkenaldian ezker abertzaleak Euskal Herria egoera berrira eramateko hartu duen konpromisoari erantzun positiboa ematen dio.

Zelan eragiten dizue presoan senideoi?

Esan bezala, ilusioz hartzen dugu. Herriak behin eta berriro eskatu du ETaren borroka armatua gelditzea, baina gehiengo batek ere euskal preso politikoak euskal herriratzea eskatzen du. ETaren adierazpen honek jendearen nahi hori kaleratzen lagundu ahal du, eta hortaz, senideoi lagundu egingo digu egoera berriak. Azkenean, indarkeria ez da alde bakarrekoa bakarrik; Estatuaren aldetik ere bada indarkeria eta hori ez da askotan aipatzen.

Espainiako Gobernuak esan du ez duela ETarekiko bere politika aldatuko. Zer diozu?

Ez nau harritzen. Ez Espainiako Estatuan bakarrik, Jaur-larritzan ere badaude orain arteko eszenatokiak jarraitu nahi dute-



"Oso eszeptikoa naiz, iragarpenak ez dit batere itxaropenik piztu eta erne jarraitzen dut"

Itziar Lamarain



"Espero dugu gizartearen bake nahiaren bidetik amaitzea terrorismoa"

Euskal enpresaburuak



"Baikorra naiz, eta uste dut oraingoan baietz, aurrera aterako dela prozesua"

Enrike Letona



"ETaren adierazpenak jendearen nahia kaleratzen lagun dezake, eta senideoi lagundu egingo digu"

Iñigo Arregi

nak, errepresioaren bidetik, jendea atxilotzen eta ilegalizazioak bultzatuz. Baina, lehenago edo beranduago aldatu beharko dute. Gatazkaren beste parte garenok, aldiz, erakutsi dugu aurrera egiteko borondatea daukagula.

Urte gutxiren buruan 3. su-etena da. Horrek ze eragin dauka?

Jende artean aipatu da ilusioa galdu dela aurreko su-etenaren ondorengo prozesuak bere horretan moztean. Komunikabideek elikatutako diskurtsoa dela iruditzen zait, beti daukagulako denok gogo bat hori konpontzeko.

Prozesu bakoitza egin da Euskal Herriak bizi duen egoera politikoari erantzuteko, eta hortaz, oraingo egoeran lagunduko du.

Aniarekin hitz egin ahal izan duzu su-etena iragarri eta gero? Zer dio berak?

Bai. Martitzenean deitu zidan eta giroaz eta jendearen jarreraz galdetu zidan eta nik ilusioa sortu duela erantzun nion. Eragileengan, zorionez, Earen jarrera oso baikorra dela esan nion; eta zoritxarrez PSE edo PNVk jarraera ezkor edo ausardia falta dutela. Jakinguraz sumatu dut bera.

Zer espero duzu?

Estatua behartu behar dugu denon artean, herri presioaren bidez. Orain berari tokatzen zaio hain ageriak ez diren indarkeria gelditzea eta aldeko pausoak ematea Euskal Herria agertoki berrira eramateko.



Zatozte
Bergarako
San Martin jaietara!



BERGARAKO UDALA

HEZKUNTZA > MONDRAGON UNIBERTSITATEA

MUren zentro berria eta ikasturtea, inauguratuta

Patxi Lopez lehendakaria izan zen ekitaldiko burua, eta "ikerketa, garapena eta berrikuntzaren" aldeko apustua berretsi zuen

LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE

Euskal Herrian eta Espainian erreferente izateko bokazioarekin Mondragon Unibertsitateak sortu duen zentroa eta 2010/11 ikasturtea, biak inauguratu zituen Patxi Lopez lehendakariak astelehenean, Garaia berrikuntza gunean, ekitaldi jendetsu eta, meteorologia aldetik, haizetsua izan zen ekitaldi baten, zentro berrian eta kanpoan jarritako karpa handi baten.

Inaugurazioan egon ziren hainbat politikari -Isabel Zelaa Hezkuntza sailburua, Markel Olano ahaldun nagusia, Ino Galparsoro Arrasateko alkatea- eta ordezkari akademiko -MUKo

errektore Josu Zabala, presidentea Javier Sotil eta idazkari nagusi Idoia Peñakoba; Goi Eskola Politeknikoko Jose Ramon Goikoetxea; eta UPV/EHUko eta Deustuko errektoreak ere.

Lehendakariak hiru mezu nagusi eman zituen bere hitzaldian: batetik, "goi hezkuntzak euskal zientzia, teknologia eta berrikuntza sisteman duen garrantzia aitortu" zuen, eta "aurrekontu aldetik, egoera zail" baten gaudela ohartarazi arren, esan zuen "gehigarrikiko baliabideak" ikerketa, garapena eta berrikuntzarako izango direla. Bigarrenik, MUK eta bere enpresa inguruneak egiten diharduten



Lopez lehendakaria, zintaren zati bat Galparsoro Arrasateko alkateari ematen.

LEIRE KORTABARRIA

LABUR

Ikusiezinak dira, baina nonahi daude

Sistema txertatuak zer diren aditu ez diren azaldu zien Jose Ramon Goikoetxeak: "Makinetan espezializatutako konputagailuak edo ekipamenduak kontrolatzeko erabilitako sistema handiagoak dira. Ikusiezinak dira askotan, baina nonahi aurki ditzakegu": automobilak, errepideak, ekipamendu medikoak, poltsikoko telefonoak, hegazkin eta aireportuak...


AUTOMOBIL "INTELIGENTEAK"

Etorkizunean zelan erabil daitezkeen ere adibideekin azaldu zuen: errepideei etekin handiagoa ateratzeko, automobil berrietako sistema txertatuek elkarren arteko distantzia kalkulatu ahal izango dute, autoak bata bestearen gertuago ibili ahal izateko, arriskurik gabe. Bestalde, inaugurazioa eta gero, zentro berriko galerian hainbat postu ireki zituzten, eta bakoitzean argibideak eman zien irakasle batek bisitariei; adibidez, Fagor garatzen dabil norberari egokitutako dieta antolatzen duen sistema bat.

"ahalegina" aitortu zuen. Eta hirugarrenik, esan zuen unibertsitatearen "bokazioa" izan behar dela "gizon-emakume libreak eta konprometituak hezteak".

"ETA-REN AURKA SEGITUKO DUGU"

ETAren su-eten iragarpenaren gainean hitz hauek esan zituen: "Ez da albiste txarra, baina ez da zain geunden albiste: ETA desagertu egingo dela. Ez dio erantzuten euskal gizarteak eskatzen duenari". Hauxe gaineratu zuen: "Euskal alderdiok batera egoteko ordua da. Ez gaituzte inozotzat hartuko. Biolentzia eta terrorismoaren aurka jarraituko dugu Eskubide Estatuaren armekin".



Jose Inazio Munilla gotzaina, meza esaten.

LANDER MUÑAGORRI

ERLIJIOA > ARANTZAZUKO AMAREN EGUNA

"Baldintza bako tregoa" eskatu zuen gotzainak

Jendetza batu zen Arantzazun ospakizun erlijiosorako, eta bakearen alde errezatu zuten

L.K. > OÑATI

Ospakizun erlijioso handia eta bakearen gaineko erreguak eta eskaerak; horiek izan ziren atzo, eguna, Arantzazuko Amaren egunean.

Basilika leporaino bete zen, eta bertan izan ziren Idoia Mendia, Eusko Jaurlaritzako bozera-

maile eta Justizia eta Herri Administrazioeko sailburua; Markel Olano, Gipuzkoako ahaldun nagusia; Rafaela Romero, Gipuzkoako Batzar Nagusietako presidentea; eta Lourdes Idoiaga, Oñatiko alkatea.

Erakundeetako ordezkariak iristen zirenerako euskal preso-

en aldeko elkarretaratzea deituta zegoen, eta 20 bat lagunek egin zuten bat aldarrikapen horrekin.

IRTEN EGIN ZIREN BATZUK

Meza Nagusia Jose Inazio Munilla Donostiako gotzainak eman zuen. ETari zuzendu zitzaion: "Desegitea exijitzen diogu ETari", esan zuen. "Tregoa hau erabatekoa eta baldintzarik gabea izan dadin eskatzen dugu".

Fraidetza utziko duen Joxe Arregi frantziskotarrari ez zion aipamenik egin Munillak. Hala ere, sermoia hasi zuenean 40 bat lagun elizatik irten ziren, Munillari desadostasuna eta Arregiri elkartasuna adierazteko.

POLITIKA > EUSKAL PRESOK

Saint Martin de Re espetxera martxa egingo dute irailaren 18an

L.K. > ARRASATE

Debagoieneko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak Frantziako Saint Martin de Reko espetxera egingo den martxara deitu du. Irailaren 18an izango da, eta 06:00etan irtengo dira. Deialdi hori egin zuten joan den martitzenean, Arrasateko udaletxean, eta osoko bilkuren aretora jende asko erakarri zuen ekitaldiak.

Bozeramaileek esan zuten, helburua da esandako kartzelan dauden euskal presoek "babesa eskaintzea eta haien eskubideak aldarrikatzea". Hantxe dago, besteak beste, Mikel Illarramendi preso oñatiarra.

Espetxe aurrean hainbat ekintza egingo dituzte: txalaparta, musika eta bertsolariak izango dira, besteak beste.

HERRIRA EKARTZEKO DEIA

Ekitaldi horretan, Espainiako eta Frantziako espetxe politika salatu zuten, eta presoak "euren eskubideen jabe" Euskal Herri-erakarri ditzatela eta gaixorik daudenak eta kondena beteta dutenak aska ditzatela eskatu zuten.

Euskal Preso Politikoen Kolektiboak urtarrilean hasitako "borrokaldiaren testigua" hartzen du martxak, antolatzailen hitzetan.



Prensaurrekoko momentu bat.

JULEN IRIONDO



zabalik

Rufina Olasagasti

Praktika solidarioa

Nire lanbidean hainbatetan izan dut eraikinetako garbiketa industrialean lan egiten duten hainbat andrekin solastatzeko aukera.

Andre hauei entzun dizkiet euren lantaldeetako hainbat gertakari. Lau pertsonaz osatutako lantaldearena da bat. Lankideen artean batek minbizia zuen, tratamendua egin berria zuen eta berriro ere arazoekin zebilen. Fregona edo zoru-garbigailu industrialeak mugitzea lan astuna da eta are gehiago indarrean aurkitzen ez denarentzat. Hau ikusirik, beste hirurek bere gain hartu zuten laugarren honi zegokion partea ere, hautsak kendu eta antzeko lanak, esfortzu txikiagoa eskatzen zutenak bera-ri utziz.

Beste lantalde batean eskaile-
retan gora eta behera ibiltzeko
zailtasunak zituen bati laguntzen
zioten: hain zuzen ere, berari utzi
beheko solairuetako lanak eta
taldeko beste kideen artean egin
eskailera erabiliz egin behar zire-
nak.

Beste talde batean zoruak
leuntzeko makinaren bibrazioak
kalte egiten zionari ez eragiteko, beste kideen artean erabiltzen
zuten makina...

Lehiakortasuna nagusi den ingurunean, andre hauek gai dira
solidaritatea praktikatzeko. Helburuak taldekideen artean ados-
ten direnean, zer eta nola egin onartzen dutenean, taldeak bere
kideak babesteko joera hartzen du, eta, bide batez, exigentzia
bat jartzen die. Honek eragiten du batzuetan ez onartzea kan-
potik ezarria datorren kide berria.

Funtsean, pertsonarteko harremanak dira bizitzari zentzua
ematen diotenak: familian, lagunartean, lantegian... sortutako
lantaldeak dira eusten gaituztenak eta geuk indartzen ditugu
hauek, praktika solidarioaren bidez.

**"Pertsonarteko
harremanak dira
bizitzari zentzua
ematen diotenak"**

usteak uste


Mirari Altube

Sei urteren ostean etxe barik...

Gogoan dut 2004ko abenduan egin zutela zozketa Aretxabale-
tan, Deba ibaiaren beste aldean egitekoak ziren etxebizitza
tasatua gura zutenen artean. A ze poza askok, "loteria
tokatu zaigu" zioten orduan. "Loteriarik ez" etorri zen gero,
etxeok, tasatuak izan arren, diru asko ordaindu behar zutelako.
Eta loteria hura "gurutze-bide" bihurtu da, sei urteren ostean
oraingorik etxe barik daudelako asko, eta, okerragoa dena, lanak
geldi. Lasaitzeko eskaera egin du eraikitzaileak, baina jabearen
egonezina ez dute berbek baretuko, giltzak eskuan izateak baizik.

marrazkiz

Alex Ugalde



blog-top

Zelofana

Anjel Lertxundi Esnal

<http://berria.info/blogak/lertxundi/>

Amoranteari oparitu berri dizkizun kulero-
txoek baino gehiago
balio dute diseinuzko kaxak,
paper bilgarriak, zintatxoak.
Irudia da inportantea -itxura,
zelofana, paketea lotzen duen
zintatxo koloretsua-, eta ez
paketea dagoena. Amorante-
ak paketea ikusitakoan egin
dizu ooh!: oparia ikusi
aurretik ere, arrakasta totala.

Europako parlamentuan
erabaki berri dute: Durao
Barroso kurtsu politikoa
inauguratzekotan baita,
sarrera-hitzaldira ez doan
parlamentariari soldataren
parte bat kenduko zaio.
Sesio horretan ez da deus
bozkatzen, ez da deus erabaki-
tzen, baina sarrera-hitzaldiak
arreta mediatiko handia
erakarriko duenez, on da
hemizikloa parlamentari-
ez beteta ikustea.

Saioa bukatutakoan,
parlamentariak aukera izango
dute paketetxo deigarri bat
erosteko kendu ez dizkieten
euroekin. Paketetxo distira-

tsuan kulero txoak edo Rolex
bat dagoen, berdin izango ote
zaio amoranteari?

Etsipena su-etenaren inguruan?

Joxe Aranzabal

<http://goiena.net/blogak/faroa/>

A dierazgarria da: 2006an
ETAk "su-eten iraunko-
rra" iragarri zuenean,
Sustatu-n 9 erantzun izan
zuten berriak. 2010ean, ETAk
esan duenean "ekintza arma-
turik ez burutzeko erabakia
hartu duela", Sustatu-n bertan
erantzun bakarra agertu da..

Aitzitik, albistearen
inguruko informazioek
erantzun gehiago izan dituzte
hedabide berean: BBCren
primizia eta ETAREN mezula-
riaren aitortzak 8 erantzun
izan ditu. Eta ETAREN bideoa-
ri egindako katxondeozko
ekarpenek, 5 erantzun.

Niri dagokidanez, bat
egiten dut Iban Zalduak
Twitter-en erakutsitako
sentipenarekin.

koplak

Enaitz Alustiza

Paleolitoko politika

Azken astean albiste batek
nahastu digu barrena,
mundu guztian entzuna izan
da ETAREN su-etena.

Zeinen postura /
kontrajarriak
albiste baten aurrean,
batzuk urduri ipini dira
pozez hartu beharrean.

Behin eta berriz esaten dute
"Keinu hau ez da nahikoa",
hobe geundeke denen jarrera
balitza horrelakoa.

Argi printza bat izan arren ez
zaie gustatu deneri,
nahiago dute begiak itxi ta
kartzelak betetzen segi.

Prozesu baten hasiera da
ni ziur nago zeharo,
ta bakearen bide luzean
bidezidorrak ez dago.

Eskema zaharren /
atzaparretan
dabilta politikoa,
aukera berri baten aurrean
hitz paleolitokoa.

Goienkaria

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • E05 Basabe Poligonoa • 20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Monika Belastegi Sailletako arduradunak Leire Kortabarría
(Herriak, Goienka eta Gehigarriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea),
Oinarriko diseinua Goio Arana Maketazioa Oxel Arrieta eta Imanol Soriano Publizitatea Mireia Larrañaga,
Igone Osinaga, Ziortza Martín, Ederne Gorosabel, Aintzane Muruamendiaraz Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazioa Argutzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Ibarra kalea 6 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • Tirada: 20.000 ale • Difusioa: 19.724 ale.



OID erakundeak
ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko
JaurlaritzaGipuzkoako
Foru AldundiaArrasateko
UdalaBergarako
UdalaOñatiko
UdalaAretxabaleto
UdalaEskoriatzako
UdalaAntzuolako
UdalaAramaioko
UdalaElgetako
UdalaLeintz Gatzagako
Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria**

Adierazi EH!

Amaia Agirre
Arrasate

Azken urteetan eguneroko ogi izan ditugu sarekada polizialak, ilegalizazioak, manifestazioen debekuak... Hitz batean esanda, errepresioa. Batasuna, ANV, Askatasuna, Segi, Ekin, *Egunkaria*, Joxemi Zumalabe, *Egin* egunkaria... zerrenda amaigabea da errepresio estrategia horren jomugan egon dena, eta oraindik ere dagoena.

Gure eskualdean ere badago beraien militantzia politikoaatik makrosuamarioren baten izan den herritarrik. Amaia Arrietak 6 urteko espetxe zigorra bete zuen, Jose Luis Elkoro eta Xabier Arregi *Txapi* bergararrak zigortuak izan ziren, eta egun espetxean dira. Natale Landa ere espetxeratua izan zen. Orain, Ino Galparsoro, Kepa Bereziartua, Mikel Garaiondo eta Aitor Arantzabal daude inplutsu politikoz gidatzen diren epaitegien mehatxuapean.

Errepresio horren aurrean herritarren harresi bat osatu behar dugu, espainiar zein frantziar gobernuen politika

aldaraziko duena. Errepresio politikari "aski da!" esan eta kanpo injerentziarik gabeko prozesu demokratiko bat bermatuko duen harresia.

Eta bide horretan, amnistia-aren aldeko mugimenduak ezinbestekoa jotzen du herritarren aktibazioa. Ilegalizazio politikaren aurka gaudenon indarrak bilduz lortuko ditugu helburu horiek.

Horregatik babesten dugu *Adierazi EH!* ekimena. Eskubide zibil eta politikoak euskal herritar guztiontzat aldarrikatzen dituen ekimena, hainbat eragile politiko eta sozialen babesarekin. Horrela, dei egiten zaituztegu bihar, irailak 11, aipaturiko ekimenak Bilbon antolatuko duen manifestazio nazionalera.

Urkulu garbi?

Anjel Bergaretxe, Larraitz Arando, Iñaki Iturri, Nerea Altuna
(Udal hautetsiak)
Aretxabaleta

Duela hilabete batzuk aurkeztu eta martxan jarri zuen (edo martxan jarri eta aurkeztu,

hobeto esateko) Udal Gobernuak Urkulurako diseinatu duen plana. Hasieratik azaldu genion gobernu taldeari planak zalantza ugari sortzen zizkigula. Laburbilduz, hauek dira plan hau begi onez ez ikustera garamatzaten arrazoiak:

Planaren egile bezala, biologo edota ornitologoren baten parte-hartzea botatzen dugu faltan.

Ez gaude ados inplizituki duen filosofiarekin. Jende gehiago erakartzeaz gain, bisitarien tipologia ere aldatu egingo da. Pasokoak (paseatzera edo kirola egitera doazenak) izatetik, egonkorak izatera pasatuko dira, mahaiak-eta jartzea planteatzen baita. Arlo honetan zorionak eman behar, bukatu aurretik ere arrakasta izan du-eta. Izan ere, ikusi ditugu dagoeneko lehen kanpin denda eta barbakoak.

Uste dugu gehiago hartu direla kontuan balizko bisitarien interesak, bertako biztanleen bano (animalia eta landareenaz ari gara, bereziki).

Egin diren hainbat jarduketa (sasi garbiketa masiboa, kasu) okerrak izan direla uste dugu.

Etorkizunean beste hainbat gauza emateko lehen pausotzat hartua izateko arriskua ikusten diogu. Guri, behintzat, ez zaigu ahaztu batzuek Urkulurako zituzten (dituzten?) planak.

Baina Udalaren garbitasun irrika ez da antza sasiekien ase, eta helburu berriak izendatu dituzte. Urtegiaren horman aspalditik dagoen murala ezabatzea erabaki dute, beraien ustez inguru hartan mezu politikoez tokirik ez dutelako. Eta hau aurrera eramateko, haurrei zuzendutako lehiaketa bat abiatu dute, han idatzitako desagerrarazteko erabiliko duten marrazkia aukeratzeko, hain zuzen ere.

Jantzen den modura jantzita ere, guk honi izen bakarra ematen diogu: zentsura. Jartzen diren aitzakiak jartzen direla ere, hau adierazpen askatasunaren kontrako eraso da. Non gehiago ezin izango dira mezu politikoez zabaldu? Ideologia zehatz batekoak ala edozein koloretakoak? Erabaki hau azaltzerakoan esan zitzaigunez, edozeinekin berdin jokatu lukete, baina ikusteko aukerarik izan ez dugunez, sinisteko beste eskubide dugu ez sinisteko ere.

Harritu egin gaitu, gainera, eraso hau ezkerreko (horrela definitzen dute euren burua) alderdi baten eskutik etortzeak, urteetan ez urtegiaren jabe eta kudeatzaile diren Diputazioak eta Kontsultorioak ezta Udalak ere, eskuineko alderdi batek gobernatu duenean honen kontra jo ez dutenean.

Gehien kezkatzen gaituena, onartezina, ekintza hau burutze-ko haurrak erabili gura izatearena da. Haurren parte-hartzea eta artelanak sustatu nahi badituzte, hamaika horma dago herrian bertan, horrelako lehiaketa bat antolatzekeo aproposak izango liratekeenak. Baina benetako helburua mural hori ezabatzea da, eta haurrak, ekintza horrek zalapartarik eragin ez dezan erabili nahi dituzten tresna besterik ez. Hain garbi baduzue hori egin behar dela, zergatik ez dituzue Udal langileak bidaltzen murala ezkutatuzera, besterik gabe?

Zer pentsatzen dute Kurtzebarri eskola eta Almen ikastolako irakasle eta gurasoek? Kontziente dira beste helburu batzuk lortzeko beraietaz baliatzen ari direla? Ados daude, ala engainatu egin dituzte?

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Ibarra kalea 6
20570 BERGARA



Telefonoa:
943 25 05 01



Faxa:
943 25 05 13



Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com

UE | www.udaleuskaltegiak.net

2010-2011 **IKASTURTEA**
MATRIKULA ZABALIK

5 arrazoi on
udal euskaltegian izena emateko

1. Zure seme-alabei etxeko lanetan laguntzea erraztuko dizu.
2. Komunikabideak ulertzen lagunduko dizu.
3. Lagun berriak egingo dituzu.
4. Lana aurkitzen lagunduko dizu.
5. Euskaraz irakurtzen eta idazten trebatuko zara.

Abantailak

- Titulu ofizialak.
- 30 urteko esperientzia.
- Ordutegi eta erritmo malguak.
- Kurtsoa finantzatzeko bekak eta udalaren laguntzak.
- Ekintza osagarriak.

Euskara ikasteko bide zuzena

ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA

Arimazubi plaza, 2
(Eskola Politeknikoaren ondoan)
Tel.: 943 79 70 77 / 943 79 77 88
Faxa: 943 79 91 43
E-posta: euskaltegi@arrasate-mondragon.net

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

Zabalotegi, 13
BERGARA
Tel.: 943 76 44 53
E-posta: berg.eusk@udal.gipuzkoa.net

LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA

Nafarroa 2-4
20550 Aretxabaleta
Tel.: 943 79 21 68 • Faxa: 943 79 92 62
E-posta: leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net

Intxaurtxueta 10
20540 Eskoriatza
Tel.: 943 79 21 68
E-posta: leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net

UDAL EUSKALTEGIAK
EUSKARAREN
IRAKASKUNTZARAKO
ENTITATE OFIZIALA

UE | www.udaleuskaltegiak.net

Itxaropentsu agertu da Jon Abril Aralarko koordinatzaileordea ETaren azken agiriaren harira. Bake-biderako "aurrerapauso inportantea" dela dio, nahiz eta "argitasun" eta zehaztasun gutxi ikusi dion agiriari. Ares Barne sailburuak agiriari erantzunez egin dako adierazpenak, oster, tonuz kanpokoak iruditu zaizkio. Uste du Nafarroa Bai lehen indarra izan daitekeela Nafarroan.

Jon Abril > Aralarko koordinatzaileordea

"Zokoratuak izan garen abertzaleak nagusi izan gaitezke Nafarroan"

ENEKO AZKARATE > ARRASATE

Aralarko koordinatzaileordea da 2006a ezker. Jon Abril (Bera, 35 urte) kazetaria da ikasketaz eta jardun izan du zeregin horretan, baita kultura dinamizazio arloan ere. 2003a ezker Aralarko kide da.

Ze balorazio egiten duzu ETaren azken adierazpenaz?

Positiboa, beste urrats bat delako, nahiz eta ez izan ibilbide guztiaren bukaera. Dena dela, uste dugu bake-bidean paratzen gaituen aurrerapauso inportantea dela. Honek eskatzen ditu beste urrats batzuk, bai ETaren aldetik, baina baita Espainiako Gobernuaren aldetik ere. Abagune hau aprobeztatu eta denok egin beharko dugu ahalegina.

Gehiago espero zenuen?

Batez ere, espero nuen argitasun gehiago. Eraso militarrik uztea ze eperako den, behin-behinerako den... zehaztea falta zaio. ETAk ohitura izan du bigarren agiri bat ere argitaratzeko eta ikusiko dugu argitzen diren zalantzak.

Eta ze balorazio egiten duzu Espainiako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak eman duten erantzunaren gainean?

Igandean bertan Ares Barne sailburuak egindakoak tonuz kanpokoak izan ziren. Ardura duen pertsona batek bestelako neurri batean erantzun beharko luke. Ulergarria egiten zait gehiago eskatzea agiriari, baina deus aldatu ez balitz bezala eta harrokeria horrekin esatea eskubide urraketekin segitu behar dutela, Alderdien Legearekin-eta, onartezina da.

Bueltarik gabeko erabakia da ETarena?

Pentsatu nahi dut baietz, eta jendarteak ere hori eskatzen du. Aurreko bi prozesuak hurbilago bizi izan ditut besteak baino, Lizarraga Garazikoa eta Loiola-koa. Eta ezberdintasun nabariak antzematen ditut denen artean. Prozesu honetan lidergoa Batasunak izan du. Aldaketaren beharra aldarrikatu du eta badirudi ETAk bere oinarri soziologikoa izan daitekeenari erantzunez hartu duela erabakia. Horrek itxaropentsu jartzen nau.

Legez kanporatutako ezker abertzalearen hausnarketaren eta ETaren adierazpenaren ostean, beste aro politiko baten aurrean gaude?

Bai, eta egoera berria egonkor dadin denok daukagu zeregina.

Egigurenek esan dio Lopezi mugitzeko, hartzeko iniziativa eta konboka ditzala alderdi politikoak.

Baina Idoia Mendia Jaurlaritzako bozeramaileak Egigurenen hitzen kontra egin du eta uste dut, hain zuzen ere, hori dela gobernu honen arazo nagusia: ez duela kemen edo lidergo nahikorik horrelako egoera bati aurre egiteko. Egiguren PSE-EEko presidentea baldin bada, pisu handiago eduki beharko luke alderdian edo bestela bere gogoetak plazaratzeko beste bide batzuk hartu. PSE-EEko presidentearen eta gainerako alderdikideen artean jauzi handiegia dago.

BBC kateak ETaren agiriaren bideoa zelan lortu zuen entzun duzu?

Bai. Kazetaria naiz formazioz, nahiz eta azkeneko urteetan ez aritu, eta harritu egin nau kazetariak hain agudo kontatu izana dena. Eta, neurri batean, kezkarria ere bada, ze gauza hauek diskrezioa behar dute-eta. Ekarpelik ez du egiten horrelako aipamen batek.

Argigarria da kazetariaren iturriak, kontaktuak, hari esandakoak: abertzaleak etsita daudela, independentzia gaur orain dela 50 urte bezain zaila dela, ETA oztopo dela abertzaletasunarendako...

Hausnarketa hori jende askok eginga dauka: ETAk zertan lagundu duen edo ze ekarpen egin dion herri honi, batez ere azkeneko hamarkadetan, bereziki, ze sufrimendu eragin dion herri honi.

Hauteskundeak bistan ditugu: udal eta foru hauteskundeak. Uste duzu legez kanporatutako ezker abertzaleak aurkeztu ahal izango dituela zerrendak?

Nik nahiko nuke alderdi guztiak lehian egotea, batez ere herri honen normalizaziorako beharrezkoa litzatekeelako. Baina, tamalez, Estatua eta, bereziki, justizia, ez daude hori uzteko prest. Pentsatu nahi dut hilabete batzuk geratzen direla oraindik eta aurrerapausoak egin daitezkeela, baina Zapateroren beraren ahuldadeak erabaki batzuk baldintzatzen ditu.



Jon Abril, Aralarko koordinatzaileordea, martitzenean, Arrasaten. ENEKO AZKARATE

ETA-REN ADIERAZPENAZ

"Abagune hau aprobeztatu eta denok egin beharko dugu ahalegina"

JESUS EGIGUREN

"PSE-EEko presidentearen eta beste alderdikideen artean jauzi handiegia dago"

Aukerarik ikusten duzu Nafarroa Baik eta ezker abertzale legez kanporatuak bat egiteko?

Zail ikusten dut. Nafarroa Bai sortu zenean, EA, Aralar eta EAJren arteko akordioa izan zen eta ostean batu zitzaion Batzarre. Baina Batzarre batu aurretik, Batasunarekin negoziatioetan aritu ziren eta nahiko aurrerata egon ziren negoziatioak. Baina alde bakarreko erabaki baten ondorioz, Batasunak erabaki zuen ez sartzea eta, geroztik, atak beti izan ditu zabalik Nafarroa Baik.

Patxi Zabaleta izango da Nafarroa Bairen hautagaia?

Bai. Nafarroa Bairen akordioetan zehaztuta dago Nafarroako Parlamenturako hautagaia Aralarrek aukeratzen duela, Iruñeko alkategaia EAk erabakiko duen moduan edo EAJ akordiora batzen bada, Altsasuko zerrendaburua EAJk aukeratuko duen moduan.

Iruñeko Nafarroa Bairen alkategaia zein izango da, Uxue Barkos?

Hark argi eta garbi adierazi du ez duela nahi bi erakundetan segitu: Madrilgo Kongresuan eta Iruñeko Udalean. EAren eta Uxue Barkosen eskuetan dago erabaki hori.

Nafarroan lehen indarra izan daiteke Nafarroa Bai?

Bai, eta inkesta guztiek hori adierazten dute. UPNren eta PPren arteko zatiketarik erraztu egin du hori. Nafarroa Baik lortzen badu orain dela hiru urteko hauteskundeetako ilusioa berreskuratzea, eskura izango genuke helburua eta historikoa izango litzateke. Nafarroako eskuinarentzat eta gainerako egitura politikoarentzat sekulako aldaketa litzateke orain arte zokoratuak eta gutxietsiak izan garen abertzaleak eta euskaldunak nagusi izatea.

Abertzaleak lehen indarra izanda ere, aldaketa politikoa posible izango da?

Matematikak ikusi beharko dira, sozialistek ere ez dituztelako oso emaitza onak espero. Egia da 2007ko esperientzia hor dagoela eta optimistegiak izateko aukera sobera ez dugula, baina argi dugu bide horretan sakondu beharko dugula eta PSNk erabaki beharko du UPNren eskuetik joan edo benetako aldaketa bultzatu Nafarroan.


Bi alkate ditu Debagoienean Aralarrek. Zer espero duzue hurrengo hauteskundeetan?

Aurreikuspenak onak dira, bereziki Gipuzkoan, eta Debagoiena da plaza garrantzitsua. Bi alkatetzak horiek egonkortzea izango litzateke helburua, herri guztietan presente egotearekin batera. Eta gaur egun daukagun ordezkaritza handitzea. Egingarriak diren helburuak dira, baina herritarrek erabakiko dute.

goiena.net/bideoak

Elkarrizketa osoa, webgunean.

Debagoieneko GREMIOAK



AROTZEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA

Bergara

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak
- K-21

Telleria 19 B02-B03

T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

www.goiena.net/blogak/azkarate

ELEKTRIZITATEA

AITZORROTZ ELEKTRONIKA

Aretxabaleta

- Telebista, audio eta bideoa
Salmenta eta konponketa
- Instalazio elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak

Otalora 14

T: 943 79 16 10

F: 943 79 16 10

ARANZABAL KOOP. E.

Arrasate

- Instalazio elektrikoak
- Antena kolektiboak

Zerkaosteta 15

T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

F: 943 79 68 21

ERAIKUNTZAK

ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

Arrasate

Meatzerreka auzoa

T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59

e.arrasate@euskalnet.net

FRIXI ERAIKUNTZAK

Eskoriatza

- Hormigoizko estrukturak eta urbanizazioak
- Kontratak

- Enpresen mantentze-lanak

Intxartxueta 5

T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22

F: 943 71 55 15

DEKORAZIOA

J. ORTIZ

Bergara

- Mota guztietako pladur lanak
- Igeltsu-lanen dekorazioa
- Sabai eta apaletan espezialistak
- Isolamendu akustikoa
- Gremioen koordinazioa

Alkabieta kalea z/g.

T: 943 76 03 51 / 663 90 93 18

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

Arrasate

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

T: 943 77 01 85

IMANOL ITURGINTZA

Arrasate

- Iturgintza
- Berogailua eta gasa
- Bainugelak

Kale Txiki 9 behea

Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

OYANGUREN ITURGINTZA

Eskoriatza

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

T: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

Aretxabaleta

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

T: 943 77 19 88

F: 943 79 59 97

VALES ITURGINTZA

Aretxabaleta

- Hargintza lanak
- Bainugelako altzariak
- Berogailuak
- Erretenak ipini eta garbitzea

Santa Kurtz 7, 3. ezk.

Tel.: 620 17 80 46

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK

Arrasate

- PVC leihoak
- Aluminio termikoko leihoak
- Poliuretanozko leihoak

Zigarrola 1- 8 pab.

Tel: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

F: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

ION LEIHOAK

Arrasate

- Metal aroztegia, PVC eta aroztegia

Debagoiena Industrialdea 11. pabilioia

T: 943 79 11 35

F: 943 77 31 20

YOSU THERMIK

Arrasate

- Lehio eta ate isolatzaileak
- PVC leihoak
- Aluminio termikoko lehiok
- Aroztegi mistoa (aluminio-egurra)

Kataide poligonoa 4 Pab.

Tel: 943 77 01 57

F: 943 77 03 21

LOREZAITZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

Aretxabaleta

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatzeko sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

F: 943 79 78 45

MARGOAK

APAIN MARGO ETA APAINKETA

Arrasate

- Pintura orokorrean
- Pareztatzeak
- Errotulazioa

Maitena 3-1.

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

www.danbaka.com



DANBAKA |||||

IV. MUSIKA LEHIAKETA

DEBABARRENA DEBAGOIENADURANGALDEA

PARTE HARTU NAHI?

Debagoiena, Debarrena edo Durangaldekoa bazara eta taldean zein bakarlari gisa bazabiltza, **Danbaka Musika Lehiaketa** zain daukazu. Lehiaketako talde onenak disko bat grabatu eta kaleratuko du. Debagoieneko talde onenak bideoklip bat grabatuko du.

Oinarriak eta informazio gehiago:
www.danbaka.com

irailak

17

izena
emateko
azken
eguna

Herriak

Arrasate > 12-15 Bergara > 16-19 Oñati > 22-23 Aretxabaleta > 24-25 Eskoriatza > 26 Antzuola > 27 Aramaio > 28 Elgeta > 29 Gatzaga > 29



> **BERGARA**
Aurten ez da San Martinen heriotza irudikatuko danborradan > 16



> **ARETXABALETA**
Beharpen azoka egingo du Aretxartek bihar, zapatua > 25



> **ESKORIATZA**
Isuna goiz ordaintzearen deskontua handitu du Udalak > 26



> **ARAMAIO**
Herriko sagardoa dastatzeko aukera izango da etzi, domeka > 28

ARRASATE > ELKARTEAK

30 urte yogaren bidez zoriontasuna norberarengan aurkitzen laguntzen

URTEURRENA 1980ko irailaren 19an sortu zen Arrasateko yoga elkarte; duela 30 urte, hain justu

OSPAKIZUNAK Datorren astean bost hitzaldi egingo dituzte Kulturaten, egunero bat

TAILER PRAKTIKOAK Zapatu goizean, Kulturaten ikasitakoa praktikara eramango dute elkarte

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Batasuna da yogaren oinarrietako bat. Batasuna, gizaki moduan ditugun arlo guztietan: gorputza, burua, espiritua, emozioak eta sentimenduak. Batasun horrek zoriontasuna lortzen laguntzen omen du. Hala, yogak, kanpora begira baino gehiago, norberarengan bilatzen du zoriontasuna.

Azalpenok askorendako ezezagunak izan daitezkeen arren, yoga diziplina moduan zer den ez dakien gutxi egongo da egun gure ibarrean. Duela 30 urte, baina, oso bestelakoa zen egoera. Orduan yoga inork gutxi ezagutzen zuen Arrasaten zein Debagoienean. Bada, gutxiengo horren artean zegoen Jose Luis Armendia arrasatearra. Izan ere, ondo ezagutzen zuen yoga Armendiak, Leonen egindako kanpamentu baten hasi zen mundu horretan. Eta dagoeneko beranduegi da bertatik irteteko.

ALTAMIRAKO EGOITZAN 24 URTE

Armendiak *aurkikuntza* 1980ko irailaren 19an inportatu zuen Arrasatera, beste lagun batzuekin batera. Hasierako taldea 12 lagunek osatzen zuten. Elkarte sortu berri gehienentzera, egoitza lortzea izan zen Armendia eta konpainiaren lehen buruhaustea.

Hasieran Santa Teresa auzoan elkartzen ziren, haurtzaindegi baten. Gero, San Andres auzoan egin zituzten sei urte inguru 30 metro koadro inguru zituen lokal txiki baten. Eta, azkenik, Udalararekin akordioa egin ostean Altamira auzora egin zuten. Bertan 24 urte egin dituzte, eta elkarteak ez du ateak ixteko asmorik. Izan ere, urteak aurrera joan ahala, gero eta

arrasatear gehiago joaten da elkartera. Egun, 80 bazkide inguru dira.

OSPAKIZUNA, HILAREN 20TIK 25ERA

30 urte beteko ditu, beraz, Arrasateko yoga elkarteak datorren irailaren 19an. Ospatuko duten laugarren urteurrena izango da: 10., 20. –beheko argazkian– eta 25. urteurrenak ospatu izan dituzte.

Hala, 30. urteurreneko ospakizunak hilaren 20tik 25era arte luzatuko dira eta hitzaldi eta tailerrak izango dira protagonista. *Osasun integrala eta bizitzaren kalitatea* izango dute izenburu jardunaldiek. Irailaren 24ra arte alde teorikoa jorratuko dute eta hilaren 25ean ikasitakoa praktikara eramateko aukera izango da. Edozeinek har dezake parte, edozein tailerretan. Batetik, Kulturaten hitzaldiak izango dira; bost hitzaldi eta guztiak 18:30ean hasita. Bestetik, tailer praktikoak egingo dituzte Altamirako egoitzan, zapatu goizean. Armendia



Jose Luis Armendia elkartearen egoitzan, astean ateratako argazkian.

J.B.

izango da urteurren ekitaldion koordinatzailea, eta haren alboan izango dira Antonia Nogueiras, Rake Ampuria, Jesus Romero, Carmen Sanchez eta Cristina

Corbella. Yogarekin zerikusia duten espezializazio ezberdinetan adituak dira: besteak beste, pilates eta masajea, biodantza, sukaldaritza naturala, psikologia...

Jose Luis Armendia >
Yoga irakaslea

"Ofizialki erretiratu arren, laguntza ematen jarraituko dut"

J.B. > ARRASATE

30 urtez yoga elkartearen lehendakaria izan ostean lekukoa Antonia Nogueiras irakasleari utziko dio Jose Luis Armendiak (Arrasate, 1945). Gainera, bigarren liburua bidean duela jakinarazi digu.

Aurten hartuko duzu erretiroa. Edozelan ere, ziur elkarteari lotuta jarraitzeko asmoa duzula.

Ofizialki aurten erretiratuko naiz eta Antonia Nogueirasek hartuko du nire lekua. Hala ere, ahal dudan heinean laguntzeko asmoa daukat, baina eginbehar ofizialak ez ditut nik gauzatu.

Yoga aulkian liburua kaleratu zenuen iaz azaroan. Beste proiekturik baduzu esku artean?

Bai. Beste liburua bat ateratzeko asmoz nabil. Hain zuzen ere, urteurren ospakizunetan Kulturaten egingo dudan *Buru-kontrola eta meditazioa* hitzaldia [hilaren 23an, 18:30ean] izango du ardatz liburu berriak. Hau da, hitzaldia liburu berriaren aurrerapena dela esan daiteke.

Bigarren liburua kalean noiz izango den aurrera zenezake?

Liburuak ez du data zehatzik, baina espero dut datorren urte hasieran argitaratzera bidaltzea. Izan ere, *Yoga aulkian* atera aurretik, nire lehen liburua zenez, arazotxo batzuk izan nituen formatu aldetik akatsak zituelako. Akatsok zuzentzen hilabete inguru galdu nuen. Hala, espero dut bigarren aldiaren guztia azkarrago joango dela.

Gainera, lehen liburuko marrazkiak egiteko bi laguntzaile izan nituen eta euren atzetik ibili beharra denbora galtzea ekarri zidan. Orain, marrazkiak nik neuk egingo ditut, ez dira eta oso zailak.



Jose Luis Abuin, Enkarna Mendez, Antonia Nogueiras eta Armendia, duela hamar urte, elkartearen 20. urteurrenean.

YOGA ELKARTEA

HEZKUNTZA > ARGITALPENA

Arrasateko eduki, berba, esamolde eta jaiak batzen dituen agenda

1.100 ale argitaratu dituzte eta 6-12 urte bitarteko ikasle guztiei eman diete agenda bana

UBANE MADERA > ARRASATE

Arrasateko ikasleek, irakasleek eta gurasoek inguruan bakarrena den agenda estreinatuko dute aurten ikasturtean: Arrasateko propioki ateratako agenda.

Koloretsua eta itxura txukuneko, bi zatitan dago banatuta: batetik ditu eduki lokalak (Arrasatekoak) eta bestetik, eduki unibertsalak (Euskal Herrikoak zein mundukoak).

Atzo, eguena, aurkeztu zuten agenda herrikoi hori, Kulturaten.

ARRASATEKO KANTUAK ETA BESTE

Arrasateko edukiari dagokionez, denetik dauka: "Adibidez, astero agertzen da Arrasateko berba bat; badaude, baita ere, Arrasaten erabiltzen diren esaerak; hila-bete bakoitzaren hasieran azaltzen da Arrasateko auzo bat; Arrasateko kantak ere baditu (Santamasetakoa, San Nikolas, Errementari-dantza...) joko

batzuk (Txatxilipurdik bidalita-koak, dokea...); eta Arrasateko dituen jaiak, ospakizunak eta ezaugarriak agendan markatuta daude (San Nikolas abenduaren 6an, Maritxu Kajoi urriaren 1ean...)", dio Gotzon Barandiaranek, agendaren egileak.

MUNDUKO PERTSONAIK

Eduki unibertsalei dagokionez, berriz, txertatu dituzte munduko pertsonaien biografiak. "Batzuk ezagunak (Stevie Wonder, Nadia Comaneci atleta) eta beste batzuk ez horrenbeste. Aukeratu ditugu pertsonaje horiek, umetatik izan dutelako oztupoak (fisiko, politiko edo sozialak) gainditzeko gaitasuna, eta elkertasuna eta justizia bezalako baloreak transmititu dituztelako", dio Gotzon Barandiaran idazle eta Larrabetzuko (Bizkaia) Dijitalitatea izeneko enpresako kideak.



Barberan, Aranburu, Madinabeitia, Barandiaran eta Barberena, atzo. MIREN MANIAS

Larrabetzun probatuta, "oso-oso gustura"

Larrabetzun asteon banatu dute Arrasateko moduko agenda, eta dagoeneko ekarpen mordo jaso dituzte, datozen urteotan agenda osatu eta aberasteko. Arrasaten gauza bera egiteko helbide elektronikoa abiarazi dute: agenda@dijitalitatea.com. "Jendea oso-oso gustura dago. Edukia bertokoa izateak, gertukoa izateak ematen dio balio erantsia eta oso garrantzitsua halako produktu bati", dio Gotzon Barandiaranek.

KULTURA TRANSMISIO TRESNA

Izan ere, Larrabetzutik eratorritako ideien emaitza da Arrasateko agenda, bertako Dijitalitatea enpresaren eskutik landuta. Enpresa hori dedikatzen da euskarazko kultura edukiak Interneten jartzen, "eta kultura eduki horiek ahalik eta gehien zabaltzeko asmo horretan, iruditu zitzaigun eskoletan erabiltzen diren agendak oso baliagarriak izan daitezkeela", azaldu du Barandiaranek. "Arrasateko ikastetxeetako irakasle asko kanpokoak dira, eta ez dituzte ezaugarri Arrasateko ezaugarri, jaiak edo berbategiak; eta gurasoen kasuan beste horrenbeste", gaineratu du. Beraz, herriko kultura eta hizkuntzaren transmisio tresna garrantzitsua izango da Arrasateko agenda.

AURTEN EZ DAGO SALGAI

Aurten doan banatu dute agenda ikastetxeetan, eta ez dute salgai ipiniko. Ikusiz gero gainerako herritarrendako erabilgarri dela, gero jarriko lukete salgai.



GOIENKARIA

Arbolapetako arbolaren zauria

Ahul dago Arbolapetako indiar gaztainondoa; badira urte batzuk ahuldadea erakutsi duela, eta ondorioa da eguzten goizaldean haize zakarrek arbolaren adar mardula bota zutela, 06:00 aldera. Adarra goizean erretiratu eta orain zuhaitzaren egoera aztertzen dabilta.

INGURUMENA > LANDARE INBADITZAILEAK

Landare inbaditzaileen kontra, arrakastatsu

U.M. > ARRASATE

Abuztua aprobetxatuta, Arrasaten dauden landare inbaditzaileak (Panpa belarra, *Budleja davidii* eta *Reynoutria japonica*) eliminatzeko kanpainarekin segitu egin du Udalak, zortzi urteotan moduan. Eta emaitza agerikoa da, landare horien kokaguneen erreposoa eginez gero: Deba errearen bazterrek ikustea besterik ez dago. Saihesbide bazterrean ere lan handia egin dute oraingoan, kasu horretan, Diputazioarekin elkarlanean. Edozelan ere, erraza da landare horiek ugartzea; beraz, halakoren bat ikusiz gero, Udalarari abisatzeko dei egin dute.



Deba ibaian agerikoa da azken urteotan egindako garbiketa lana.

GOIENKARIA



NAHI BADUZU, AEK-rekin AHAL DUZU!

- EUSKALDUNTZEKO MAILA GUZTIAK / ERRELEBOAK ERE BAI
- ALFABETATZEA 2 egun astean, batua eta euskalkiarekin jolasean.
- MINTZA TALDEA 2 egun astean, ahozkoa lantzeko
- 1. MAILA 2 egun astean
- 2. MAILA 2 egun astean
- 3. MAILA / EGA 2 egun astean
- 4. MAILA / 4. PERFILA 2 egun astean + proiektua + tutoretzak
- AUTOIKASKUNTZA PROGRAMA (ordu eta erdi mintza astero + 45 minutu tutoretza astero + etxerako lan pertsonalizatua)

ikasi euskara
eman izena **aek-n**
www.aek.org

AZTERKETA OFIZIALAK ETA TITULU HOMOLOGATUAK
Matrikula Zabalik irailaren 30era arte

MATRIKULATZEKO ORDUA:
11:00etatik 13:00etara
18:00etatik 20:00etara

BEKAK
Arrasateko Udalaren eta HABEren laguntzaz!

ERDU AEK
Garibai etorbidea 14, 3 ARRASATE
943 77 03 69 arrasate@aek.org

JAIK

Uribarri-Erguinen jai giroa nagusi asteburuan

Adin eta gustu oro asetzeko moduko egitaraua prestatu du Jai batzordeak

J.B. > ARRASATE

Uribarri-Erguinen auzoko jaiak izango dira aste bukaeran; gaur emango zaie hasiera suziriak jaurtita (19:00). Hala, domeka iluntzera arte ez da aspertzeko astirik izango, auzoko Jai batzordeak adin eta gustu guztiak asetzeko moduko egitaraua prestatu du-eta. Gaurko ekitaldi aipagarriena La Madriguera eta Deskicia taldeek Usaetxe plazan eskainiko duten rock kontzertua izango da, 23:00etan hasita. Rockaren ostean, elektronika jaialdia egongo da.

HERRI KIROLAK DOMEKAN

Bihar, bestalde, umeendako ekitaldiak izango dira nagusi: 10:00etatik 14:00etara astoak eta segway ibilgailuak izango dira Uribarri eliza inguruan, eta 11:00etatik 13:00etara, askotariko ekintzak izango dituzte Erguingo gazte txokoa. Gainera, haur parkea izango da egun osoan Usaetxe plazan. Domekan, azkenik, herri kirolak izango dira ekitaldi aipagarrienak; 13:00etan, Ari-mazubi plazan. Eta ekitaldi bitxi moduan, 17:00etan Usaetxe plazan izango den haurren arropa desfilea aipa daiteke.



Barruko igerilekuetako lanak aurrera doaz; bi hilabetean amaituta egongo direla uste du Aukeak.

JOKIN BEREZIARTUA

ZERBITZUAK > MUSAKOLAKO KIROLDEGIA

Igerileku barik geratuko direnei bi aukera eskaini dizkie Aukeak

Igerilekuko obrek bi hilabete iraungo dute oraindik; hori dela eta, eskaintza orekatu gura du Aukeak

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Musakolako kiroldegiko barruko igerilekuen lanak aurrera doaz, baina kanpoko igerilekuak ixten dituztenean –hilak 12, domeka– igarriko ditu erabiltzaileak lanon kalteak. Lanok, besteak beste, bi igerilekuen sakonera murriztea eta egungo igerilekuek dituzten egokitzapenak egitea dute helburu. Bi hilabete iraungo dute obrek, eta, erabiltzaileari eragingo zaion kaltea ahalik eta txikiena izan dadin, Aukeak eskaintza orekatu gura du.

BEHERAPENAK EDO TXARTELA

Hala, kirol erakundeak bi aukera eskaini dizkie eremu hezeko txartela duten erabiltzaileei: eremu lehorreko zerbitzu eta ikastaroetan beharrezkoak izatea eta txartel mankomunatua ateratzeko aukera izatea.

Lehen aukeran deskontuak %10 eta %20 bitartekoak dira zerbitzu eta ikastaroetan –masajea, fitness gimnasioa, aerobika, spinninga, pilatesa, yoga...–, pertsona eta hilabete bakoitzeko. Txartel familiarren kasuan, bi

pertsonarendako aukera dago, eta haurrik balego, eskaera egin ostean egoera aztertuko luke Aukeak. Lehen aukera horretarako izenemateak irailaren 13 eta 24a bitartean egin behar dira, kiroldegian edo BAZen. Izenematerako inprimakiak egongo dira bezeroen eskura, eta tramieta Internet bidez egiteko aukera ere badago.

Bigarren aukera, bestalde, abendura arte txartel mankomunatua eskuratzea da. Horretarako, abonatuak 4 eta 6 euro arteko ordainketa egin beharko dute, eta modalitate berean txartel mankomunatua erabiltzeko aukera izango dute.

bere ustez



Nerea Makazaga

Minaren oihartzuna barrenetan

Ez genituen garai gordin hauek espero. Baina edo-zertarako prest egotea ezinbestekoa da; goiz argian ez gara lotaratu ginenak. Edo inoiz uste horri eutsi al diozu? Antzematen genuen amaierak inoiz joko zuela eraiki genuen etxearen atea. Sinistu nahi ez bagenuen ere, bagenekien horma haiek ez zituztela gure beharrak denbora luzez eutsiko. Nik ezin nituen zure ametsak eutsi eta nireak ahaztuegiak nituen. Jada, ez daukagu zertan hizketaldi egituratuetan galdu; hau dela, bestelakoa

"Punteriaz egin zenuen tiro eta doitasunez jakin zenuen sakonenera iristen"

dela, ondokoak horrela beharko lukeela izan... Punteriaz egin zenuen tiro eta doitasunez jakin zenuen sakonenera iristen. Oroitzen dut eten segundu hura, arnasa gelditu zenekoa, bihotzak inflexio puntu hura ulertu izan balu bezala, buelta eman zueneko. Oroitzen dut, arnashartzeari ekin nion unea, bihotza azkartasun gorenera iritsi eta zauria sentitu nueneko; mina azaltetik barrenera, barrenetik azalerainoko mina.

Eta orain eskuak jartzen ditut belarrietan, zure oihartzuna barrutik datorrela jakin eta minak ihes egingo ez dela jakin arren ere. Eskuak jartzen ditut belarrietan, kanpotik entzun nahi ditudan ez entzuteko, zure ahotik iristen zaizkidan gezurretatik bizirauten duelako sufrimenduak.

> DANTZA TALDEAK

20. eta 40. urteurrenaren barruan ekitaldi berezia antolatu du biharko Txikitxu-Arrostaitz taldeak

Txikitxu-Arrostaitz dantza taldeak 20. eta 40. urteurrenari ospatu ditu aurten. Eta ekitaldion barruan antolatu dute biharko jai berezia, Herriko Plazan. Dantza taldean aritu direnek dantza emanaldia egingo dute, gaitero eta txistularien laguntzaz (18:30). Ordu berean taloa, txistorra, saiheskia, hirugiharra eta ardo ondua banatuko dira eta 19:30ean Lide eta Eneritzek osatutako bikoteak erromeria eskainiko du. Jaia borobiltzeko, Gose taldeak kontzertua emango du, 22:00etan.

> OSPAKIZUNAK

Elkarbizitzarako Eguna antolatu dute biharko Corazon de Encina elkarteak, Landan

Eguaztenean Extremadurako Eguna ospatu zuten herriko extremadurarrak Corazon de Encina elkarteak, lunch eta guzti.

Horrez gain, Elkarbizitzarako Eguna antolatu dute biharko, Landan. Egun osorako egitaraua prestatu dute, 12:00etan hasi eta 19:00ak aldera arte. Eguraldi txarra bada, San Andresko egoitzan egingo dituzte ekintzak. Besteak beste, herri bazkaria eta haur eta edadetuendako lehiaketak egingo dituzte. Al-Andalus elkarteak ere gonbidatu dute ekitaldira.



Lapuebla de Labarka 8 txalet adosatu

Berdeguna eta igerileku komunitarioa

- ▶ 3 logelako etxebizitzak
- ▶ Garajea
- ▶ Sukaldea barne
- ▶ Ordaintzeko erraztasunak



Iturriotz, 11 • Arrasate
www.inmoarrasate.com

943 77 14 11



Spinning ikastaroaren une bat, erretratuan.

GOIENKARIA

AUKEA > 'EUTSI KIROLARI' LELOPEAN, ESKAINTZA BERRIA

Bosu gap, kirol eskaintzako berritasunen artean

X.U. > ARRASATE

Aukea kirol erakundeak eta Arrasateko Udalak ikasturte berrirako kirol eskaintza aurkeztu dute aste barruan.

Musakola barruko igerilekuen lanak aurrera doaz –ikus 13. orria–, eta hemendik bi hilabetera lanok amaitu arte ez da ur eskaintzarik egongo, baina gainerako guztia gertu dute; eta berritasun nabarmenekin, gainera.

IKASTARO BERRIAK

Eskaintzaren berritasunetako bat da Bosu delakoa –plataforma bati lotutako gomazko bola

batekin egiten diren fitness ariketak–. Horrekin batera, baina, yoga, body pump, body combat, pilatesa... eskaintza zabala da eta interesatuek kiroldegian bertan izango dituzte zehaztasun guztiak –edo 672 27 55 78 edo 943 77 16 77 telefono zenbakietara deituta.

ATE IREKIEN JARDUNALDIAK

Ikasturtean zehar eskainiko dituzten ikastaro horiek jendeari ezagutzera emateko, Aukeak ate irekien jardunaldiak antolatu ditu datorren astera, (hilaren 14a, 15a eta 16a: 09:15etik 21:15ak arte).

> FUTBOLA

Mondrak datorren astean zabalduko du Lagunilla taberna

Mondra taldeko zuzendaritzak joan den denboraldi amaieran azaldu zuen Lagunilla taberna hartzeko asmoa, eta, hilabeteok taberna txukuntzen egon eta gero, zuzendaritzaren asmoa da datorren astean Mondraren taberna berriko atea zabaltzea.

Hala, ardo eta gazta egunarekin antolatzen duten moduan, taberna da klubarendako diru sarrerak lortzeko beste egitasmoetako bat.

> DEIALDIA

Atletismoan edo errugbian jarduteko dei egin dute klubek

Oraingo astean hasi dituzte Atletiko Kanpanzar atletismo taldeko kideek entrenamendu saioak, eta klubetik dei egin nahi dute Debagoienean atletismoko modalitatearen baten jardun nahi duten gaztetxoei Mojatigira joan daitezten.

Arrasate errugbiko taldeak ere gauza bera adierazi dute, errugbian jokatu nahi duten neska-mutikoei zabal-zabalik dituztela klubeko atea, Mojatigira joan baino ez dutela.

Gorka Kintana > MUKO jokalaria

"MURa bueltatu naizenean ikusi dut gazteak gogotsu daudela gauzak iaz baino hobeto egiteko"

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Azpeitiko Iraurgi taldeak entrenamenduetako kirol poltsa esperientziak beteta ekarri du Gorka Kintana (Arrasate, 1981). MUK aurten egin duen fitxaketabakarra da Kintana, eta seguruenik egin zezakeen onena. Astebete darama taldearekin entrenatzen, eta sufritzen dabilela aitortu digu.

EBAn urtebete polita bizi ostean –Iraurrik kategoriaz igotuz, zilarrezko LEB mailaratu eta zera berrituz. Zer delata?

Bada, taldean ez neukalako lekunik. Gauza normala da hori, zilarrezko LEB mailan taldeak profesionalizatu egiten direlako. Azpeitiko taldera dirua sartu da, hiru amerikar ekarri dituzte eta 23 urtez azpikoei lekua egin behar zaie. Dena dela, egoera horrek ez nau ezustean harrapatu.

Gainera, taldean lekua izango banu ere, lan kontuak tarteko ezingo nuke maila horretan jokatu.

Zelako urtea izan da Azpeitian egin duzuna?

Ederra, EBA kategorian dauden 60 taldeetatik lau onenen artean geundela erakutsi dugulako. Oso maila oneko jokalaria izan ditut aurrean eta beste maila bateko saskibaloia ezagutu dut. Gainera, Azpeitiko taldean lagun mordoak egin ditut.

Zilarrezko LEB mailan jokatzea beste kontu bat da, baina egin duzu EBako talderen batean jokatzeak ahaleginik?

Egia esan, ez. EBAn jokalaria askok ordezkari-agentek izaten dituzte, eta eurak arduratzen dira jokalariei taldeak bilatzeaz. Nik ez dut horrelakorik, eta ezta EBAn jokatzeak aparteko beharrik ere. Banekien etxeko taldeko atea zabalik nituela, eta MURa itzuli naiz.

Baina, azken bi urteotan gauzak oso ondo egin dituen tal-



Kintana, Iraurgira joan aurretik MURekin egindako azken urtean.

GOIENKARIA

"Iraurigin zilarrezko LEB mailara igota kategoria horretako 60 talde onenen artean geundela erakutsi dugu"

deren bat ere izan duzu atzetik, Oñatikoa, alegia.

[Barre] Bai, talde horretako beterranoak lagun minak ditudalako. Euretako bat, gainera, koardilakoa da eta oporrak harekin igaro ditut. Pentsa! [Barre].

Kategoria berean egonda, derbiek lagunduko dute jendea saskibaloira erakartzeko.

Bai. Eta niretako partidu oso bereziak izango dira, esan dudan moduan, lagun handiak dituda-

lako Aloña Mendin. Baina ez hor bakarrik, Azpeitiko bigarren taldea ere gure kategorian izango da, eta hor ere lagunak ditut.

Zelako taldea aurkitu duzu Arrasaten?

Jokalaria denak ezagutzen ditut, orain dela bi urte ere taldean zeudelako. Atentzioa deitu dit gauzak ondo egiteko daukaten nahiak. Iaz ez zuten helburua bete, eta horregatik amorratuta edo, aurten gauzak ondo egin nahi dituzte.

Eta zelako entrenatzailea?

Gogorra! [Barre] Lehenagotik ezagutzen nuen Josu, eta tipo jatorra da. Baina, oportetan lasai ibili naiz eta onartu behar dut lehengo astea gogorra egiten ari zaidala.



**ARRASATEKO
MUGIKORTASUN
ASTEAN 2010**

Irailaren 16-22



BIRZIKLETA AZOKA

Bigarren eskuko bizikleta azoka

Seber Altube plaza

Irailak 18, zapatua, 11:00-15:00

• Zer batuko dugu: Egoera onean dagoen edozein material. Edozelako bizikletak, mendikoak, paseokoak, errepidekoak, haurren bizikleta, triziklo, patin, patinete, kasko, belozimetro, gurrpil, eskularruak, mailotak...

• Noiz eta non batuko dugun materiala: Udak azokan

Irailaren 11n, zapatua
11:00 – 13:00

Irailaren 14an, martitzena, eta irailaren 16an, eguena
11:00 – 13:00 / 17:00 – 19:00

Salneurria jabeak jarriko dio. Saltzen ez den materiala jabeari itzuliko zaio



EMANALDIAK > MUSIKA ETA ANTZERKIA

Boat Beam eta Audienceren saio akustikoak Kulturaten

Bi taldeon doinu berrienak entzun ahal izango ditugu egubakoitzean eta domekan (20:00); bestalde, zapatuan kale antzerkia izango da

LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE

Gaur, egubakoitza, Boat Beam emakumeek osatutako hirukotearen kontzertuak eta etzi, domeka, Gernikako Audience taldearenak gozatu dute Kulturateko giroa, Udalak antolatutako duen kontzertu akustiko egitarauaren barruan.

Australiako, Ameriketako eta Espainiako emakume banak osatzen dute Boat Beam. Biola eta txeloa jotzen dituzte, besteak beste. Dagoeneko bi disko dituzte merkatuan: *Puzzle Shapes* (2009) eta *Paper Birds EP* (2010). Gaur egungo popa egiten dute, eta hainbat iturritik edaten dute: Johann Johannsson, The Dresden Dolls, PJ Harvey eta beste batzuk.

Bigarren kontzertu akustikoa domekan izango da. Gernikako eta Busturiako Audience taldeak laugarren diskoa, *A shake in calm water* (Bidehuts) aurkeztuko du zuzenekoan. Euren soinua indartsua eta pertsonala da, eta adituek bereziki goraipatzen dituzte euren zuzenekoak, "harrigarriak" direla esanez.

Rocka lantzen dute, gitarrekin, harmonikekin, perkusioarekin, haizeko instrumentuekin, pianoarekin... *A shake in calm water* estilo aldetik bariatua da, batzuetan lasaia eta beste batzuetan dantzarako aproposa.

Kontzertu biak Kulturateko areto nagusian izango dira, 20:00etan.



Boat Beam hirukotea.

GOIENKARIA



Audience taldea.

ZIGOR ETXEBERRIA

TRAPU ZAHARRAREN ANTZEZLANA

Aste bukaerarako beste proposamen bat ere badago: Trapu Zaharra antzerki taldeak ekarriko duen kale-antzerki emanaldia, *Camping Renove* izenekoa, bihar, zapatua, Herriko plazan, 19:30ean.

Uruguako Gotisolo familiaren gorabeherak antzeztuko dituzte: Euskal Herrira datoz, eta kanpin bat zabaldu nahi dute bizimodua aurrera ateratzeko. Zerbitzu pertsonalizatua izango da: bezeroari maitasuna eta leku lasaia eskainiko diote.

MUSIKA > GAZTETXEA

Itxungi Rock jaialdia egingo dute 2. urtez

Zazpi taldek -horietatik bostek Arrasateko partaideak dituztenak- joko dute zapatuan

L.K. > ARRASATE

Itxungi Rock musika jaialdia egingo dute bihar, zapatua, gaztetxean (19:00); han sortutako Itxungi irrati librearen aldeko kontzertu multzoa izango da.

Punk, rock eta oi musika entzungai izango da, honako taldeen eskutik: Never Surrender

-Arrasate-, Las Flujo -Bartzelona-, Plan B -Donostia-, La otra cara del rock -Arrasate-, Interprete Desconocido -Arrasate-, CC-627 -Oñati eta Arrasate; euren lehen kontzertua izango da- eta La banda del abuelo -Arrasate-; zazpitik bost Debagoienekoak dira. Sarrera hiru euro da.



Plan B taldeak itxungi Rock jaialdian ere jo zuen.

IMANOL SORIANO

MEHER

Marixutarako eskaintza zabala arropa eta osagarrietan.

Ba ez doktorea 1 ARRASATE
Tel.: 943 79 63 85

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

> IKASTURTEA

Datorren aste osoan eman daiteke izena margo ikastarorako

Astelehenean, hilak 13, irekiko da Kulturateko margo ikastaroan izena emateko epea, eta aste osoan izango da zabalik, egubakoitzera arte. Kulturateko margo gelara joan behar da (sarrera Seber Altubetik), 17:00etatik 19:00etara.

Aurtengo prezioak hauek dira: helduena, 133 euro (hiri ordu astean, irailatik ekainera); umeena, 68 (ordu eta erdi astean) eta zapatuetan, 90 (bi ordu). Umeek gutxienez 7 urte izan beharko dituzte.

Ikasturtea irailaren 20an hasiko da, eta irakaslea Amaia Bengoa izango da.

> ZINEMA

'80 egunean' filma emango dute gaur, egubakoitza

Mariasun Pagoaga arrasatearra protagonista duen *80 egunean* filmarekin bukatuko da udako zinema zikloa Monterron parkean (gaur, egubakoitza, 22:30ean). Jon Garaño eta Jose Mari Goenagak zuzendutako film hori adin guztietako ikusleendako da egokia.

London Film Festival jaialdi ezagunean emango dute lan hori irailaren 17an eta 18an. Jaialdiak sail ezberdinak ditu eta Cinema Europa izenekoan emango dute *80 egunean*.

Datorren astean ez da emanaldirik izango.

UGARAN
Jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

JAIK > SAN MARTINAK

Aurten ez da San Martinen heriotza irudikatuko danborrada amaieran

Antzezpenerako talderik ez da osatu; haren ordeztu 'Nagasaki' joko dute danborrek

Osterantzean, ohiko ekitaldiak egongo dira: azoka eta txomingero bazkaria, esaterako

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Bihar, zapatua, hasiko dira San Martin jaietako ekitaldiak. 10:00etan barazki, fruta eta gazta azoka irekiko dute. San Martin eta Munibe plazetan jarriko dituzte postuak eta lehiaketaren emaitzak 13:30ean emango dituzte.

Bestalde, goizean barrena odolosteak dastatzeko aukera egongo da San Martin plazan, Luis Mari Rezola, Pello Urtzelai eta Jon Leturia harakinei esker. Horrekin batera, Bergarako trikitilariak herriko kaleak alaituko dituzte.

TXOMINGERO BAZKARIA

Aurten ere txomingero bazkaria egongo da. 160 lagunendako mahai eta bankuak egokituko ditu Udalak eta jatekoa eta edatekoa norberak eraman beharko ditu. Domingo Irala kalean izango da,



San Martin gurutziltzatuta, iaz.

GOIENKARIA

eta, euria eginez gero, Simon Arrietan. Bazkalondan koadrilen arteko jolasak egongo dira, Jardun elkartearen eskutik eta Deiadar txarangak alaituta.

UMEENDAKO EKITALDI UGAR

Ume eta gazteenendako ekitaldiak osatuko dute zapatu arratsaldeak: 17:30ean gaztetxoendako zezentxo eta poneyak egongo dira Semi-

narioan eta ordu berean umeendako jolas eta tailerrak egongo dituzte leku berean. 18:30ean, berriz, bonba japoniarrak egongo dira San Martin plazan.

19:00etan erraldoi, kiliki eta buruhandien konpartsak kalejira egongo du, eta 22:30ean, Katabatik eta Lord Witch taldeek kontzertua egongo dute, San Martin plazan.

HERIOTZARIK EZ

Aurten ez da San Martinen heriotza irudikatuko. Azken urteetan Gabero abesbatzako kideek egin dute, baina laga egin dute eta Udalak herritarren artean deialdia egin duen arren, ez du ordezkorik aurkitu. Hala, danborrada santuaren gurutziltzatzearekin amaitu beharrean, estreinakoz danborrek jotako *Nagasaki* piezarekin amaituko da. Osterantzean, nagusien danborradak ohiko ibilbidea egongo du, 11 konpainiarekin.

Danborradaren harira, Udalak barkamenak eskatu nahi dizkie herritarrei Seminarioa berritze-ko lanek eragin ditzaketan eragozpenengatik.

ASTE BARRUAN GEHIAGO

Domekan sokamuturra egongo da 08:00etan eta haur, gazte eta helduendako puzgarriak Seminarioko patioan, 10:30-14:30 eta 16:00-20:00 ordutegian.

Astean barrena ekitaldi gehiago egongo dira (ikus taula).

TOSTOI ETA ERREILENOEN KOFRADIA

Jokin Etxaniz, Galarreta denda, Musika Eskola eta Txintxurreta familia, ohorezko anaidi

Azken urteetan San Martin jaien egitarauan falta ez den ekitaldia da Erreileno eta Tostoi Kofradiaren kapitulua. Aurten XI. kapitulua egongo dute. Datorren domekan, hilaren 19an, izango da hori, eta, urtero bezala, ohorezko anaidiak ere izendatuko dituzte. Hain justu, eguzten iluntzean eman zituzten aditzera, Gure Ametsa elkartean, aurtengo ohorezko anaidiak: Jokin Etxaniz pilotari eta Aspeko entrenatzailea; Galarreta oinetakoak, 100 urtean diharduelako; Musika Eskola, aurten 25. urtemuga bete duelako; eta Txintxurreta anai-arrebak, Felisa, Antxon, Eusebio eta Florita anai-arrebak, hain justu ere.

Kofradiaren kapitulua 12:15ean hasiko da osoko bilkuren aretoan eta hor izendatuko dituzte ohorezko anaidiak.



Ondo pasa San Martinetan!

KONDE
PANADEROKUA



Burdiñate 1 | 943 76 02 57
Toki Eder plaza 3 | 943 76 14 87
BERGARA



taberna

ZABALDU BERRIA

PINTXOAK * RAZIOAK * BOKATAK

Irala 10 Bergara

Egitaraua

11, zapatua

10:00 Barazki, fruitu eta gazta lehiaketa, San Martin eta Munibe plazetan.

11:00-13:30 Bergarako trikitilarien kalejira.

12:30 Odoloste dastatzea, San Martin plazan.

13:30 Barazki, fruitu eta gazta lehiaketaren sari ematea, Munibe plazan.

14:30 Txomingeroen bazkaria, Irala kalean. Eguraldi txarrarekin Simon Arrietan izango da. Gero, koadrilen arteko jolasak, Deiadar txarangak alaituta.

17:30 Gaztetxoendako zezentxoak eta poneyak, Seminarioko patioan.

17:30 Umeendako jolasak eta tailerrak, Seminarioko patioan.

18:30 Bonba japoniarrak, San Martin plazan.

19:00 Erraldoi, kiliki eta buruhandien kalejira, Udal Txistulari Bandak eta Elgoibarko dultzainariak lagunduta.

22:30 Herriko Katabatik eta Lord Witch taldeen kontzertua, San Martin plazan.

24:00-03:00 Imuntzo eta Beloki taldearekin erromeria, San Martin plazan.

12, domeka

09:00 Ageriko 37. pintura lehiaketa. Sari ematea 14:30ean izango da udaletxean. Gero, aurkeztutako lanen erakusketa irekiko dute osoko bilkuren aretoan.

10:30-14:30 eta 16:00-20:00 Haur, gazte eta helduendako puzgarriak, Seminarioko patioan.

18:00 *Faboz IV* diskoaren aurkezpena eta erromeria San Martin plazan.

15, eguaztena

19:00 *Canping Renove* Trapu zaharra taldearen kale antzerkia, San Martin plazan.

22:30 Nagusien danborrada. Gero, dantzaldia, Joselu Anaiak taldearekin, San Martin plazan.

16, eguena, San Martin eguna

08:30 Diana.

09:00 Sokamuturra.

11:00 Errrekortadore eskola ibiltaria, Seminarioan.

11:00 Meza nagusia, San Pedron, parrokiak antolatuta.

11:15 Kalejira, bandarekin

12:30 Udal Musika Bandaren kontzertua, San Martin plazan.

18:30 Haurren danborrada.

19:30-22:00 Luhartz taldearekin dantzaldia, San Martin plazan.

22:00 Suzko erruberak, Agorrosinen.

*Gurean giro ezin hobea!
Ondo pasa San Martinetan!*



Agorrosin | Ariznoa | Avenida | Azpeitxi | Bule | Depor
Etxagi | Euxebio II | Iraho | Irish pub galways | Kai
Kaixo | Kayak | Sirimiri | Toki Ona | Usoa | Zapelaitz
Ziripot | Zuhaitzi | Zunbeltz



Trikiti eskolako ikasleak kalean saioa egiten.

GOIENKARIA

JENDARTEA > EUSKARA

Zabalik dago izenematea Jardunen ikasturte berrian

Asteburuko aisialdi taldea eta dantza, bertso eta trikiti eskolak eskainiko ditu euskara elkarteak

MONIKA BELASTEGI > BERGARA
Urriaren 2an abiaraziko du 2010-2011 ikasturtea Jardun euskara elkarteak. Aurten ere eskaintza zabala dauka eta izenematea zabalik dago: irailaren 24a baino lehen eman behar da, Errotalde jauregian duten bulegoan edo 943 76 36 61 telefono zenbakian.

ASKOTARIKO IKASTAROAK

Eskaintza zabala dauka elkarteak. Batetik, asteburuetako aisialdi taldea: Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. mailetako neska-mutikoendako da eta zapatu eta domeketan, 17:00-20:00 ordutegian, jolasak, tailerrak, eskulanak... egiten dituzte, Arrizuriaga jauregian. Urteko kuota da 42 euro -37 bazkideendako-. Urriaren 2an eta 3an ate irekien jardunaldia egingo dute.

Bestetik, dantza eskola ere badauka. Taldeko euskal dantzak erakusten dituzte eta saioak izaten dira astean barrena, ordubetez. Hiruhileko kuota da

36 euro. Horrez gain, bertso eskola ere badute eta hor ere astean ordubeteko saioak egiten dituzte, Arrizuriaga jauregian, doan.

Trikiti eskolari dagokionez, soinu eta pandero eskolak ematen dituzte. Soinuari dagokionez, astean ordubeteko saioak izaten dira, Arrizuriaga jauregian eta hiruhileko kuota da 67 euro -57 bazkideendako-. Pandero eskolei dagokionez, astean ordu eta erdiko saioak izaten dira, Arrizuriaga jauregian, eta hiruhileko kuota da 57 euro -47 bazkideendako.

Umeak bazkide egiteko urteko kuota 10 euro da.

> JENDARTEA

Domekan izango da Juan Kruz Mendizabal eta Iñigo Mitxelena abadeen agur meza, San Pedron

Etzi, domeka, egingo dute Juan Kruz Mendizabal eta Iñigo Mitxelena apaizen agur-meza. Era berean, abade berriak aurkezteko meza ere izango da, Jon Molina aretxabaletarra eta Iñaki Amutxastegi debarra, hain justu ere. Meza izango da 12:30ean, San Pedro parrokian, eta lau abadeok eta Jose Ignacio Munilla Donostiako gotzainak elkarrekin esango dute.

Apaiz berriak egingo dira kargu Bergarako San Pedro eta Santa Marina parrokiez eta Elosu auzokoaz eta Antzuolako parrokiak eta Uzarraga auzokoaz. Hala, Antzuolan ere doazen abadeak eta datozenak agurtzeko meza egongo da etzi, 10:30ean.

> JENDARTEA

TAO zerbitzuaren gaineko azalpenak emateko eta dudak argitzeko batzarra egongo da astelehenean

Astelehenerako, hilaren 13rako, batzarra deitu dute udal ardura-dunek hilaren 20an indarrean sartzekoa den TAO (OTA) sistema berriaren gainean. Batzarrean, zerbitzu horren gaineko azalpenak emango dituzte, zalantzak argitu eta kezuak jaso. Hala, herritarrei dei egiten diete 19:30ean osoko bilkurara joan daitezten.

Aparkaleku eskariari aurre egiteko aparkaleku-aldiak modu funtzionalean antolatu nahi ditu Udalak eta horretarako doako eta denbora mugatuko lau gunen urdin ezarriko dituzte.

oharrak

UDALA

> Kultura taldeendako laguntzak eskatzeko epea zabalik dago

Irabazi asmorik gabeko kultura taldeei dirulaguntzak emateko oinarriak kaleratu berri dituzte. Taldeok 2010. urtean garatuko dituzten jardueretarako laguntzak dira. Hilabeteko epea dago eskaria egiteko.

KINTADA

> 1942an jaiotakoek (63ko kintoe) bazkaria egingo dute

Irailaren 25ean egingo dute, Azpeitxin -gizon zein emaku-

me-, 14:30ean. Izena ematerakoan 20 euro aurreratu behar dira Edel oihal-dendan edo Azpeitxi jatetxean, hilaren 21a baino lehen. Mugaegunetik kanpo ez da inor onartuko.

KOMUNIKABIDEAK

> Txapa Irratiaren batzarra hilaren 12an kartzela zaharrean

19:00etan egingo dute eta herritar guztiak daude gonbidatuta. Irratsaioen orduak zehazten, proiektu berriak aurkezten eta, oro har, ikasturtea diseinatzeko hasiko dira.



Iturgintza - Berogintza

Laskurain

- Etxebizitzaren zaharberritzeak
- Berogailuen instalazioak
- Aire egokitua
- Bainurako altzariak, iturriak eta era guztietako osagarriak
- Edozein konponketa lan



Barrenkale 44 - Tel./Faxa:943 76 24 89 - Mugikorrek: 607 76 24 89 / 610 20 54 99

trinmer
telecomunicaciones

tdt
televisión
digital
terrestre

GOITB jada LTDn! Egokitu zure antena GOITB-DIGITALA ikusteko.

TRINMER 20 urte antenetan
LTDerako aurrekontuak. Protokoloa eta Boletina barne



TRINMER Telekomunikazioen instalatzaile ofiziala 1305
Egogain Kalea 2-Bac 20600 EIBAR

Tel.: 943 12 73 50 - 943 10 89 43 | Faxa: 943 20 73 60 | antenas@trinmer.com | www.trinmer.com

SASKIBALOIA > BERGARA

"Helburu garbia du taldeak: mailaz igotzea"

David Urbinaren taldeak iaz galdutako kategoria errekuperatzeko asmoz hasiko du urtea

Zapatuan lagunarteko partidua jokatuko dute Durangon eta hurrengo astean Beasainen

XABIER URTZELAI > BERGARA

Lurraldeko lehen mailatik bigarreneira jaitsi dira Bergarako mutilak, eta lehiarako taldea berriro motibatuta, entrenatzailer lanetan ibiliko den David Urbinak garbi esan digu kategoriaz igotzea dela euren helburua: "Iaz infantil mailako taldearekin ibili nintzen, eta lehenengo taldea zelan zegoen ikusita, azken bi hilabeteak talde nagusiarekin egin nituen, neurri handian oraingo denboraldia prestatzen".

Izan ere, Bergara jaitsiera saihesteko lanean ibili zen ekainera arte, baina azken jardunaldietan aukera gutxi zituzten helburua lortzeko: "Horrelakoetan

emaitza txarrak jaso eta taldea dinamika negatiboan sartzen da, eta zaila izaten da horri buelta ematea. Hiruzpalau partidu puntu bakarreko aldeagatik galdu zituzten, eta horiek irabazi izan balituzte bestelako egoera izango zen". Atzokoak ahaztuta, baina, dagoeneko aurrera begira daude.

"GOGOR SAMARRA NAIZ"

Urbinak onartu digu zorrotza dela jokalariekin: "Iaz bi talde osatzeko beste jokalar genituen, eta orain hamaika jokalar geratu dira, ez dakit beldurragatik-edo [Barre]. Jokalari horiek, baina, badakite denboraldian zehar kon-



Kevian taldearen kontrako partiduko une bat.

WWW.BERGARAKE.COM

promisoa exigituko diedala, eta lan egiteko asmoz geratu dira".

Helburua garbia da: "Uste dut Bergarak baduela lurraldeko lehen mailan egoteko maila, baina horretarako ondo egin beharko dugu lan".

LAGUNARTEKOETAN MURGILDUTA

Bergara badabil hilaren 26an hasiko duten liga prestatzen. Hasite barruan Oñatin izan dira: "Bueno, errepaso polita jaso genuen, baina hiru kategoria gorago dago-

en taldea da. *Sparring* lanak egitera joan ginen, eta bagenekien zein geneukan aurrean. Dena dela, kantxan lan fisikoa egiten ibiltzea baino gusturago ibiltzen dira jokalariek horrelako partidua jokatzen".

Hala, Bergarak Durangon jokatuko du bihar lagunarteko partidua, eta datorren zapatuan Beasainen izango dira, hiruko torneoan: "Han gure kategorian izango den Aloñako bigarren taldearen kontra jokatuko dugu".

> ERROMERIA

Faborez 04 bilduma Bergaran aurkeztuko dute domekan

Faborez bildumaren laugarren lana kaleratu berri dute, eta aurkezpen erromeria irailaren 12an egingo dute San Martin plazan arratsaldeko seietan.

Diskoan honako bikoteek parte hartu dute: Ansorregi eta Larrañaga, Lutxurdio eta Aitziber, Patxi Aiorga eta Joseba Zabalo eta Ander eta Aintzane Agirrebeñak. Domekan Bergaran entzungai egongo den diskoan aurreko lanen ildoa jarraitu dute.

> PINTURA LEHIAKETA

Ageriko margo lehiaketa hilaren 12an, domekan

Bergarako artisten elkarteak antolatuta ageriko pintura lehiaketaren 37. edizioa egingo dute domekan Bergarako udaletxeko arkupeetan.

Margolariak 09:00etan hasiko dira lanean eta sari banaketa egunean bertan egingo dute, 14:30ean, udaletxean. Ondoren, aurkeztutako lanen erakusketa zabalduko dute eta lanok irailaren 13tik 25era arte egongo dira ikusgai.



*Eraman dotoretasuna
zure etxera*



gelatza

Zubillaga auzoa 1 OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51



Txema Alustitza erradiologo eskannerre egiten Udalaiz zentro medikoko bezero bati.

MIREIA BIKUÑA

■ MEDIKUNTZA

Erradiologia zerbitzu osoa Udalaiz zentroan

MIREIA BIKUÑA

Udalaiz zentro medikoan erradiologia zerbitzu osoa eskaintzen dute. Askotariko probak egiten dituzte: ohi-ko erradiografietatik hasi eta punta-puntako erresonantzietaraino. Hiru erradiologok dihardute Arrasateko kontsultan. Guk Txema Alustitzarekin egin dugu berba. Erradiologia zerbitzuaren nondik norakoak azaldu dizkigu.

Udalaiz zentro medikoak Euskal Herria plazan duen kontsultan Txema Alustitza, Juan Torres eta Xabier Arotzena erradiologok dihardute. Euren lana da irudi bidezko diagnostikoak egitea. "Hasieran X izpiak erabili genituen erradiografietan eta eskannerretan. Beste teknika batzuk etorri ziren ondoren, X izpirik gabe; besteak beste, ekografiak eta erresonantzia magnetikoak. Teknika horiek erabilia sortzen diren

diagnostikoak egiten ditugu", esan digu Txema Alustitza erradiologoak.

Gaixotasun bakoitzarendako teknologia ezberdina erabiltzen dute. Horiek guztiak eskaintzen dituzte Udalaiz zentro medikoan. "15 urteko bidea egin dugu eta erradiologian dauden teknologia aurreratuenak ditugu. Zerbitzu osoa eskaintzen dugu, gertukoak. Gaixoeekin hartu-eman zuzena dugu", esan digu Alustitzak.

ASKOTARIKO TEKNOLOGIAK

Erradiologian askotariko teknika erabiltzen dituzte. "Irudi bidezko diagnostikoa egiteko erabiltzen diren teknikak asko dira, bat bera ere ez delako egokia gaixotasun guztietarako", esan digu Alustitzak.

Udalaiz zentro medikoan teknologia ezberdinak erabiltzen dituzte. Nerbio-sistemaren eta lokomozio-aparatuaren gaineko diagnostikoak egiteko erre-

Irudi bidezko diagnostikoa egiteko askotariko teknikak erabiltzen dituzte

Erradiografiak lehen baino askoz gutxiago erabiltzen dituzte

sonantzia magnetikoak erabiltzen dituzte. Hezurren, artikulazioen, sabelaldearen eta biriken diagnostikoa egiteko eskannerre erabiltzen dute. Otorrinolaringologia arloko gaixotasunetan ere eskannerre erabiltzen dute. Urologian, eskannerre eta ekografia. Eta osteoporosiaren gaineko diagnostikoak egiteko dentsitometriak egiten dituzte.

Gainera, hortzetan dauden gaixotasunak antzemateko probak ere egiten dituzte; hain justu ere, ortopantomografiak.

Erradiografiak asko erabiltzen diren galdetuta, hauxe erantzun digu Alustitzak: "Lehen baino askoz gutxiago erabiltzen ditugu, baina oraindik ere beharrezkoak dira. Adibidez, pneumonia bat diagnostikatzeko erradiografia egiten dugu. Gaixotasun askotan, lehen diagnostikoa egiteko erabiltzen ditugu".

16 URTE ARRASATEN

Udalaiz zentro medikoak gertuko zerbitzua eskaintzen du. Gaixoarekin hartu-eman zuzena dute. Herritarrengandik gertu dago. "Guregana datozen pertsonak ondo zaintzen ditugu. Beharrezkoa duten proba egiten diegu eta ondoren diagnostiko zehatz bat egiten dugu. 16 urteko esperientzia du Udalaiz zentro medikoak Arrasaten. Hori da gure baliorik handiena", dio Alustitzak.

centro médico
UDALAITZ

- Radiologia
- Urologia

- Dermatologia
- Traumatologia

- Ginekologia
- Neumologia

- Barne Medikuntza
- Otorrinolaringologia

- Medikuntza Orokorra
- Gorputzeko Kaltea

- Psikiatria
- Pediatria

- Erresonantzia magnetikoa
- Errehabilitazioa

MEDIKUAK Euskal Herria 3 behea

Radiologia
Osagile Talde
Juan Torres Amann
Txema Alustiza Echevarria
Xabier Arotzena

Urologia Alberto Lluch Costa

Dermatologia Gonzalo Serrano

Neumologia Carmen Jaca Michelena

Traumatologia
Eduardo Escobar Martinez
Jesus Azkarate Garitano
Francisco González Boch
Edorta Esnal Baza
Arsenio Diego Garcia
Emilio Pernaut Sarnago

Ginekologia
Antonio Estomba Orío
Julio Gonzalez Etxebarri

Barne Medikuntza Fernando García Ruiz

Otorrinolaringologia Julian Igartua Almandoz

Medikuntza Orokorra Carmelo Etxeberria Uribealzo

Gorputzeko Kaltea
Angel Lafuente Aboin
Alberto Legorburu Martin
Armando Majarres Sanchez

Psikiatria Justo Alzua Ruiz

Pediatria Clinica Quirón

ORDUTEGIA

Astelehenetik eguenera.
07:30etik 19:30era.

Egubakoitzetan.
07:30etik 14:00etara.

Zapatu eta domeketan itxita.

Erresonantzia magnetikoa
Errehabilitazioa
Nafarroako etorbidea 3
ARRASATE

■ ELKARRIZKETA: MARIA ISABEL HURTADO / GIARTZU GIMNASIOA

"Hartzen dugun kafea baino merkeagoa da kirola egitea"

XABIER URTZELAI

Bergarako Giartzu gimnasio-ko lagunak ikasturte hasieran daude buru-belarri murgilduta, urtean zehar emango dituzten ikastaroak antolatzen. Bergarako gimnasioak 22 urte daratza debagoiendarrei kirola egitera animatzen, eta horretarako proposamenak eskaintzen. Maria Isabel Hurtadok eman dizkigu ikasturteko xehetasunak.

Udan egindako gehiegikeriei neurria hartzeko ordua da.

Halaxe da, eta ez gara konturatzeko egunero hartzen dugun kafea baino merkeagoa dela kirola egitea. Hau diot, inoiz entzun dudalako gimnasia joatea garestia dela.

Kirolari esker osasuntsu egongo gara, fisikoki hobeto, eta hori lortzeko Giartzun atentzio pertsonalizatua izango dugu, eguneroko kafea baino merkeago. Ez dut uste garestia denik.

Giartzun eskaintza zabala duzue.

Halaxe da, etengabe kurtsoak hartzen dituzten ondo prestatutako bederatzik langile ditugu ikastaro ezberdinak ematen. Karatea, spinninga, body balancea, defentsa pertsonala, kirol zirkuitua, aerobika, tai txi-a... esan dugun moduan, eskaintza zabala dugu. Hala, ikastaro hauetan interesa duenak gurera etortzea baino ez du informazioa eskatzen, orain gabiltza-eta taldeak sortzen.



Maria Isabel, Giartzu gimnasioan; ikastaroak goiz eta arratsalde ematen dituzte; azken saioak 20:00etatik 21:00etara.

"Karatean, 4 urteko haurrekin izan dugun esperientzia ederra izan da"

Azpimarratzekoa da 4 urteko neska-mutikoekin karatean egiten duzuen lana.

4 urteko gaztetxoekin darabagun hiru urteotako esperientzia ederra izan da, eta aurten ere Giartzun aurrera egingo dugu

egitasmo horrekin. Karateko maisu oso onak ditugu, eta ikustekoa da adin horietan karatea praktikatzeak gaztetxoek zein egiten dien.

Zeintzuk dira onura horiek?

Karatearekin umeei egokitu dagoen diziplina ikasten dute, euren energia bideratzen ikasten dute, lotsatiak diren haurrek atzean uzten dituzte lotsa horiek, indarra lantzen dute, erreflexuak...

Gainera, konturatu gara lo egiteko arazoak dituzten haurrendako oso proposa dela, eta

"Body balancea eginda gorputz osoa indartuko dugu, pisurik erabili gabe"

baita hiperaktibitate arazoak dituztenendako ere. Horrelako kasuak izan ditugu gurean, eta emaitzak ikusgarriak izan dira. Gu oso pozik gaude, eta, pentsa dezakezuen moduan, haur horien gurasoak ere bai.

Eta, body-balancea emateko zentro ofiziala zarete.

Bai, Bergaran guk bakarrik ditugu ikastaro horretan espezializatuta dauden irakasleak. Hiru hilean behin prestakuntza kurtsoak hartzen dituzte.

Zer lantzen da ikastaro horretan?

Body-balancea tai txiaren, yogaren eta borroka arteen nahasketa moduko bat dela esan daiteke. Gizonezkoek eta emakumezkoek egin dezakete eta gorputzeko atal guztiak indartzen dira. Bizkarra, sabelaldea, sorbaldak, ipurmasailak, hankak... dena indartzen da. Musika lasaia jarrita praktikatzen den kirola da, eta pisuak erabili gabe. Gure gorputzaren pisua erabiliko dugu ariketok egiteko. Besteak beste, bizkarra berriro heziko dugu kirol hori praktikatuz gero.

Spinninga ere ondo neurtuta ematen duzue.

Bai; benetako spinning eskolak ematen ditugu. Zergatik diodan benetakoak? Ondo neurtutako eskolak direlako. Gure eskolatan ikasleei gomendatzen diegu pulstometroa erabiltzea. Hala, ikasleei azterketa fisiko bat egiten diegu ikusteko zein den euren bihotz-maiztasuna, eta ikasle bakoitzari txartel baten gordezen dizkiogu datuok.

Horrela, bakoitzak badaki zein pulstaziotan ibili behar duen egiten ari den jarduerari hori benetan osasuntsua izateko eta urtea aurrera joan ahala aurrerapenak ikusten joateko.



GIARTZU gimnasioa

Tel.: 943 76 35 71 / 943 76 30 05

Body Balance, Easy Line zirkuitua, Umeentzako karatea (4 urte), Helduentzako karatea, Spinninga, Tai txi, Defentsa pertsonala, Body-gim, Fitness, Haurdunaldi ostekoa, Beste kirol batzuen prestakuntza...

www.giartzu.com

KIROLDEGIA

Igeriketako izenematea hilaren 13tik 17ra arte

350 ume onartuko dituzte jaien ondoren hasiko dituzten ikastaroetan

M.B. > OÑATI

Zubikoa kiroldegiko igeriketan eta uretako gainerako ikastaroetan parte hartu gura dutenendako izenematea astelehenean zabalduko dute. Hilaren 17ra arte eman ahalko da izena bulegoetan: astelehenean eta egubakoitzetan 09:00etatik 13:00etara; martitzenetan eta eguenetan 16:00etatik 20:00etara; eta eguaztenetan 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

45 MINUTUKO SAIOAK

Umeendako igeriketa ikastaroetan 350 neska-mutiko onartuko dituzte. 4-8 urte arteko ikastaroetan berrikuntzak egingo dituzte: astelehenean eguenera ordu erdiko lau saio egin ordez, 45 minutuko bi egingo dituzte urritik aurrera. Hala, ikasle kopurua mugatu egingo dute talde bakoitzeko. Hori horrela, ume kopurua gainditzen denean zozketa egingo dute, eta lehen-tasuna izango dute kiroldegiko bazkideek.

Gainera, bi ikastaro emango dituzte: aquagim eta aquatraining.

LEHORREKO EKINTZAK

Bestalde, kiroldegiko lehorreko ikastaroetan parte hartu gura dutenek astelehena baino lehen eman beharko dute izena. Ikastaroak hilaren 14an hasiko dituzte.



Gau-gurtzaileen sorrerako taldeko kideak unibertsitate aurrean.

GOIENKARIA

ELIZA > OSPAKIZUNAK

Munillak parte hartuko du biharko gaubeilan

Oñatiko gau-gurtzaileen taldeak mendeurrena ospatuko du bihar

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Herriko gau-gurtzaileen taldeak 100 urte bete zituen abuztuaren 15ean, baina ospakizunak bihar egingo dituzte. Besteak beste, gaubeila berezia egingo dute Jose Ignacio Munilla gotzainaren parte-hartzearekin. Gainera, Euskal Herria, Kantabria eta Burgosko gau-gurtzaileen taldeetako 300 bat ordezkari bilduko dira.

BANDEREN TOPAKETA

Mendeurrenaren ospakizunak atzo hasi zituzten. Parrokian bezperak eta hitzaldia egin zituen Juan Otaegi aita sakramentinoak. Gaur ere berbera egingo du 20:00etan. Dena den, ekitaldi potoloena bihar ospatu-

ko dute: 20:30ean agustindarren elizan elkartuko dira gau-gurtzaile taldeetako ordezkari guztiak euren banderekin. Jarraian, prozesioa egingo dute parrokia- ra. 22:00etan ekitaldi nagusia

egingo dute. Bezperak egingo dituzte, eta Munilla gotzainak meza esango du. Parrokiako klaustroan prozesioa egingo dute eta amaitzeko bedeinkapen ekitaldia egingo da.

DATUA

27

KIDE

Gau-gurtzaileen taldeak 27 kide ditu egun. Horiek dira hilero otoitz egiteko elkartzen direnak. Gainera, urtero kuota ordaintzen duten 200 ohorezko bazkide dituzte.

DATUA

3

GAU-BEILA BEREZI

Hilero elkartzen dira otoitz egitera parrokian. Baina urtero hiru gaubeila berezi egiten dituzte: Eguen Santuan, Corpus bezperan eta Domu Santu egunean.

HIRU GAUBEILA BEREZI

Gau-gurtzaileen taldea Aita Daniel Baertelek sortu zuen. 1909an egin zuen lehen deialdia Santa Ana komentuan. 1910eko abuztuaren 14tik 15erako gauean inauguratu zuten taldea. Orduetik hona, hilean behin elkartzen dira parrokian Kristori gau-gurtza egiteko. Sakristiako kaperan elkartzen dira, eta kantu, otoitz eta irakurgaiekin gurtza egiten dute 22:00etatik 00:00etara arte.

Gainera, urtean hiru gaubeila berezi egiten dituzte: Eguen Santu egunean, Corpus bezperan eta Domu Santu egunean. 1960ko hamarkadan Aizkorriko ermitan egin zituzten ekitaldi batzuk.

Oñatin, gaur egun, 29 lagunek dihardute gau-gurtzaileen taldean aktiboki parte hartzen. Edozelan ere, urteroko kuota ordaintzen duten ohorezko 200 bazkide ere badituzte.

HIRU GOTZAIN

Oñatiko gau-gurtzaileen taldeko urteurren esanguratsuenetan (50. eta 75. urteurrenak), orduko gotzainek parte hartu zuten. 1960ko abuztuaren 14an ospatu zituzten urrezko ezteiak Jaume Font i Andreu gotzainarekin. Garai hartan, 165 gurtzaile aktibo zituen taldeak.

Jose Maria Setien gotzainak parte hartu zuen 25 urte geroago, gau-gurtzaileen taldearen 75. urteurrenean. "Bakearen alde lan egingo duen elizaren aldeko" hitzaldia egin zuen. Urte hartan, 35 kide zituen taldeak.

Bihar, mendeurrenako ekitaldian, Jose Ignacio Munillak parte hartuko du elizkizunean.

Gau-gurtzaileen ospakizunak

10, egubakoitza

20:00 Bezperak, parrokian.

11, zapatua

20:30 Agustindarren elizan banderen topaketa.

21:30 Prozesioa parrokiara.

22:00 Gaubeila berezia.

> MUSIKA

Ganbara abesbatzak bi kontzertu egingo ditu aste bukaeran

Ganbara abesbatzak bi kontzertu egingo ditu, Oñatin eta Ugao-Miraballesen (Bizkaia). Aitor Biainek zuzentzen duen taldeak zuzenekoia egingo du agustindarren elizan gaur 20:30ean. Bihar, ordu berean igoko dira oholtzara Ugao-Miraballesen.

Esteban Urtzelaik zuzendaritza lana utzi zuenetik Ganbararen lehen zuzenekoia izango da gaurkoa. Hausnarketarako denbora hartu ondoren, Aitor Biainek hartu zuen taldearen arduraren oporren aurretik. Hainbat entsegu egin dituzte, eta emaitzak gaur erakutsiko dituzte. Kontzertua irekia da guztiendako.

> DEIALDIA

Izenematea zabalik erretiratuen ikastaroetarako

Pake Leku erretiratuen elkarte-ko zuzendaritzako kideek askotariko ikastaroak egingo dituzte. Interesatuak izenemate orria bete eta elkarteko postontzian utz dezakete hilaren 19a baino lehen.

Zortzi ikastaro egingo dituzte; hain justu ere, areto dantzak, bitxigintza, orratz lanak, euskal dantzak, Photoshop, euskara ikastaroa, solfeoa eta puntu ikastaroa.

Bestalde, erretiratuen elkarteak antolatuta, hitzaldia egingo du Raquel Muñozek hilaren 14an, 17:00etan. *Participar es vivir* delako hitzaldia egingo du eta erretiratuen galderak erantzungo ditu.

> KIROLA

Herri mailako pilota txapelketako izenak Arrano tabernan

Herritar talde batek Oñatiko jailetako herri mailako pilota txapelketa antolatu du. Eskuz binakako txapelketa izango da eta interesatuak Arrano tabernan eman dezakete izena. Bikoteak 10 euro ordaindu beharko du eta parte-hartzaileek 15 urtetik gorakoak izan beharko dute.

Antolatzaileen asmoa da lau kanporaketa eta finala jokatzeko, baina izena ematen duen bikote kopuruaren arabera izango da. Hiru kanporaketak hilaren 17an, 18an eta 19an jokatuko dituzte. Hilaren 26ko finalerdietan lau bikote onenak lehiatuko dira eta irabazleak, hilaren 29ko finalean.

oharrak

DEIALDIA

> 1970ean jaiotakoek kintada egingo dute

Bazkaria egingo dute Etxe Aundi jatetxean urriaren 16an. Interesatuak 30 euro sartu beharko dituzte lehenbailehen Euskadiko Kutxako 30350005340051042653 kontu zenbakian.

DEIALDIA

> Odol ateratzea egingo dute bihar

Oporren ondorengo lehen odol ateratzea bihar egingo dute odol emale taldekoek 18:00etatik 20:00etara Txantxiku ikastolan. Hurrengo ateratzeak egingo dituzte urriaren 8an, azaroaren 12an eta abenduaren 10ean.

BIRZIKLAPENA

> Etxeko olio birritan batuko dute irailean

Etxean batutako olio birziklatzeko furgoneta plazako aparkalekuan egongo da bihar eta hilaren 25ean, 09:00etatik 13:00etara. Besteak beste, etxeko olio erabilia eta beste hondakin arrisksutsu batzuk batuko dituzte egun horietan (pilak, fluoreszenteak, erradiografiak...).

MUSIKA

> Ruper Ordorikaren kontzerturako sarrerak salgai

Kultura etxean dituzte salgai txartelak, egunero, 16:30etik 20:30era, hamar eurotan. Ordorikak hilaren 17an egingo du zuzenekoia Santa Anan.

KULTURA > ZINEMA

'Origen' thrillerrarekin hasiko da zinema denboraldia gaur

Christopher Nolanek zuzendu duen azken filma emango dute aste bukaeran

Zinema emanaldiak egingo dituzte ekainera arte, egubakoitzetik astelehenera, kultura etxean

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Udako oporren ondoren zinema denboraldia martxan jarriko dute gaur. Lehen emanaldia 22:30ean izango da kultura etxeko zinema aretoan. Ikasturtea hasteko Christopher Nolanek zuzendu duen azken filma emango dute: *Origen* (*Inception* da jatorrizko izenburua eta Leonardo DiCaprio protagonista nagusia).

Aldaketa asko barik inauguratuko dute zinema denboraldia. Aste bakoitzean zazpi emanaldi egingo dituzte egubakoitzetik astelehenera arte; hain justu ere, egubakoitzetan 22:30ean; zapatuetan 17:00etan (umeendako emanaldia) eta 22:30ean; domeketan 17:00etan (umeendako emanaldia), 19:30ean eta 22:30ean; eta astelehenetan 19:30ean (Ikuslearen Eguna).

Aste bukaera bakoitzean bi film emango dituzte: helduendako bata eta umeendako bestea.

PREZIO BERBERAK

Txartelen prezioetan ere ez dago aldaketarik. Iaz neguan egindako igoeraren ondoren, helduen emanaldietako txartelak 4,50 eurotan salduko dituzte eta umeen emanaldietakoak 3,50 eurotan. Dena dela, astelehenera saioa aukeratzen dutenek gutxiago ordainduko dute; aste bukaerako azken emanaldia Ikuslearen Eguna da eta txartelak 3,50 eurotan salduko dituzte.

DATUA

8

EMANALDI

Zinema eta zineklub denboraldiak martxan jarri ondoren, astero zotzi emanaldi egingo dituzte: aste bukaeran, egubakoitzetik astelehenera arte zazpi; eta zineklubean zortzigarrena.

ZINEKLUBA

Bestalde, urri bukaeran, jaiak bukatu ondoren, zineklub denboraldia hasiko dute. Maiatz bukaera arte, astero –egunetan– film bat eskainiko dute kultura etxeko aretoan. Zineklub emanaldiak 20:00etan hasten dituzte. Zineklub taldekoek zerrenda bat egiten dute hainbat filmekin, eta horietako batzuk ematen dituzte Elias Aranguren Ucin enpresaren bidez. Hain justu ere, enpresa horixe da Oñatiko zinema emanaldiak kudeatzen dituen.

Herriko zinema zerbitzua 1980ko hamarkadan geratu zen Udalaren esku. Ordutik hona, hiru enpresak kudeatu dute: Azkaratek; Urbietak&Egañak; eta 2000 ezkererako Eliar Aranguren Ucin.

Udalak zerbitzua hartu aurretik Aloña zineman eta Garoa aretoan ematen zituzten filmak.



Origen filmaren fotograma bat.

GOIENKARIA

Leonardo DiCaprioren azken filma

Zinema-denboraldia hasteko Leonardo DiCaprioren azken filma emango dute: *Origen*. Dom Cobb (DiCaprio) industria espioiaren istorioa kontatzen du. Exekutiboak lotan direnean ateratzen dizkie sekretuak. Polizia atzetik du Cobbek, baina delitu guztiak barkatuko dizkio azken lan bat egiten badu: ideia bat lapurtu beharrean, exekutibo baten burmuinean txertatu beharko du.

Ibarreko hiru artzain Gipuzkoako txapelketan

Debagoieneko hiru artzainek parte hartu zuten Legazpin jokaturako Gipuzkoako artzain txakur txapelketan. Jesus Mari Plazaola arrasatearra bosgarren sailkatu zen *Gure* txakurrarekin; Migel Arregi oñatiarra zazpigarren *Mendi*-rekin; eta Jose Luis Madinabeitia oñatiarra bederatzigarren *Txiki*-rekin. Txapela Juan Jose Arrizabalagak jantzi zuen.



MAIDER ARREGI

AUZOAK

Atzeko kaleko jaiak hasiko dituzte gaur

Domekara arte askotariko ekitaldiak egingo dituzte

M.B. > OÑATI

Atzeko kaleko jaiak hasiko dituzte gaur. 16:00etan etxafuegoak botako dituzte eta domekara arte askotariko ekitaldiak izango dira.

Etxafuegoak bota ondoren zinta-lasterketa eta umeendako jokoak egingo dituzte. 19:00etan erraldoiak eta txorimaloak irtengo dira kaleara, auzoko trikitilarien eskutik. Gauean, 22:00etan, rock kontzertua egingo dute Distorsion, Ze Esatek eta Luz de Putas taldeek.

SOKAMUTURRA ETA PONEYAK

Bihar, 13:00etan, Naparreneko kantoian salda banatuko dute. Jai batzordekoek bazkaria egingo dute, eta 17:00etan Arno etxeak sokamuturra eta poneyak aterako ditu Atzeko kalera. 19:30ean garagardo dastatzea egingo da txosnan eta 20:00etan triki-poteoa. 21:00ean, Ehunzango batukada egingo dute. 22:30ean piroteknia saioa egongo da. Eguna bukatzeko, Chucin Ibañez eta Acapulco mariachiek erromeria egingo dute.

Domekan, 15:30ean mus txapelketa egingo dute eta 16:30ean txirringulari proba. 18:30ean txorimaloak irtengo dira kalera. Musika Elustondo anai-arrebek jarriko dute, 20:00etan eta 22:15etik aurrera. Zozketarekin eta etxafuego jaurtiketarekin bukatuko dituzte jaiak.

> EUSKARA

Euskaltegiko izenematea zabalik dago hilaren 24ra arte

Euskaltegiko matrikulazio epea zabalik dago hilaren 24ra arte. Interesatuak Bidebarrietako bulegoan eman behar dute izena 09:30etik 13:00etara eta 16:30etik 18:30era.

Ikasturte berrirako eskaintza hirutan banatu dute euskaltegiko arduradunek: alde batetik, alfabetatu bako euskaldun zaharrendako deialdia egin dute; beste alde batetik, euskaldundu gura duten herritar guztiei; eta azkenik, etorkinei. Guzti horiendako ikastaroak egingo dituzte. Taldeak sortzeko zortzi ikasle behar dituzte gutxienez.

OSPAKIZUNA > URTEURRENA

Urbaltzek 25 urte beteko dituela ospatuko dute

Hainbat berbaldi izango dituzte asteen, tartean Floren Aoiz eta Martin Garitanok egingo dutena

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Mitarte plazan dagoen Urbaltz elkarteak 25 urte beteko ditu egunotan. Momentu gozoak eta gaziak bizi izandako elkarte da, oraindik indar handia duena, eta ekitaldi sorta antolatu dute urteurrena ospatzeko. Datorren astean hiru berbaldi izango dituzte: Joseba Egibar argazkilariaren emanaldia; Floren Aoiz eta Martin Garitanoren berbaldia; eta Candido Vesa upategikoekin berriketaldia. Ekitaldi nagusia, oster, hilaren 18an egingo dute.

GAZTE ASKO DITUEN ELKARTEA

Egun 120 bazkide ditu eta Uxoia Etxebarria da presidentea. Hain zuzen, sorreratik emakumeak bazkide dituen elkarte bakarra da herrian. Pentsaera politiko bati lotuta dago Urbaltz eta elkarte poliki-poliki indar handia hartzen dabilela dio Etxebarria

presidentea. Hala, giro bikaina izaten dela jakinarazi du: "Gazte asko sartu dira azken urteotan bazkide, eta mugimendu handia dago. Familia asko egoten dira bazkaltzen eta afaltzen eta bentean giro polita egoten da".

URBALTZEKO EGUNAK OSPATZEN

Gorabehera asko izan ditu Urbaltzek 25 urtean, momentu hunkigarriak eta momentu gogorak bizi izan dituzte bertako bazkideek. Une latzei lotuta dago, hain zuzen, Urbaltzen sorrera bera: "Inaugurazioa ospatu behar zenean -Gudari Egunean- GALen atentatu bat izan zen Iparraldean, lau errefuxiatu erail zituzten, eta, arrazoi horregatik, inaugurazio ekitaldia 15 egun atzeratu behar izan zen".

Urbaltzeko eguna urtero ospatzen zuten sasoi baten, bolo txapelketa eta herri bazkaria egiten



Mitarte plazan dagoen Urbaltz elkarteak.

M.A.

ziren. "Kepa Urria eta Iñaki Iturri atxilotu arte egin zen ospakizun hori, ordutik ez da berriro egin", argitu du presidenteak.

Momentu gozoak ere asko izan dira Urbaltzen ibilbidean, tartean hauteskundeetako gauak, Etxebarriaren esanetan: "Gau horiek hunkigarriak izan dira, hiru udal hauteskunderen lorpena bertan ospatu da-eta".

ETORKIZUNA JAKIN EZINIK

2006ko urrian Ertzaintza eta idazkari judiziala izan ziren Urbaltz elkartearen ardurapean dagoen tabernan, beste herri askotan legez. Eta egungo egoera ez da guztiz argia, presidenteak jakinarazitako moduan: "Herriko tabernak 35/02 sumariopean bahituta gauden, enbarguak, interbentzio judiziala, azken finean, gure etorkizunaren norabidea jakin ezinik".

Egitaraua:

Irailak 13 (19:00), Arkupe

Argazki emanaldia: *Mundua, 25 urte argazkitan*
Egilea: Joseba Egibar

Irailak 15 (19:00), Arkupe

Berbaldia: *Independentzia atzo, gaur eta bihar*
Hizlariak: Floren Aoiz eta Martin Garitano

Irailak 16 (19:00), Urbaltz

Berbaldia: *Ardoari buruz berriketan*
Hizlaria: Candido Vesa upategiko ordezkariak

Irailak 18, Mitarte plaza

13:00, bertsolariak: Rikardo eta Enbeita
14:30, bazkaria trikitalariarekin
17:00-19:00, puzgarriak
19:00, rock kontzertua
22:00, erromeria Elviskainorekin

ETXEBIZITZA

Txarapeako etxeen jabe batek bloga egin du

Bruesa egiten dabilen etxebizitzaren gaineko egoera salatzen du

M.A. > ARETXABALETA

Txarapea ibilbidean Bruesa Eraikuntzak enpresa egiten dabilen etxebizitzaren jabe batek bloga jarri du abian bizi duten egoera salatu eta argibideak emateko: Ene Eguzkiaren Zain -<http://eneguzkiarenzain.blogspot.com>-. Facebook sare sozialean ere zabaldu du orria jabeen artean iritziak trukatzeko. Dagoeneko 500 bisita baino gehiago izan ditu abian jarri berri duen blog horrek, eta zenbait komunikabidetan ere agertu da.

Deba ibaiaren beste aldean dagoen Txarapea ibilbideko etxe tasatuak orain dela sei urte zozketatu zituzten. Batzuk dagoeneko eman dikiere jabeek, baina beste batzuk oraindik bukatu barik daude eta lanak etenda. Joan den egubakoitzean bilera izan zuen Inaxio Garro alkateak Bruesako ordezkariarekin eta berretsi zioten lanok hil bukeran jarraituko dituztela. Bruesak hainbat gremioekin dituen zorrak Kutxak bere gain hartuko ditu.

MERKATARITZA > AZOKA

'Ixadebalde' beherapenen azoka egingo du bihar Aretxartek

Mitarte kalean jarriko dituzte postuak; Orly tabernak jatekoa eta edatekoa eskainiko du eta umeez gaztelu puzgarrietan egingo dute jolas

M.A. > ARETXABALETA

Bihar, hilak 11, Ixadebalde azoka egingo du Aretxarte merkatarien elkarteak (10:30-19:00). 12 postu jarriko dituzte Mitarte kalean eta haiekin batera herriko bi elkarte egongo dira, UDA eta Loramendi.

ESKAITZARIK ONENAK

Mitarte kalearen alde bietan egongo dira postuak -eguraldi txarrarekin Herriko Plazan- eta hasieran eta bukaeran gaztelu puzgarriak Udalaren eskutik, umeez jolas egin dezaten. Aretxarte barruan dauden merkatariek eskaintzarik onenak jarriko dituzte kalean herritarren eskura. Hona bertan izango direnak: Kioskoa, Txilarra, Leintz

mertzeria, Zare, Leniz liburu dena, Zubia, Haurrak, Asensio, Kilima, Belar Meta, Gertu eta Orly taberna. Kalearen punta batean jarriko da Orly eta edariak eta mokadutxoak eskainiko ditu.

DATUA

14

POSTU

Aretxarte elkarteko 12 merkatarik jarriko dituzte postuak, tartean Orly tabernak. Horiekin batera herriko bi elkarte egongo dira, UDA eta Loramendi.

Kalearen beste puntan, oster, Aretxabaleta Kirol Elkartearen eta Loramendi Elkartearen postuak egongo dira. UDAk, hainbat produktu jarriko ditu salgai -bufandak, kamisetak...- eta bazkide egiteko aukera eskainiko du -dagoeneko bazkide diren txartelak ere bertan izango ditu.

Egunean zehar zozketa baterako txartelak banatuko dituzte egindako erosketen truke, eta ilunkaran azokan egondako merkatarien jeneroz betetako saskia zozketatuko dute.

JARRAIPENA IZANGO DUEN AZOKA

Aretxarte elkarte hainbat urtean geldi egon ondoren, udaberrian hasi zen lanean herriko



Azokan izango diren merkatariek martitzenean egindako batzarrean.

M.A.

merkataritza suspertu guran -hilabetero zozketak eginez-. Orain azoka antolatu dute, lehenegoz gurean, inguruko herrietan egindakoek arrakasta dutela ikusita. Ez diote erronka zehatzik jarri ekimenari: "Merkataritza biziberritu guran zerbait egitea

pentsatuta antolatu dugu, eta ostean etorriko da balorazioak egiteko ordua", diote Aretxarteko zuzendaritza batzordeko kideek. Azoka horrek jarraipena izatea gurako lukete antolatzaileek, hurrengoan merkatarik gehiagoren postuak jarrita kalean.

OSPAKIZUNA > KURTZEBARRI EGUNA

Kurtzebarrira joateko deia dute herritarrek, domekan

Salda eskainiko dute tontorrean, meza esan (11:00) eta mokadutxoak jan gero

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Kurtzebarri Eguna ospatuko dute gurean domekan. 82 urte beteko ditu mendi tontorrean jarritako gurutzeak, eta urteurrena gogoan herritar asko hurbilduko da bertara. Murruxio mendizale elkarteak sal-

da beroa izango dute gertu tontorrera iritsitako guztiendako (10:30) eta ondoren meza esango du abadeak (11:00). Mokadutxoak eskainiko dute gero -gazta, txorizoa eta txanpaina- indarrak berreskuratu eta beheranzko bidea hartzeko.

Bestalde, egun guztirako mendi irteera egingo du Murruxio hilaren 18an Eretzara, Gueñes eta Zaramillo artean (Bizkaia). Izena emateko martitzenean jo egoitzara (19:00-20:00) -autobusa, 15 euro-.



Herritarrek Kurtzebarri mendi tontorrean.

M.A.



Areantzako auzotarrak Andramaixetan antolatzen dituzten jolasetan, iaz.

JULEN ABASOLO

JAIK > AREANTZA AUZOA

Auzo afaria, meza, jolasak eta abesti grabaketa Agorreko Andramaixak ospatzeko

M.A. > ARETXABALETA

Eguaztenean, hilak 8, hasi zituzten jaiak Areantza auzoan, Martin Kabarrixa pertsonaia iturriko erromaran jarri eta ongietorria abestuta, eta aste bukaeran egingo dituzte ekitaldi nagusiak.

MEZA ETA MOKADUTXOAK

Gaur, egubakoitza, afaria egingo dute auzotarrek eta ondoren ikus-entzunezkoa, zozketak, kanu entseguak eta dantzaldia Iñigo-

rekin izango dituzte. Bihar, txistulariek egingo diote ongietorria egunari (10:30) eta gero meza nagusia izango dute (12:00), Basotxo erretiratuen elkarteko abestuz lagun eginda. Bukatutakoan, auzoko jeneroarekin gertatutako mokadutxoak eskainiko dute trikitilariak giroa, eta ondoren (13:15) 26. jinkana jolasari ekingo diote.

Bazkaltzera joan aurretik Bizardunak talde nafarraren

Nafarroa kantua grabatuko dute, *Youtube*-n jartzeko asmoarekin.

Arratsaldean, ostera, jokoan txanda izango da. Areantzako jolasetan jardungo dute lehenengo: soka saltoa, txapel jaurtiketa, hegazkin jaurtiketa... Eta 25. aro-sartze txapelketa dute gero.

Domekan, Kurtzebarrira joango dira, eta auzotarren argazkia aterako dute tontorrean. Eguerdian bukatuko dituzte jaiak Martin Kabarrixa etxeratuta.

> KIROLAK

Futbol eskolari hilaren 20an emango dio hasiera UDAK

Futbol eskolaren denboraldiari emango dio hasiera UDAK irailaren 20an, astelehena. 2000, 2001 eta 2002an jaiotako neska-mutikoek entrenamendu saioak hasiko dituzte egun horretan Ibarra futbol zelaian (16:45), eta gero, astelehenero izango dituzte.

2002an jaiotakoek -lehenengo hasiko diren neska-mutikoak- hilaren 22an entrenamendu saioan bertan eman beharko dute izena.

Kimuek edo alebinek -1999an jaiotakoak-, ostera, irailaren 22an hasiko dituzte entrenamenduak (16:45), Ibarra. Eta asteen bi egunean izango dituzte, eguaztenean eta egubakoitzetan.

oharrak

ANTZERKIA

> 'Chicuelina' helduendako bihar

Bihar, hilak 11, Aitziber Bilbao aktoreak *Chicuelina* eskainiko du Arkupen (22:00). Sarrera, 4 euro.

IKUSKIZUNA

> Kidam magoa domekan

Hiru urtetik gorako umeek Kidam magoaren ikuskizuna dute etzi Arkupen (17:00). Sarrera, 3 euro.

BERBALDIA

> Bertan behera ospitale berria aurkezteko berbaldia

Irailaren 16an Jose Luis Angulo Arkupen egitekoa zen Debagoieneko ospitalearen aurkezpena bertan behera geratu da kargu aldaketak tarteko.

txaloak eta txistuak

Zaborra Urkulu urtegi inguruan



Udan herritar asko joaten da Urkulura eta horietako batek argazkia bidali digu

salatzeko zikin-zikin eginda geratzen dela urtegi inguruan. Arrantzan egitera, eguzkia hartzera, bainatzera -debekatuta egon arren- edo lo egitera joaten direnak asko dira eta herritar horrek dio garbitzeaz ez direla gero akordatzen: "Sua, barbakoa, jateko tresnak botata... topatu izan ditugu, baita pilak uretan ere". Zikinkeria gehien hegaztiak ikusteko tokietan, irla inguruan eta kanalean pilatzen dela esan du.



AMETZ VELA

P-IENSOS
SUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea
ARETXABALETA

Tel.: 943 77 00 33 / 943 79 42 56

TAICHI • CHIKUNG • DANTZA

Kurtso berria zentro berrian

Klase irekiak (kurtsoa zertaz den jakiteko)
Irailaren 21ean eta 28an, 10:30ean eta 19:30ean
BIZITZA, Araba etorbidea 25, behea
635 72 08 36 - estibalizdc@euskalnet.net

UDALA > ZIRKULAZIOA

Isunetan %70eko deskontua, 15 eguneko epean ordaintzeagatik

Arau-hauste arinek 50, larriek 200 eta oso larriek 500 euroko isuna dute

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Eskoriatzako udalerrian zirkulazio arloan egiten diren arau-hausteen gaineko araudian hainbat aldaketa egitea onartu du udalbatzak azken osoko bilkuran. Besteak beste, isuna jarritako egunetik 15 eguneko epearen barruan ordaintzeak orain arte isunaren

%50eko deskontua zeukan, baina hemendik aurrera beherapen hori %70ekoa izango da.

Arau-hauste edo isunen kopuruak igotzea ere erabaki du, eraberean, udalbatzak. Hala, arau-hauste arinak 50 euroekin zigortuko dira (lehen, 30); larriak, 200 euroekin (lehen, 100); eta oso

larriak, 500 euroko isunarekin (lehen, 301 euro).

Horrez gain, elbarrien erabilera esklusiborako seinaleztatutako tokietan baimen barik aparkatzea orain arte arau-hauste arina zen, baina aurrerantzean arau-hauste larria izango da, eta, hortaz, demandatuak 200 euro ordain

du beharko ditu; eta, hamabost eguneko epean ordainduz gero, 60 euroekin zigortua izango da.

Bestalde, isun arina izaten jarraitzen du autoa uztea bi noranzko kaleetan, ibilgailuen zirkulaziorako errei batean; baimendutako ordutegiaren barruan zama-lanak egiteko guneetan; espaloien gainean eta pasealekuetan, kontrakoa dioen seinaleztapenik ez dagoenean; bigarren ilaran; zabor edukiontzia oztopatzen diren tokietan; eta behar bezala seinaleztatuta eta mugatuta dauden garraio publikoaren geltokietan.

IRAILAREN 30ERA ARTE

Horiek horrela, zirkulazioaren udal ordenantzan udalbatzak egindako aldaketen gaineko erabakia jendaurrean dago, Udaltzaingoa-aren bulegoan, nahi duenak aztertu eta egoki iritzitako erreklamazio edo iradokizunak aurkez ditzan; irailaren 30era arte aurkez daitezke erreklamazioak.



Automobila espaloï gainean uztea arau-hauste arina da eta 50 euroko isuna du.

GOIENKARIA

JAIK > IX. JAIALDIA

Biharko San Juan kaleko jaien harira bazkaria egingo dute osterara ere Egokienan

Egokiena elkarteko plazan egin dute hitzordura elizara joateko, 12:30erako

Herri bazkarirako menua honako hau da: paella, bildotsa eta tarta izozkiarekin

M.B. > ESKORIATZA

San Juan kaleko jaiak ospatuko dituzte bihar, zapatua. Bi urte-tik behin ospatzen den jaialdiaren egitarauan ez dago berrikuntza nabarmenik. Ekimenak 11:00etan hasiko dira, etxafuegoekin, eta jarraian, trikitilari eta txistularien kalejira hasiko da. 12:30erako, berriz, Egokiena elkarteko plazan geratzeko deialdia egin dute antolatzaileek, soinuaren laguntzarekin elizarantz batera abiatzeko.

Ordu erdi geroago, 13:00etan, meza santua entzuteko aukera izango dute San Juan kalean jaiotakoek edo han bizi direnek, San Pedro elizan. Handik irtetean, txikiteoan hasiko dira auzotarrak, musikarien laguntzarekin.

60 LAGUN

Urtero moduan, herri bazkaria ere egongo da, Egokiena elkartean. Orain arteko bazkarietan 100 lagunetik gora batu izan dira; aurten, baina, jende gutxia-

gok eman duela izena jakinarazi digu Jasone Orbegozo antolatzailleak. Eguaztenerako 60 lagun inguru zeuden apuntatuta; dena dela, epea itxi arte kopuru hori zertxobait igoko zela aipatu zuen.

Egun horretako menua zein izango den ere jakinarazi digu: lehenik eta behin, paella mistoa; bigarrenik, bildotsa eta entsalada; eta amaitzeko, tarta izozkiarekin. Giro ederik ez da faltako bihar San Juan kalean.

AISIALDIA

Grafiti jaialdia egingo dute bihar

Bailarako zortzi margolari ibiliko dira egun osoan marrazkia egiten

M.B. > ESKORIATZA

Bihar, zapatua, Luis Ezeiza ikastetxe ondoan dagoen Kulunka haurreskolako pareta margotzen ibiliko dira Debagoieneko zortzi margolari. Denen artean marrazki bat osatuko dute.

Hitzordua 12:00etan dago jarrita. Margolariak margotzen duten bitartean, Selektak Kolektiboko abeslari Daddy Jeff abeslariak musika jarriko du; horrez gain, panelak ere egongo dira gura duenak margotu ahal izateko. Eguerdian 14:00ak arte izango dira, eta bazkaldu ostean, 16:00etan lanari ekingo diote osterara ere.

Bertso Sound System jaialdia ere izango da, 19:00etan; bertsolariak, rap abeslariak, margolariak eta DJ musika izango dira han.

> TEKNOLOGIA BERRIAK

Eguaztenean bisitatuko gaitu KZguneko tutoreak

Eskoriatzako KZguneko tutorea hilaren 15ean izango da liburutegian honako ordutegian: 16:00etatik 20:00etara bitartean. Besteak beste, sare sozialak, Skype, Google tresnak, Blogger, Youtube, Wikipedia, Google Maps eta Earth, Softonic, Flickr, wi-fia, Google Docs eta Megaupload erabiltzen ikasi ahal da horietan. 16 urtetik gora dituen edozeinek parte hartu ahal izango du bi ordu irauten duten ikastaroetan.

> KULTURA

Zapatuetako pintura tailerrean izena eman daiteke

Dagoeneko izena eman daiteke helduendako pintura tailerrean. Interesatuak irailaren 29ra arte dute eskaera aurkezteko epea, kultura etxean, 943 71 46 88 telefono zenbakian edo kultura@eskoriatza.net helbidean. Tailerra, aurreko urteetan bezala, urritik ekainera bitarteko zapatuetan egingo da kultura etxean, 14:30etik 17:30era. Eskolak urriaren 10an hasiko dira.

UDALA > KUDEATUZ

Kudeatuz egitasmoko inkestak etxeetan banatuko dituzte

'Antzuolan zer dago faltan eta zer sobran?' galderari erantzun beharko diote telefonoz hainbat antzuolarrek datozen egunotan

MIREIA BIKUÑA > ANTZUOLA

Kudeatuz programa abian jarriko dute datozen asteotan Antzuolan. Hilaren 2an bilera egin zuten udal arduradunek Aldundiko ordezkariekin, eta jarraitu beharreko pausoak zehaztu zituzten.

Prozesua abian jartzeko, gutunak bidaliko dituzte etxe guztietara. Horietan Kudeatuz progra-

maren nondik norakoak azalduko zaizkie antzuolarrei. Informazioarekin batera inkesta bat jasoko dute herritarrek: gogobetetasun inkesta. Hainbat gairen inguruko galderak erantzun beharko dituzte. "Gure asmoa da programaren bitartez herritarren balioak definitzea eta adostea. Herritarren parte-hartzea

eskertuko dugu", esan digu Pedro Iturbe alkatea. Bestalde, Foru Aldundiak inkestak egingo ditu herritarren artean telefono bidez. Galdera izango da: *Antzuolan zer dago faltan eta zer soberan?* Gainera, herritarrek euren iradokizunak egiteko aukera izango dutela esan digu alkatea.

HAMAR UDALERRITAN

Udalbatzak uztaileko osoko bilkuran onartu zuen Kudeatuz programan parte hartzea. Antzuolaren batera Beasainek, Elgetak,

Mutrikuk, Oriok, Ormaiztegik, Urrietak, Urretxuk, Zestoak eta Zumaiak parte hartuko dute Kudeatuz programan.

ESANAK

"Gure asmoa da herritarren balioak definitzea eta adostea"

Pedro Iturbe > Alkatea

IRTEERA

Finalista Eguna egingo dute Trekutzen

09:00etan irtengo dira Antzuolako plazatik; 8 kilometro egingo dituzte

M.B. > ANTZUOLA

Arrola mendizale elkarteak antolatuta Finalista Eguna ospatuko dute irailaren 19an Trekutzen. 09:00etan irtengo dira Antzuolako plazatik eta zortzi bat kilometroko ibilbidea egingo dute. Hain justu ere, plazatik irtenda, San Jose aldera egingo dute Uzarraga igo aurretik. Ondoren, Arrasate baseritik Trekutz aldera egingo dute. Irteera proposa da familiendako. "Seme-alabekin joateko irteera polita da. Giro onean egingo dugu", esan digu Arrola taldeko kide Iker Mansok.

Trekutzen salda eta hamarretakoa egongo da parte-hartzaile guztiendako.

Irteeran parte hartu gura dutenek irteera lekuan eman beharko dute izena.

URRIAN, GORBEIARA

Arrola mendizale taldeak esku artean du ikasturteko lehen irteera. "Urri bukarran Gorbeia aldera egingo dugu, baina oraindik ez dugu eguna zehaztu", esan digu Iker Mansok.

> GARRAIOA

Gaeko autobus zerbitzua bihar San Martin azokarako

Bihar San Martin azoka ospatuko dute Bergaran. Hori horrela, Pesak autobus zerbitzu berezia jarri du bihar gaueko. Antzuola-Bergara-Elgeta eta Elgeta-Bergara-Antzuola lineek zerbitzua emango dute. Alde batetik, 00:00etatik 06:00etara autobusak irtengo dira Antzuolatik Bergara aldera orduro. Bestalde, Bergaratik Antzuolara joateko autobusak egongo dira 00:45ean, 01:45ean, 02:45ean, 04:45ean eta 05:45ean.

> ELIZA

Parroko berriei ongietorri meza egingo die Munillak etzi

Domekan, 10:30ean, mez egingo du Munilla goitzainak La Antigua elizan, herriko bi parroko berriei ongietorria egiteko. Jon Molina aretxabalarra eta Iñaki Amutxastegi debarrak hartuko dute Juan Kruz Mendizabalen eta Iñigo Mitxelenaren lekukoa Bergaran eta Antzuolan.

txaloak eta txistuak



GOIENKARIA

Herriko jolasleku nagusiaren egoeraz



Irakurle batek mezua bidali digu Antzuolako jolasleku nagusiaren egoeraz kezkatuta. "Gure seme-alabek jokatzen duten jolaslekua zaharkituta dago, eta oso arriskutsua da. Dagokionak ez dio jaramon handirik egiten eta askotan oso zikina egoten da. Noizean behin bakarrik garbitzen dute", idatzi digu, kezkatuta.

Arin Jatetxea

Karta • Plater konbinatuak
Ogitartekoak • Pintxoak

ETXEKO BEREZITASUNAK:

Buztana eta txuleta
(zaharrarena).

Enkarguak ere hartzen ditugu.

Astelehenetan eta martitzenetan itxita

Kalebarren 7 • 943 78 62 45
ANTZUOLA

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki

**MUEBLES
IGEA**

Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

zabalo
IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. eta faxa:
943 76 60 89

ZAHAR BERRITZEAK:

Fatxadak

Bainugela eta sukaldea

Lokal komertzialak

Teilatuak

JAIK > TXIRRITOLA

Hamabi sagardogilek hartuko dute parte Txirritola egunean

Txotx irekiera domekan 12:00etan; neska-mutikoendako tailerrak izango dira plazan, eguerditik 14:00ak arte

EDU MENDIBIL > ARAMAIO

Aramaioko 12 sagardogileren sagardoa dastatzeko aukera izango da domekan, Txirritola egunean. Txotx irekiera 12:00etan

egingo dute plazan. 2 eurotan salduko dituzte edalontziak Txirritolakoe eta nahi beste sagardo edateko aukera izango da. Honako sagardogileek postu bana jarriko dute: Adrian Abarrategi, Juan Antonio Aretxaga, Jon Andoni Axpe, Etor Arregi, Martin Arriolabengoa, Juan Jose Peciña, Iñaki Errasti, Pedro Lizarralde, Enrique Gardoki, Juan Jose Iartza, Jokin Balanzategi eta Jose Luis Madina. Sagardoaz gain, taloak eta pintxoak ere izango dira.

Euskal giroan herriko sagardoaz gozatzea, horixe da dome-

kako ospakizunaren helburua, Txirritolako ordezkarien arabera. Garai baten apirilean ospatzen zen jaia irailean egin dute azken urteotan.

TXIKIENDAKO TAILERRAK

Jaiak irauten duen bitartean, gaztetxoei zuzendutako tailerrak izango dira domekan plazan. Hain zuzen ere, henna tatuajeak eta ile-apaindegia landuko dituzte txikiek 12:00etatik 14:00etara. Domekako Txirritola eguna 11:30ean hasiko da, trikitilarien saioarekin.



Argazkian, iazko sagardo eguna.

GOIENKARIA

UDALA > NEKAZARITZA

Tellamendiko garbiketa bukatu du Udalak

Basoan ganadua duten hainbat herritarrek egindako eskariari erantzunez egin dira lanak

E.M. > ARAMAIO

Azken egunotan sastrakak kendu dituzte Tellamendin. Udalak egin ditu lanak; abuztuaren 25ean hasi eta oraingo astean amaitu dituzte. Udaleko Mendi eta Ingurumen zinegotzi Jon Errastiren arabera, basoan ganadua duten

hainbat herritarrek egindako eskariari erantzunez egin dira lanak. Tellamendin egindako azken garbiketa aspaldikoa zen.

Zortzi hektarea eta erdi inguruko lursaila izan da garbitu dutena, eta datozen asteotan ongarria eta belar hazia botako

dute han, ganaduarendako bazkaleku izateko asmoz.

DIRULAGUNTZAREN ZAIN

Lanen aurrekontua 10.000 euro ingurukoa izan da eta dagoeneko dirulaguntza jasotzeko eskaria egin dute Diputazioan. Tellamendiko lanekin jasotako erantzunaren arabera, etorkizunaren baliteke Arangion eta Murugainen ere antzeko lanak egitea.

> TXIRRITOLA

Udako postalak: lehiaketan parte hartzeko azken egunak

Eguaztenean, irailaren 15ean, bukatuko da epea Txirritola elkartearen udako postalen lehiaketan parte hartzeko. Ondoko helbidean jasoko dituzte postalak: Txirritola euskara elkarte; kultura etxea; 01160; Aramaio. Irabazleak Aramaioko jatetxe baten bi lagunendako afaria eskuratuko du.

> LANA

Langabeendako ikastaroa Legution, irailaren 20an hasita

Zuiako Koadrilak langabeei zuzendutako ikastaroa antolatuko du: zerbitzu askotariko langile ikastaroa. Elektrizitatea, igeltserotza, lorezaintza eta iturgintza jorrituko dituzte. Ikastaroa Legution izango da, irailaren 20tik urriaren 20ra, 09:30etik 14:00etara. Argibideak eta izenematea (15 euro) 945 43 01 67 telefonoan.

> KULTURA

'Zuiako Koadrilari begirada bat' argazki lehiaketa

Zuiako udaletan ateratako argazkiak aurkeztu beharko dira. Irabazleak 300 euro eta trofeoa eskuratuko ditu, bigarrenak 200 euro eta trofeoa eta hirugarrenak 150 euro eta trofeoa. Aramaioko irudi onenarendako, 55 euro eta trofeoa. Urriaren 20an bukatuko da lanak entregatzeko epea. Argibide gehiago 945 43 01 67 zenbakian.

Abantailaz
betetako kluba!

Goiena
kluba

UZTAILEKO
IRABAZLEAK

Telefonoa: 943 25 05 05
e-posta: kluba@goiena.com
Kuota: 45 euro



ARRIKRUTZERAKO
BI SARRERA

Arrikruz kobak
ikusteko bi sarrera



IRABAZLEA
**Zeilio
Berezibar
Altuna**
Arrasate

ELHUYAR-EN
PANPINA ETA JOKUA

Elhuyar-en
panpina eta jokua



IRABAZLEA
**Unai
Etxebeste
Larrañaga**
Oñati

ESAIT-EKO
KAMISETA GORRIA

ESAIT-eko
kamiseta gorria



IRABAZLEA
**Iñaki
Gantxegi
Bergara**
Bergara

EUSKALTELEKO
KAMISETA

Euskaltel-Euskadiko
kamiseta laranja



IRABAZLEA
**Pilar
Calvo
Sodupe**
Arrasate

SARI NAGUSIA
UZTAILA-URRIA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

WII SPORTS RESORT
PACK TXURIA

Ukabi
informatika

Sistemen salmenta eta mantenua
TPV eta enpresak kudeatzeko aplikazioak
Webguneen diseinua.

Domingo Irala z/g (Ariznoa aurrean)
BERGARA Tel.: 943 15 01 01



ELGETA > KIROLA

Bederatzi kirol jarduera ikasturte berrirako

Urriari hasiko dira saioak eta lehenengo bi asteak doan izango dira proba egin nahi dutenentako

Ainhoa Callejak eta David Fernandezek gidatuko dituzte 2010-2011 ikasturtean saio gehienak

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Forman egoteko jarduera fisikoren bat egitea nahi duten elgetarrendako gertu dago ikasturte berrirako udal programa. Urriari hasiko dira saioak eta lehenengo hamabostaldian jarduera ezberdinak doan ezagutzeko aukera izango dute interesatuek. Lazko prezio berdinean mantentzeko erabakia hartu du Udalak eta langabetuei %10eko deskontua egingo zaie.

Iaz moduan Goiena Sport enpresarekin elkarlanean antolatatu du Udalak kirol eskaintza. "Planteamendua zen adin tarte guztiendako eskaintza egitea eta eskaera hori asetzen saiatu gara", adierazi du Goiena Sport enpresako kide Bixen Calzonek.

IZENEMATEA ZABALIK

Hasiera batean iaz izandako eskaera kontuan hartuta spinning saioetarako hiru talde osatzeko aukera emango dute aurten. "6-8 urte bitarteko umeendako jolas saioetan koordinazioa, eta oreka moduko gauzak landuko ditugu", azaldu du Calzonek. "Kirol hastapena da, kirol espezializatu batera jo nahi duen umeendako aproposa". Goiena Sport enpresaren kudeaketatik kanpo gelditzen den psikomotrizitate ikastaroa bi urteko umei zabalitzen zaie aurten, eta nagusiek tai txi zein yoga egiteko aukera ere izango dute. Izena emateko udaletxera jo behar dute interesatuek edo kirolak@elgeta.net helbidera zuzendu behar dute.

Kirola zerbitzua 2010-2011 eskaintza

PSIKOMOTRIZITATEA

Astelehenera 2-6 urte bitarteko umeendako. Orduetgia finkatzeke.

MULTIKIROLA

Astelehenera eta eguaztenetan. Bi talde; 17:00etan eta 18:00etan hasita.

GAP/STRECHING

Astelehenera eta eguaztenetan 19:00etatik 20:00etara.

SPINNINGA

Hiru talde. Astelehenera eta eguaztenetan 20:00etan hasita edo martitzenetan eta eguaztenetan 19:30ean edo 20:15ean hasita.

HIRUGARREN ADINEKOEN GIMNASIA

Martitzenetan eta eguaztenetan 16:30etik 17:30era.

JOLASAK (6-8 URTE)

Martitzenetan eta eguaztenetan 17:30ean hasita.

MANTENTZE GIMNASIA

Martitzenetan eta eguaztenetan 18:30ean hasita.

ELGETA > GARRAIOA

Hainbat autobus zerbitzu udazkeneko ordutegiarekin funtzionatzen hasi dira

L.Z. > ELGETA

Irailarekin batera iritsi dira ordutegi aldaketak garraio konpainietara ere. Mantendu egiten dira zerbitzu guztiak eta Elgetako Udalak, Diputazioarekin lankidetzan, Elgeta Bergararekin lotzen duen zerbitzu berezia eskaintzen jarraituko du. Orain arte bezala, Lurraldebus-eko autobusek eta Pegerto Blancoren taxi-busak eskainiko dute zerbitzu hori.

BONUAK UDALETXEAN

Udaletxean eros daitezke zerbitzu horretarako bonuak. Bidaia-eren prezioa euro bat da.

Autobus zerbitzuen ordutegi berria

ASTELEHENETIK BARIKURA BITARTEAN (LANEGUNAK)

Elgeta-Bergara	07:40, 09:20; 11:45 eta 17:20
Elgeta-Eibar	14:00 eta 20:50
Elgeta-Donostia	09:20 eta 17:20
Elgeta-Bilbo	08:45 eta 18:15
Bergara-Elgeta	08:35; 11:30; 14:30 eta 18:05
Donostia-Elgeta	07:00 eta 16:30
Eibar-Elgeta	13:30 eta 20:20

ZAPATUETAN

Elgeta-Donostia	09:20 eta 17:50
Donostia-Elgeta	07:30 eta 16:30

DOMEKA ETA JAIEGUNETAN

Elgeta-Donostia	09:50 eta 17:50
Elgeta-Eibar	12:30 eta 19:30
Donostia-Elgeta	09:30 eta 19:00
Eibar-Elgeta	12:00 eta 19:00

LEINTZ GATZAGA > OSPAKIZUNA

Erretiratuen Eguna bihar

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Herriko erretiratuei omenaldia egingo die bihar Gatzagako Udalak. Jaiak bukatutakoan eskaintzen dieten urteroko ospakizuna da eta egun pasa polita egiteko aukera izango dute.

Garro jauregian dagoen Toki Eder elkartean izango dute baz-

karia erretiratuek, azken urteotan legez, eta Ainara Zubillaga zinegotziak uste du iaz beste elkartuko direla, 30 inguru. Eguerdian parterako dute hitzordua eginda, eta herrian bueltatxo eman ostean bazkaltzera joango dira. Bazkalostea girotzeko musika izango dute lagun; hala ere,

batzuek karta jokoan egin gura go izango dute eta beste batzuek kontu kontari jardun.

Egoera ekonomiko larria dela-eta aurrekontua murriztu beharrean izan dira udal ordezkariak, baina oparixoren bat edo beste jasoko dute, beste urte batzuetan legez.

ELGETA > FESTA

Baserritarren azoka eta Sagardo eguna prestatzen

L.Z. > ELGETA

Urteroko ospakizuna da eta gatzetxeokoei ipini dute eguna. Irailaren 18an, zapatua, izango da Sagardo eguna. Tortilla lehiketa 18:00etan hasiko da eta bertan parte hartu nahi dutenek liburutegian eman behar dute izena hilaren 16a baino lehen. Ondotik egingo den herri afarian parte hartzeko ere alde aurretik eman behar da izena. Interesatuek Haizea tabernara

jo behar dute hilaren 13a baino lehen. Prezioa 22 euro da.

ASTE BUKAERA KONPLETOA

Hurrengo hitzorduz beteriko aste bukaera izango da herrian. Zapatu goizean baserritarrek azoka egingo dute, eta domekan Vespa eta Lambretta motorren topaketa izango da. Azokan parte hartu nahi duten baserritarrek hilaren 16rako eman behar dute izena udaletxean.

> GARRAIOA

Bergarako San Martin jaiak direla-eta, gaueko autobus zerbitzu berezia egongo da zapatuan

Azken urteotako dinamikari jarraipena emanez zapatu gauean autobus zerbitzu berezia martxan izango da. Festazaleen segurtasunerako autoa alde batera utzi eta garraio publikoa erabiltzeko deialdia egin dute. Zerbitzu berezia 00:10etik aurrera eskainiko dute eta martxan izango da 06:45era arte.

> ERRETIRATUAK

Bete egin da Santo Domingora egun pasa egitera joateko Xalbadorpek antolatutako autobusa

Xalbadorpe erretiratu elkarteak egun osorako txangoa antolatu du Errioxako Santo Domingo de la Calzada herrira. Deialdiak arrakasta handia izan du; izan ere, bete egin da 55 lagunendako autobusa izena emateko epea agortu aurretik. Hori bakarrik ez, itxaron zerrenda ere geratu da. Hilaren 15ean egingo dute txangoa.

> ZERBITZUAK

Udal gizarte langileak ordutegi berezia izango du hilaren 24ra bitartean; egun hori barne

Eguaztenetan eta barikuetan izango da herrian udal gizarte langilea; 08:00etatik 13:00etara. Txanda hartzeko 943 768 022 telefono zenbakira deitu behar da. KZguneko erabiltzaileek, berriz, jakin behar dute astelehenean, hilak 13, zerbitzu horretako tutorea Elgetan izango dela 16:00etatik 20:00etara.

> OSPAKIZUNA

1972. urteko kintoek bazkaria egingo dute hilaren 25ean; izena eman behar da aurretik

Elkartzea erabaki dute eta deialdia egin dute. 1972. urteko kintoek bazkaria antolatu dute hilaren 25erako. Aldez aurretik izena emateko eskatu dute. Interesatuek hilaren 20a baino lehen deitu behar diote Xabat Leanizbarrutiari ondorengo telefono zenbakietara: 943 76 82 88 edo 628 88 73 01.

NARCISO BEITIA, NAGUSIENA

Herriko nagusia Astaisolo baserriko Narciso Beitia Elkorbarrutia da, 99 urterekin. Hain zuzen, urriaren 29an beteko ditu 100 urte, eta orduan merezitako omenaldia eskaintzeko asmoa dauka Udalak.

Emakumeen artean, osteran, kalean bizi den Matilde Arrese Aranburuzabala da nagusia, 92 urte martxoan beteta. Ez dakite bazkarira joaterik izango duten bi horiek, baina aipamen berezia jasoko dute bihar.

> LANAK

Astelehenean hasiko dituzte pilotalekuko konponketa lanak

Astelehenean, hilak 13, hasiko dituzte pilotalekuaren estaldura konpontzeko lanak. Ondo bidean, bi hilabete iraungo dute, eta tarte horretan pilotalekuaren erabilera murriztu beharrean izango dira, seguru asko. Eskoriatzako Razkin enpresak du lan horien ardura.

BORROKA LIBREA

Europako txapelketan dago Unda, Moskun

X.U. > BERGARA

Maidar Unda Moskun dago, gaur hasiko duten Europako txapelketan lehian. Oletarrak 72 kiloko kategorian hartuko du esku, eta iazko munduko txapelketan (Danimarkan) egindakoa errepikatzen ahal eginduko da; domina bat eskuratzen, alegia.

Europakoan ere ez zen txarto moldatu, Azerbaijandik brontzearekin itzuli zen-eta; hala, Londresko 2012ko Olinpiar Jokoetan egoteko beste pauso bat eman nahi du asteburuan. Lehenengoa eman du aurten, otsailen 12. aldiz irabazi zuen-eta Espainiako txapelketa.



Maider Unda.

GOIENKARIA



Iñaki Alberdiren Porschea, orain dela bi urteko edizioan; bihar ez da lasterketan egongo.

GOIENKARIA

AUTOMOBILISMOA > ARAMAIOKO 9. RALLYSPRINTA

Vilariñoren erronka iazko markak hobetzea izango da

Krisiaren eraginez auto 'handi' batzuen hutsunea izango da, baina auto kopuruak ez du behera egin

XABIER URTZELAI > BERGARA

Badirudi krisiak auto *handiak* gidatzen dituztenei eragin diela gehiago, auto kopurua txikitu ez bada ere biharko lasterketan (15:30ean lehenengo txanda) hainbat hutsune izango dira-eta. Besteak beste, hutsune horietako bi izango dira goiko erretratuko

Iñaki Alberdi (Porsche GT3) eta hainbat urtean Aramaion azkarraren izan den Santi Artetxe (Peugeot 307WRC).

Izango dira, baina, auto ikusgarriak, eta baita maila txikiagoko artean lehia estua ere. Garbi dagoena da inork ez diola Vilariñori eta haren Subaru ikus-

DATUA

56

AUTOMOBIL

Biharko lasterketan 56 automobil izango dira irteera puntuan, eta tartean debagoiendar bi -euren kopilotuekin-: Aitor Arnaiz oñatiarra eta Inhar Amenabar aramaioarra.

garriari itzalik egingo. Hura beste lehia batean egongo da, bere buruaren kontrako lehian.

IAZKOA HOBETZEA

Izan ere, Euskadiko txapelketako liderrak -70 puntu ateratzen dizkio Iban Tarsicio bigarren sailkatuari- iaz Aramaion egin zuen denbora onena hobetzea izango du erronka (4:13:14); horrekin motibatuko da.

Eta badirudi elementu asko izango dituela aldeko: batetik, iaz errepidea bustita egon zen Aramaion eta zapaturako eguraldi ona iragarri dute; eta bestetik, iazko lasterketan estreinatu zuen Vilariñok Subaru, eta honezkeroko eskua ondo hartuko zion.

IBARREKOEK AUTO BERA

Hala, ibarreko bi ordezkari izango ditugu bihar, Inhar Amenabar aramaioarra eta Aitor Arnaiz oñatiarra; eta, kuriositate moduan, biek auto bera dute, Renault 5 GT autoa.



GOIENKARIA

Oñatiko martxa domekan 09:00etan

Joan den astean Gatzagan egindako martxari Oñatik hartuko dio errelebua domekan, Debagoieneko zirkuituko bigarren martxan. Antolatzaileak 08:00etarako egongo dira izenak hartzen (10 euro) eta 09:00etan hasiko dute 39 kilometro izango dituen ibilbidea: "Aurten pagadi ederrak zeharkatuko ditugu", adierazi dute antolatzaileak.

FUTBOLA > OHOREZKO ERREGIONALA

Iritsi da liga hasteko ordua: Mondrak eta Aloñak jokatuko dute asteburuan etxean

Bi talde horiek domeka arratsaldean jokatuko dute eta Aretxabaleta eta Bergara Donostiara eta Oiartzunera joango dira ligako aurrenekoa jokatuzera

X.U. > BERGARA

Mondrak nobedade batekin hasiko du liga txapelketa: asteburuan Ordiziaren kontra jokatuko beharreko partidua domeka arratsaldean (16:30) izango da. Hala ere, presidenteak adierazi digu Arrasateko taldeak aurten ere zapatu arratsaldeetan jokatuko dituela etxeko partiduak.

Hala, iaz kategoria galtzeko zorian egon zen Ordizia izango dute Iban Rodriguezen mutilek aurrean -Realeko bigarren taldea kategoriaz igo zelako eutsi zioten mailari.

ALOÑAK, HERNANI

Ordizia iaztik hona zenbateraino indartu den jakin gabe, Aloñak kontrario gogorra izango du domekan (16:30) aurrean, Hernani.



Aloñak Hernani hartuko du domekan Azkoagainen (16:30).

GOIENKARIA

ni. Azken urteotan aurrealdean ibili dira hernaniarrak, baina Pablo Diezen mutilek Arrasate Hiria torneoan erakutsi berri dute liga hasierara gorputzaldi onean iritsiko direla. Etxetik

kanpora jokatuko dute Bergarak eta Aretxabaletak. Mahone-roek Oiartzunen domeka goizean (11:30) eta UDAko mutilek Donostian, Rotetaren kontra (zapatua, 18:00).



> **LIBURUA**
Misterioa eta historia Martin Arriaranen lehen nobelan > 33



> **URTEURRENA**
Gertu dago Aretxabaleta Abesbatzaren DVDa > 33

> **RAUL LOZANO**
Diseinatzaile, militante eta herrigintzan langile, tabernaria... dugu Raul Lozano. Musikaria ere bai; musikak mugitzen duela dio > 34



Orhipean parke tematikoaren lehen geldialdia Bergaran

EKITALDIAK

Askotariko ekitaldiak egingo dituzte alde zaharreko kaleetan

NABARRALDE

Historia Gunean memoria historikoaren gainean jardungo dute

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Orhipean parke tematikoak lehen geldialdia egingo du Bergaran irailaren 17an, 18an eta 19an. Orhipean parke tematikoaren ildo nagusia "euskara, euskal kultura eta euskal nortasuna babestea, garatzea eta bultzatzea" dela diote antolatzaileek. Hain justu ere, Txoriak Txori egitasmoa eta Nabarralde dira antolatzaileak. Bi elkarteek egitasmoa aurkeztu zuten Durangon martxoaren 16an. "Euskal kultura plazaratuko duen ekimena": horrela aurkeztu zuten antolatzaileek. Ekimena "herririk herri" erakutsiko dute.

Bada, hurrengo aste bukaeran Bergarara helduko da. Enara Minguez Kultura zinegotziak azaldu dizkigu Bergarara etortzearen arrazoia. "Orhipean egitasmoaren aurkezpena egin ziguten, eta oso interesgarria zela pentsatu genuen. Herriaren dako aberasgarria zela ikusi genuen", esan digu.

ASKOTARIKO EKITALDIAK

Hiru eguneko egitaraua prestatu dute (ikus ondoko taula). Askotariko ekitaldiak egingo dituzte; besteak beste, azoka, mahai-ingurua, antzerki emanaldia eta literatura saioak. Adin tarte guztiendako ekitaldiak. "Familia osoak erakartzeko ekitaldiak egingo dira. Hori horrela, Pottoka Gunea egongo da txikiendako. Zaldiko-maldikoak, ludoteka, ipuin kontalariak eta asto karabana egongo dira Munibe plazan. Era berean, helduendako guneak egongo dira. Azokak, eta jakiak eta edariak dastatzeko guneak, besteak beste. Jarduera berezi

Orhipean parke tematikoa

Irailak 17, egubakoitza

17:00 Azoka. Artisautza eta elikagaiak.

19:30 Mahai-ingurua. *Euskal Herria, Euskadi, Nafar Estatua eta Baskonia kontzeptuak*. Hizlariak Angel Rekalde, Koldo Martinez eta Beñi Agirre.

20:30 Ikuskizuna. *Agur Everest: 30 urte gailurrean*.

Irailak 18, zapatua

10:00 Azoka. Artisautza eta elikagaiak.

10:30 Mahai-ingurua. *Ezina ekinaren ekinez eginda*. Hizlariak Mikel Berhokoirgoik eta Dominik Agergarai.

12:00 Musika emanaldia. Jean Bordaxar laukotea.

13:30 Ekitaldi nagusia. *Orhiko xoria, orhin laketa*. Antzezleak: Marifeli Etxeandia eta Josu Kamara.

16:00 Literatura eskola. *Eskuen sustraiak*.

20:00 Dokumentala. *Sagarren denbora*.

Irailak 19, domeka

10:00 Azoka.

12:00 Multimedia. *Euskal Herriko ekonomiaren eta gizaratearen atlasa*.

17:00 Antzerkia. Kukubiltxoren *Txikirriz*.

17:00 Ikus-entzuzkoa. *1512 Nafarroaren konkista*.

ESANAK

"Herritarrendako aberasgarria delako erabaki genuen Bergarara ekartzea parke tematikoa"

"Alde zaharreko kaleak berpizteko asmoz jarriko dituzte azoka postuak kale horietan"

Enara Minguez > Zinegotzia



Javier Ferreiro, olagarroa moztzen Bergaran.

ARTXIBOA

Iñigo Gallartzagotia > Antolatzailea

"Udalen borondatearekin herririk herri ibiliko gara"

M.B. > BERGARA

Iñigo Gallartzagotia Orhipean parke tematikoaren antolatzaile taldeko kideetako bat da. Egitasmoaren nondik norakoak eman dizkigu.

Zein da Orhipean parke tematikoaren funtsa?

Euskara ardatz nagusi hartuta, euskaldunok unibertso kultural propioa sortu dugu, eta ekitaldi folklorikoen mugetatik kanpo, euskal kultura parte-hartzailea eta herrikoia da.

Aisialdian txertatuta, jai giroan eta modu erakargarrian askotariko diziplinak jorratuz, kultura harremanetan oinarritutako komunikaziorako proiektua sortu nahi izan dugu.

Bestalde, Euskal Herriaren ondare kolektiboaren hainbat forma identifikatu, ezagutu eta gizarteratu nahi ditugu, nazio kohesioa eta hautemate subiranoa landu ahal izateko.

Ekimena herririk herri erakusteko asmorik baduzue?

Bai, hala da. Durangon egin genuen aurkezpena. Herri guztieta- ra heldu gurako genuke, baina Udalen borondate politikoa ezinbestekoa da. Ikusi egin beharko dugu nolako erantzuna jasotzen dugun.



GOIENKARIA

asko egingo ditugu", esan digu Orhipean taldeko kide Iñigo Gallartzagotiak.

HISTORIA GUNEA

Nabarralderen eskutik memoria historikoa berreskuratzeko hainbat ekitaldi egingo dituzte San Pedro elizaren aurrean jarriko duten Historia Gunean. "1512 Nafarroaren konkista ikus-entzuzkoaren aurkezpena egingo dugu. Gainera, *Nafarroa, Euskal estatua* delako erakusketa egongo da ikusgai. Gune hori Nabarralde kudeatuko du", esan digu Gallartzagotiak.

Orhipean parte tematikoaren ardatz nagusietako bat azokak dira. Egubakoitzean eta zapatuan jarriko dituzte Bergarako

hainbat kaleetan. Horietan, artisautza eta elikagaiak jarriko dituzte salgai.

Azoka alde zaharreko kaleetan jarri dute, apropos. "Herriko alde zaharrari indar gehiago emateko asmoz, berpizteko asmoz, kokatuko ditugu azokako postuak kale horietan. San Martin plazan, epaitegien aurreko kalean, Errekalde parke inguruan... Gainera, kale horietako asko oinezkoendakoak dira eta horrek asko laguntzen du halako ekitaldi bat antolatzeko orduan", esan digu Enara Minguezek.

Taloak, tea, kebaba, olagarroa, krepe denda eta erretegia herritarren eskura egongo dira azoka postuak jarriko dituzten kale berberetan.

IX. RALLYSPRINT'a

ARAMAIXO-ARABA

2010 irailak 11

1go MANGA, 15:30ean
BIDE MOZKETA, 14:30ean 3 MANGA



JUBAR
ATEAK S.L.

Ate eta pertsiak Automatismok
Puertas y persianas Automatismos

Pol. Katalde, 18 ARRASATE ☎ 943 79 10 20



APLICACIONES INDUSTRIALES
CON PERFIL DE ALUMINIO

PERFIPAR, S.L.

Tel. 943 71 30 30 • Fax 943 71 30 30



Azpikoetxe baserria
Unizilla Auzoa
01160 ARAMAIO (Euskal Herria)

Tel. 639 472 990
696 952 598



Tfnos. 943 71 26 96 - 943 79 78 31
Polígono Markulete
20500 ARRASATE



Udalaitez, S.L.

Gipuzkoa Etorbidea, nº 36 • 20500 ARRASATE-MONDRAGÓN
Teléfono 943 71 18 70 • Fax 943 71 18 71 • udalaitez@otola.org



TALLER: Bizkai Etorbidea, s/n • ☎ 943 79 41 98 • Fax 943 77 12 84
20500 ARRASATE Gipuzkoa



**Cristalería
Errasti, S.L.**

Tel./Fax 943 791 425 • Tel./Fax 943 792 255
20500 ARRASATE



www.suministrosugarte.com



OSTALARITZA ETA TXIKIZKARO
KOMERTZIOEN BANATZALEAK GARAI



GARAJE IBABE C.B.
Txapa, Pintura eta Mekanika
Gesalbur Auzoa, 31 • Arrasate-Mondragón • Tel: 943 79 99 61 • Fax: 943 79 13 90
Revisión para ITV - Neumáticos - Cambios de aceite



Razioak, ogitartekoak,
hanburgesak eta entsaladak
ostiral eta larunbat gauetan
Aurretik enkargatuz gero
bazkari eta afariak.
Pedro Inazio Barrutia 9 • ARAMAIO
Tel.: 636 254 727



Tfnoa. 943 79 94 21
Faxa 943 79 86 44
gertu@conet.es
Otalora, 38-B
20500 ARRASATE



tel: 945-44-51-01 (Aramaio)



Iturrietako Baserria - Aramaio Auzoa - ARAMAIO
Iturrietako@ yahoo.es • Tfnoa: 945 845 385 - 885 721 593
http://iturrietakosagardotegi.blogspot.com/



San Andres 10 D • Tf.: 943 77 30 10



ARRASATE



EUSKAL HERRIRA



Kanpazar gaina - Iguria auzoa z/g
ELORRIO - Bizkaita ☎ 946 582 912
669 302 686



San Juan - 20570 BERGARA (Gipuzkoa) • ☎. móvil: 659-67-68-21 / 607-76-33-10



EXPOSICIÓN Y FABRICA:
Zigarrola, 1 - Pab. B
Tel./Fax 943 77 11 30
☎ 943 79 62 18
20500 MONDRAGON



Bixente Golkoetxea 10 • ARAMAIXO



NOTARIO ETXAGIBEL, 1-PAB. 2 • ARRASATE
TEL. 943 79 13 79 - FAX 943 77 15 34 - Móvil 670 083 410



Tellería, 4. Pabellón 5
Debogiena Industrialdea
20500 ARRASATE
☎ 943 797 358
670 797 358



San Juan Auzoa • BERGARA
Tel. 943 76 16 93



amgautoak@yahoo.es
amgautoak.com



Zarugalde 35 - ARRASATE



San Juan - 20570 BERGARA (Gipuzkoa) • ☎. móvil: 659-67-68-21 / 607-76-33-10



San Juan Auzoa • BERGARA
Tel. 943 76 16 93

Martin Arriaran > Idazlea

"Nahiko nuke nobela izatea entretenigarria eta irakurlea harrapatzea"

ENEKO AZKARATE > BERGARA

Atejaun. El señor de las puertas (Hiru) da Martin Arriaranen (Bergara, 1964) lehen eleberria. Xake-laria eta literaturazalea, duela 10 urte inguru eleberriak idazteari ekin zion. Orainsu argitaratu berri diote lehenengoa. Polizia, misterio eta fantasiako nobela.

**Noiztik datorkizu literatura-
rekiko zaletasuna?**

Beti gustatu izan zait irakurtea eta idazten orain dela hamar urte hasi nintzen. Idatzi nuen lehen eleberri bat eta lagun batzuen bitartez Madrilgo editore erretiratu bati bidali nion. Hark egin zidan kritika zorrotza, baina tonu onez. Eta esan zidan tinko jarraitzeko, buru-belarri, banuela talentua eta lortuko nuela.

Eta lortu duzu.

Bai, hau da argitaratu didaten lehendabizikoa, baina aurretik sei-edo badituz idatziak.

Idazle ikusten duzu zeure burua?

Madrilgo editore erretiratu hark egindako kritikaren ostean, esan nion neure buruari: "Idazle izan nahi dut, baina horretarako ofizioa ikasi behar dut ondo". Eta hasi nintzen nobelak irakurri eta irakurri. Urtebetean irakurri nituen 300 bat. Egile klasikoak: Victor Hugo, Flaubert, Stendhal... Batzuk oso aspergarriak, baina hain ederki idazten zuten...

Autodidakta zara, hortaz?

Bai. Nire kasa ikasi dut. Autore klasikoak bildumak erosi, irakurri eta ikasiz. Eta beste batzuek nire lanarekiko egin dizkidaten kritikak aintzat hartuz.

Zelako lanak idatzi izan dituzu aurretik?

Zientzia fikziozkoak eta. Arriaran abizenarekin, zientzia fikziozkoak idatzi eta arrakasta lortzea zaila da. Anglosaxoia izan behar duzu nabarmentzeko.

Beste saiakerarik egin duzu eleberriok argitaratzeko?

Behin izan nuen Leopoldo Zugaza editorearen berri. Bidali nion lan bat eta handik gutxira deitu egin zidan. Asko gustatu zitzaioela eta Alfaguaran aurkezteko baimena eskatu zidan. Baietz esan nion. Zer esango nion! Alfaguara da niretako Real Madril bezala. Editorialik onena! Eroan zuen, baina erantzun zioten eleberriak ez zuela bat egiten Alfaguararen estiloarekin. Horixe geratu zen.

Eta, azkenean, Hiru argitaletxearekin egin zenuen topo.

Bidali nuen lana hiru argitaletxera: Erein, Ttartalo eta Hiru. Azken honetatik erantzun zidaten. Eleberria argitaratu behar zutela esan zidaten. Asko gustatu zitzaioela. Ia dardarka hasi nintzen. Lehendik idatzita neukan beste lan bat ere bidali nien eta esan zidaten hau ere argitaratu nahi dutela aurrerago. *Tributo a Caissa* izenburua izango du. Caissa da xakearen erregina. Alexandrian girotuta dago.

"Ofizioa ikasteko, urtebetean irakurri nituen 300 bat eleberri, gehienak egile klasikoak"



Martin Arriaran, bere lehen eleberria eskuetan duela.

ENEKO AZKARATE

Dokumentazio lan handia dago zure lanetan.

Bai. Liburuetan eta Interneten eta begiratzen dut, batik bat. Gauzak kontrastatu... Arnaiz eta Alonsoren toponimiazko liburu guztiak irakurri ditut. Euskaldunok Saharan dugula jatorria diote hauek. Berbereak eta euskarak badituztela antzekotasunak... Euskaldunon historiari buruzko lan asko irakurri dut.

"Kontatzen dut Saharan egon den arkeologia espedizio bateko kideak modu misteriotuan hilda agertzen doazela"

Zer kontatzen duzu Atejaun. El señor de las puertas lanean?

Gaur egunean dago girotuta. Iruñean, Donostian, Eunate eta Otxaten kokatzen da. Kontatzen du Saharan egon den arkeologia espedizio bateko kideak modu misteriotuan hilda agertzen doazela. Gorpua eliza erromanikoen portadetan agertuz doaz... Ondo idatzita egotea, entretenigarria izatea, irakurlea harrapatzea... lortu nahi dut. Liburuaren azalean, Eunateko Amaren elizaren margo bat jarri dut, lehengusu Luis Laskurain pintorearena.

Ze idazle duzu gustuko?

Julio Vernek zoragarri idazten zuen. *Best seller* asko irakurtzen ditut: *El Clan del oso cavernario*-k, esaterako, harrapatu ninduen.

IKUS-ENTZUNEZKOA

Aretxabaletako abesbatzaren 30 urteak batu dituzte DVD batean

Irailaren 17an aurkeztuko dute Arkupen

E.A. > ARETXABALETA

Aretxabaletako abesbatzaren 30 urteko ibilbidea errepasatzen duen ikus-entzunezkoa aurkeztuko dute datorren egu-bakoitzean, 17an, Aretxabaletako Arkupe kultura etxeke Zaraia aretoan, 19:00etan.

Aretxabaleta Abesbatza, 30 urteko ibilbidea da ikus-entzunezkoaren izenburua. DVDak bi aukera eskaintzen ditu menu nagusian: batetik, dokumental historikoa -35 minutuan laburtzen da 30 urteko bidea- eta, bestetik, Aretxabaletako irudiekin eta abesbatzaren doinuekin sortutako bideo musikala dago. Dokumentala bi hizkuntzatan dago: euskaraz eta gaztelaniaz.

IRUDI ZAHARRAK

Ikus-entzunezko historikoan Arrasate Telebistako eta Goiena Telebistako artxibotik jasotako irudi zaharrak, TVEK New Yorken 90eko hamarkadan grabatutako irudiak, protagonisten adierazpenak, 2010ean grabatutako urteurren kontzertuko irudiak, argazki zaharrak eta zenbait musikari eta aditoren adierazpenak ageri dira.

Aurkezpenean, abesbatzak zenbait abesti kantatuko ditu eta bideoaren aurrerapen txiki bat egingo da. Gero, salgai jarriko da kultura etxean eta beste zenbait tokitan.



DVDaren azala.

ARTEMAN

Ukabi
informatika

Enpresa kudeaketa aplikazioak

Era guztietako webguneen diseinua

Etterako eta enpresetarako salmenta

Domingo Irala z/g
(Ariznoa aurrean)
BERGARA Tel.: 943 15 01 01



Eskaintza eksklusiboa

Prezio hauekin, edonork izan dezake eskuko ordenagailua!

Acer Aspire 5734Z eramangarria

- Teknologia: Intel Pentium Dual Core T4500
- RAM: 4 GB
- Pantaila: 15,6 hazbete.
- Disko gogorra: 320 GB
- Integratutako webcamera: Bai
- Sistema eragilea: Windows 7 Home Premium
- Txartel irakurlea
- Wi-Fi
- DVD±RW

... eta ehunka produktu eta eskaintza aurkituko dituzu gurean.

Raul Lozano > Musikaria eta diseinatzailea

"Musika behar dut, barruan daroada esateko ezinbesteko tresna da niretzat"

Ez daki geldi egoten; geldi asper-
tu egiten dela dio. Musikari,
diseinatzaile, tabernari, kirol-

zale eta herrigintzan lan egin-
dako militante, aukeratu egin
behar izan du Raul Lozanok, egu-

neko 24 orduak ez diote eta nahi
duen guztia egiteko denbora-
rik ematen. Azkaiter Pelox eta

The Road Band Zuzenean tal-
dean dihardu; harengandik asko
edan duela aitortu digu.

JOKIN BEREZIARTUA > BERGARA

Egun Amilotox edo Agorroingo taber-
nan dihardu lanean Raul Lozanok
(Bergara, 1983). Goiko estazioan
egin genuen hitzordua harekin, eta
bizitzako hamaika kontuz egin
genuen berba.

**Aspalditik zaude musikari lotu-
ta. Zer da ematen dizuna?**

Hala da. Etxean aita, ama eta
anaiari betidanik gustatu izan
zaie musika eta ni ez naiz salbues-
pena izan, ez horixe. Gure biri-
kek oxigenoa behar duten
moduan, bizi izateko musika
behar dut. Musikarekin esnatu
eta musikarekin lokartzen naiz.

Musika sortzeko orduan ere,
barruan daroada esateko ezin-
besteko tresna da niretzat.

Nola ikasi duzu musika egiten?

Perkusio afrikarrekin hasi
nintzen. Orduan 15-16 urte nituen;
Arrasateko eta Azkoitiko lagun
batzuen laguntzaz tailer batzue-
tan hasi ginen gaztetxean eta gure
tam-tam propioak nola egin ika-
si genuen. Eta, nola ez, instrumen-
tua egiten ikasi genuenean, jotzen
hasi ginen. Gainera, Iñaki Bruñas
arrasatearrari esker hainbat oina-
rriko erritmo ikasi genituen,
Bruñasek musika idazteko duen
metodo propioaren bidez. Izan
ere, Bruñasek bizitza osoa daroa
perkusio afrikarra jotzen.

Bestalde, lagunek, entseatze-
ra joaten zirenean, baxua uzten
zidaten; ni gustura, jotzen ez
nekienez baxuarekin hobeto mol-
datzen nintzelako. Zaletasun
hutsa zen, denbora pasatzeko
modu bat. Gerora, duela bi urte-
edo, gitarra jotzen hasi nintzen.
Gasteizen ikasten nenbilenean
irakasle batekin izan nintzen eta
nondik hasi irakatsi zidan.

**Eta hortik aurrerakoa zure
kabuz ikasi duzu.**

Erabat. Autodidakta izan
naiz, ez dut solfeo edo antzeko-
rik jaso. Nekien apurra lagun
bati erakutsi eta alderantziz,
hala ikasi dut jotzen.

**Azkaiter Pelox & The Road Band
Zuzenean taldeko kide zara.
Nola hasi zinen taldean?**

Unai Azkaratek Azkaiter Pelox
moduan zuzeneko diskoa atera
nahi zuen, baina talde itxurarekin.
Hala, inguruko lagunengana jo
zuen banda bat osatu eta diskoa
zuzenean grabatzeko asmoz. Pun-
tualia izan zen, hasiera batean dis-
koaren grabaziorako osatu zen
taldea. Gerora, baina, kontzertu
batzuetarako deitu ziguten eta



JOKIN BEREZIARTUA

PERTSONALA

Herria: Bergara. **Adina:** 26 urte. **Ikasketak:** Proiektu Mekanikoen Garapena eta Diseinu eta Ekoizpen Editoriala. **Zaletasunak:** Musika, kirola eta irakurtzea. **Film bat:** *Joe Strummer, the future is unwritten*, Julien Temple-ena. **Musika talde bat:** The Clash. **Kantu bat:**

Neil Young-en *Keep on rocking in the free world*. **Azken liburua:** *Emboscada en Pasaia, un crimen de estado*. **Komiki bat:** *Sin city*. **Bisitatutako lekuri politena:** Londres. **Bisitatu duzun lekuri gogoangarriena:** Lakabe, Artzi haranean dagoen herri okupatua.

oraindik ere emanaldiren bat izan-
go dugu irailean. Ez dut data zeha-
za gogoratzen... Jendeari esan ohi
diot talde mamua garela, agertu
eta desagertzen dena. Hori bai,
beti ari gara zerbait egiten.

**Zer da zuretzat Azkaiter Pelox
moduko musikari batekin
jotzea?**

Aurrerapauso handia. Pol-
Pol tabernako aldapan jotzera
edo etxean nire kantu txikiak egi-
tera ohituta nengoan, eta oso
ondo etorri zait esperientziadun
musikari bat ondoan nire bide-
an jarraitzeko. Gitarraren soinua
lortzen eta agertoki gaineko
lotsak kentzen lagundu dit, bes-
teak beste. Horrez gain, oso poli-
ta izan da nik egindako kantuak
taldean jotzeko aukera izatea.

**Diseinatzailea ere bazara. Nola
ulertzen duzu diseinua?**

Betidanik gustatu izan zaiz-
kit arte plastikoak. Eta zaletasun
hori musikarekin lotzen nuen;
lehen, kasetean zerbait graba-
tzen genuenean, sekulako azalak
diseinatzen nituen. Biniloen aza-
lak deigarriak zitzaizkidan eta
CDa heldu zenean, azalek eta dis-
koen diseinuek ere izugarri era-
kartzen ninduten. Hortik etorri
zitzaidan Diseinu Grafikoa egi-
teko grina. Beraz, musikak lotu-
ra estua izan du nire ikasketekin.

**Gaztetxean eta Txapa Irratian
izan zara militante. Nola gogo-
ratzen dituzu urte haiek?**

Oso urte politak izan ziren.
Gaztetxeko Asanblada eta Txapa
Irratia, biak aldi berean tarteka-
tu nituen. Txapa Irratia Zabalo-
tegin zegoenean, soto batetik emi-
titzen genuen. *Kobazuloa* deitzen
genion eta hala geneukan irudi-
katuta. Gero, irratia gaztetxera
etorri zenean askoz errazagoa
egin zitzaidan bi proiektuak aldi
berean eramatea.

Pertsona moduan gehien bete-
tzen nauena da militantzia, mate-
rialaren denetik haratago pertsona
naizela sentiarazten nauena. Aldi
berean, nire kezka eta ilusioak
plazaratzeko bidea ere bada.

**Azkenik, kirola ere zutabe bat
da zure bizitzan, ezta?**

Bai. Futbola ez nuen gustu-
ko eta txarra nintzen, gainera.
Baina patinetan, bizikletan, ige-
riketan eta eskaladan aritu izan
naiz; kirol bakarrean zentratzea
askotxo kostatu zait. Orain gim-
nasioan dihardut; bertan ikasi
dut gauza bakarrean zentratu
eta horretan dena ematea.

astea GOITBn

Egubakoitza, 10	Zapatua, 11	Domeka, 12	Astelehena, 13	Martitzena, 14	Eguaztena, 15	Eguena, 16
13:15 Marrazki bizidunak.	08:00 Marrazki bizidunak.	08:00 Barrebusa.	13:15 Marrazki bizidunak.	13:15 Marrazki bizidunak.	13:15 Marrazki bizidunak.	13:15 Marrazki bizidunak.
13:45 Animalia.	10:30 Barrebusa.	09:00 Marrazki bizidunak.	13:45 Kantari.	13:45 Kantari.	13:45 Kantari.	13:45 Kantari.
14:15 Onein.	11:30 28 Klip.	11:30 Erreportajea.	14:15 Eltze beroa.	14:15 Onein.	14:15 Eltze beroa.	14:15 Eltze beroa.
14:45 Berriak.	12:00 Erloklip.	12:00 Jazz jaialdia.	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.
15:15 Ur eta lur.	12:30 Goiena Magazinea.	12:30 Kanaldude.	15:15 Erloklip.	15:10 Harmailatik.	15:10 Iragana gogoratuz.	15:15 Gipuzkoa kultura.
15:45 Erloklip.	13:30 Eltze beroa.	13:30 Ur eta lur.	15:45 Ikusmira.	15:50 Kiroloeroak.	15:50 Onein.	15:45 Goiena Magazinea: tertulia.
16:15 Mendialdean bizi.	14:00 Animalia.	14:00 Onein.	16:15 28 Klip.	16:20 Erloklip.	16:20 28 klip.	16:45 Berriak.
16:45 Berriak.	14:30 Barrebusa.	14:30 Goiena Magazinea.	16:45 Berriak.	16:45 Berriak.	16:45 Berriak.	17:15 Marrazki bizidunak.
17:15 Marrazki bizidunak.	15:30 Marrazki bizidunak.	15:30 Gipuzkoa Kultura.	17:15 Marrazki bizidunak.	17:10 Marrazki bizidunak.	17:15 Marrazki bizidunak.	17:15 Marrazki bizidunak.
18:00 Harmailatik.	17:45 Eskuokin.	16:00 Marrazki bizidunak.	17:45 28 Klip.	17:35 Eskuokin.	17:35 Harmailatik.	17:45 Onein.
18:45 Berriak.	18:00 Ur eta lur.	18:00 Eskuokin.	18:15 Marrazki bizidunak.	17:55 Kurtulzulo.	18:15 Marrazki bizidunak.	18:15 Marrazki bizidunak.
19:15 Marrazki bizidunak.	18:30 Gipuzkoa Kultura.	18:15 Barrebusa.	18:45 Berriak.	18:15 Marrazki bizidunak.	18:45 Berriak.	18:45 Berriak.
19:45 Goiena Magazinea.	19:00 Mendialdean bizi.	19:15 Mendialdean bizi	19:15 Kantari.	18:45 Berriak.	19:15 Marrazki bizidunak.	19:15 Kantari.
20:45 Gipuzkoa kultura.	19:30 Animalia.	19:45 Animalia.	19:45 Goiena Magazinea.	19:15 Kantari.	19:45 Goiena Magazinea.	19:45 Goiena Magazinea.
21:15 Goiena Magazinea.	20:00 Goiena Magazinea.	20:15 Harmailatik.	20:45 Harmailatik.	19:45 Goiena Magazinea.	20:45 Iragana gogoratuz.	20:45 Animalia.
22:15 Sakonduz.	21:00 Ikusmira.	20:45 Goiena Magazinea.	21:30 Goiena Magazinea.	20:45 Harmailatik.	21:15 Goiena Magazinea.	21:15 Goiena Magazinea.
22:45 Kiroloeroak.	21:45 Kanaldude.	21:45 Gipuzkoa Kultura.	22:30 Harmailatik.	21:30 Goiena Magazinea.	22:15 Goiena Magazinea: tertulia.	22:15 Gipuzkoakultura.
23:45 Goiena Magazinea.	22:45 Gipuzkoa kultura.	22:15 Sakonduz.	23:00 Gipuzkoakultura.	22:30 Iragana gogoratuz.	23:15 Goiena Magazinea.	22:45 Kulturzulo.
00:45 Emisio amaiera.	23:15 Harmailatik.	23:00 Kulturzulo.	23:30 Goiena Magazinea.	23:00 28 Klip.	00:15 Jazz jaialdia.	23:00 Erloklip.
	00:15 28 Klip.	23:15 Jazz jaialdia.	00:30 Emisio amaiera.	23:30 Goiena Magazinea.	00:45 Emisio amaiera.	23:30 Goiena Magazinea.
	00:45 Emisio amaiera.	23:45 Emisio amaiera.				00:45 Emisio amaiera.

arrasate
irratia

FM 107.7

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratu.

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratu.

Astelehenetik
egubakoitzera

10:00-12:00 Igo Autobusera!

- > Albistegia
- > Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
- > Astelehenetan Kirolok
- > Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
- > Udal Gazte Bulegoa
- > Sexologia Zerbitzua
- > Astearen errepaso (Goienkariarekin)
- > Eguneke eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
- > Zozketak (egubakoitzean)
- > Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (irratia@goiena.com edo goiena.net atarian, irratiko bloga)
- 12:05 Euskadi Irratiko albistegia
- 12:10 Musika
- 13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
- 14:00 Igo Autobusera! (errep.)
- 17:00, 19:00, 22:00: Errepublikapenak

ezkontzak



Oihana Retegi bergarra eta **Iker Urrutia** oñatiarra bihar, irailaren 11n, ezkondu dira Oñatiko Murgia auzoko Asentzio ermitan. Zuen lagunen eta familiakoen partetik zorionak, bikote, eta ondo pasa eztei bidaian!



Jon Elkorobarrutia eta **Nora Berezibar** bergarrak bihar, zapatua, ezkondu dira Bergarako udaletxean. Lagun eta familiako guztien partetik, zorionak eta muxu handi bana, bereziki Hodeiren partetik.



1950eko irailaren 9an, Eskoriatzan, ezkondu ziren **Balentin Etxeberria** eta **Maria Luisa Uribesalgo**. Elkarrekin 60 urte bete dituzte. Zapatuan, familiarekin ospatuko dute. Zorionak eta osasunaz luzaro jarrai dezazuela eredu izaten. Besarkada handi bana!



June Fernandez eta **Angel Sanchez** arrasatearrak, bihar ezkondu dira Arrasateko udaletxean. Lagunek mezu hau helarazi digute, ezkontzaren bezperan: "Ordua zen! Zorionak, bikote, lagun eta familiaren partetik".

ESKELA

Sor Felisa
Moyua Igartua

Karitateko alaba

Ibarran hil zen 2010eko irailaren 5an, 84 urte zituela.

Haren arimaren aldeko meza zapatuan, irailaren 11n, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokiaren ospatuko da.



Elizkizunera joango zaretenoi, aldeztu aurretik eskerririk asko Zuazola baserriko sendiaren izenean.

ESKER ONA

Juana
Elkoro Golonetxea

Zamoran hil zen 2010eko irailaren 1ean, 92 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerririk asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2010eko irailaren 10ean.

ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

943 25 05 05

Edo zatoz ordezkarietara batera.

Eskelaren prezioa: 122.50 euro.Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **163** euro.**GOIENKARIA: astero, 34.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.**

ESKER ONA

Olatz
Zabarte Arza

Oñatin hil zen 2010eko abuztuaren 29an, 14 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerririk asko sendikoen izenean.



Oñatin, 2010eko irailaren 10ean.

ESKER ONA

Jose
Corrius Busquets

Hilbeilara edo abuztuaren 11n agur elizkizunera azalduta, edo beste era batera emandako babes eta elkartasunari esker, eraman errezagoak egin zaizkigu egun zail hauek. Bihotz-bihotzez, eskerririk asko guztioi.

Emazte, seme - alabek, bilobek eta gainontzeko ahaideek, beti gogoan izango zaitugu.



Bergaran, 2010eko irailaren 10ean.

URTEURRENA

Dolores Agirreurreta Murgiondo

Fermin Alberdiren alarguna

Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 12an, 12:50ean, Bergarako San Pedro parrokian ospatuko da.



Elizkizunera joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Luis Aranzabal Gabilondo

Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 12an, 10:50ean, Uberako San Paulo elizan ospatuko da.



Elizkizunera joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Jose Miguel Irizar Laskurain

Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 12an, 12:50ean, Bergarako San Pedro parrokian ospatuko da.



Elizkizunera joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Pedro Arietaleanizbeazkoa Larrañaga

Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 12an, 12:50ean, Bergarako San Pedro parrokian ospatuko da.



Elizkizunera joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Jose Mari Igartua Larrañaga

Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 12an, 12:50ean, Bergarako San Pedro parrokian ospatuko da.



Elizkizunera joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Ramona Lete Arriola

Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 12an, 12:50ean, Bergarako San Pedro parrokian ospatuko da.



Elizkizunera joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Irene Gantxegi Barrutia

Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 12an, 12:50ean, Bergarako San Pedro parrokian ospatuko da.

Gaur urtebete gure ondotik joan zirela. Ez zaitugu ahaztuko. Beti egongo zara gure bihotzetan.



Elizkizunera joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Ramon Jausoro Aperribai

Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 12an, 11:00etan, Arrasateko Uribarri auzoko Itxaropenaren parrokian.

Bihotza bigun, mina sentituz, sortu ginduen hazi biziari agur esateko. Arro gaude bere izana gudan dagoelako eta beru zeruko izarrik distiratsunean bihurtu delako.



Elizkizunera joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Maria Argialde Azalza

Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 12an, 10:50ean, Uberako San Paulo elizan ospatuko da.



Elizkizunera joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

1. URTEURRENA

Marini Elkorobarrutia Perez

Orain urtebete joan zinen baina gure bihotzetan betirako egongo zara.



Lagunak.
Arrasaten, 2010eko irailaren 10ean.

1. URTEURRENA

Marini Elkorobarrutia Perez

Maite zaitugu, tia Marini.



Iker eta Oier.
Arrasaten, 2010eko irailaren 10ean.

1. URTEURRENA

Marini Elkorobarrutia Perez

Gogoan zaitugu, maitia.



Etxekoak.
Arrasaten, 2010eko irailaren 10ean.

URTEURRENA

Jesus Mari Landa Urzelai

2008ko irailaren 11n hil zen.

Bigarren urteurreneko meza zapatuan, irailaren 11n, 19:00etan, Eskoriatzako San Pedro parrokian ospatuko da.



Bertaratuko zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko etxekoan izenean.

URTEURRENA

Maria Rosario Zubizarreta Barrena

Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 12an, 12:50ean, Bergarako San Pedro parrokian ospatuko da.



Elizkizunera joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

Babeslea:


Euskalduna

Hileta Zerbitzuak

Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea



Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net

Irailak 10-16

LEIRE KORTABARRIA

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 13

Jaia



OÑATI

> Atzeko kaleko jaiak ospatuko dituzte aste bukaera osoan

Gaur 16:00etan hasiko dira Atzeko kaleko jaiak. Besteak beste, poteoa (20:00) eta rock kontzertuak (22:00) izango dituzte; bihar, zapatua, garagardodastatzea (19:30), trikipoteoa (20:00) eta batukada (21:00).

Jaia



ARAMAIO

> Aramaioko sagardoa dastatzeko aukera ezin hobea Txirritola egunean

Txirritola eguna antolatu dute etziko, domeka. 11:30ean, trikitalariak eta gaztetxoendako jolasak izango dira; eta 12:00etan, txotx egingo dute bertso eskolakoekin. Orduetik aurrera, sagardoa, taloak, pintxoak... izango dira.

Musika



ARRASATE

> Gaztetxeko Itxungi irratia aldeko bigarren jaia egingo dute zapatuan

Itxungi irrati libreaki laguntzeko zazpi talderen kontzertua antolatu dute gaztetxean, 19:00etan: Never Surrender (argazkian), Las Flujo, Plan B, La Otra Cara del Rock, Interprete Desconocido, CC627 eta La Banda del Abuelo. 3 euro da.

domeka, rokodromoa, tirolina, ohe elastikoa... (10:30-13:30 eta 16:30-19:30), bertsolariak (12:00), herri kirolak (13:00), umeen arropa desfilea (17:00), milonga erakusketa Arimazubin (18:30) eta jai amaiera.

Jai hasiera gaur, egubakoitza, 19:00etan.

Lehiaketak

ARAMAIO

> VI. Postal lehiaketan parte har daiteke oraindik

Txirritola elkarteak deitu duen VI. Postal lehiaketan parte hartzeko epea zabalik dago. Postalak deskribapen laburra izan behar du, eta kontuan hartuko dituzte originaltasuna eta euskara maila. Saria da bi lagunendako afaria herriko jatetxe baten.

Postala honako helbidera bidali behar da: Txirritola euskara elkarte; Kultura etxea; Aramaio 01160 (Araba).

Mugaeguna: irailak 15.

Ikastaroak

ARRASATE

> Yoga eskolak eta hasiberriendako ikastaroa, aukeran

Ikasturterako izenemate epea zabaldu du Sanatana Dharma yoga eskolak. Honako ordutegiak antolatu ditu: astelehenetan eta eguaztenetan, 09:30-11:00 (argibideak, Maite, 635 71 06 16), eta marti-

Musika

ARRASATE

> Boat Beam eta Audience taldeen kontzertuak

Kulturate Akustikoa delako zikloaren barruan, bi kontzertu izango dira aste bukaeran: Boat Beam hirukoteak (Espainia, Australia eta Amerika) joko du gaur, egubakoitza; eta Audience taldeak (Gernika) etzi, domeka.

Kulturateko areto nagusian, 20:00etan.

hain zuzen ere. Horrela egia bihurtuko da beti izan duen ametsa, toreatzailea izateko ametsa. Antzezlanaz da, eta sarrera 4 euro da.

Bihar, zapatua, Arkupen, 22:00etan.

ARRASATE

> 'Camping Renove' delako kale antzerkia egingo dute

Trapu Zaharra taldeak egingo du antzezlanaz. Uruguaetik datozen gotisoloarrak dira protagonistak. Kanpin bitxi bat eraikitzen dute.

Bihar, zapatua, Herriko plazan, 19:30ean.

Ospakizunak

ESKORRIATZA

> San Juan kalekoek bi urteroko jaialdia egingo dute

San Juanen jaiotakoek edo han bizi direnek jaialdia egingo dute: etxafuegoak eta kalejira (11:00), Egokiena elkarteko plazan batu eta elizarantz joango dira (12:30), meza San Pedro elizan (13:00), musika-txikiteoa (13:30) eta bazkaria Egokiena elkartean (14:30); gero, dantzaldia.

Bihar, zapatua.

ARRASATE

> Uribarri-Erguingo jaiak ospatuko dituzte aste bukaeran

Gaur, egubakoitza, etxafuegoak botako dituzte (19:00); gero, bolo-boloa eta buruhandiak (19:30) eta rock kontzertua eta DJ festa (19:30) izango dira; bihar, zapatua, astoak, poniak eta segwayak Uribarri eliza inguruan (10:00-14:00); gazteen-dako ekintzak gaztetxokoan (11:00-13:00), luntxa Usaetxe plazan (13:00), haur parkea (17:00-20:00), saltsa eta merengue dantzaldia (22:00) eta erromeria (23:00); eta etzi,

Antzerkia

BERGARA

> 'Ilargian' zirkua egingo du Zirika Zirkus taldeak

Jardunek antolatuta, *Ilargian* delako zirkua emanaldia egingo du Zirika Zirkus taldeak. Erritmo, umore eta zirkuz blai dator ikuskizuna. Bertan, Bolintxek lorte sorta bat oparitu nahi dio Ilargiari.

Gaur, egubakoitza, Irala kalean, 18:30etik 19:30era.

ARETXABALETA

> Umeendako magia ikuskizuna izango da domekan

Kidam magoak 3 urtetik gorako umeendako magia ikuskizuna egingo du. Sarrera 3 euro da.

Etzi, domeka, Arkupeko Zaratia aretoan, 17:00etan.

ARETXABALETA

> 'Chicuelina' antzezlanaz egingo du Aitziber Bilbao aktoreak

Chicuelina antzezlanak emakume pailazo baten eguneroko bizitza erakusten digu. Egunerokotasun hori, baina, aldatu egingo da Internet bidez egingo duen eskariaren ondorioz; zer eskatuko, eta toreatzaile-traje distiratsua,

PROPOSAMENA



BERGARA

> Azoka, jolasak, denetariko musika, herri bazkaria eta gehiago San Martin jaietan

Zapatuan eta domekan ekintzaz beteta egongo dira Bergarako San Martin plaza eta inguruak. Bihar, zapatua, barazki, fruta eta gazta azoka eta lehiaketa (10:00) egingo dute; odoloste-dastatzea (12:30), bazkaria (14:30), umeendako zezentxo eta poneyak eta jolasak (17:30), rock kontzertuak (22:30) eta gehiago izango dira; domekan, margo lehiaketa (09:00), puzgarriak, eta *Fabrez IV* disko aurkezpena (18:00).

Azoka bihar, zapatua, 10:00etan hasita.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

MUSEO BAT BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO...

SIMULAGAILUA HANDITU DUGU

Errusiar mendiaren simulagailua handitu egin dugu lau eserlekuko plataforma berri batekin. Gainera, bidaierietako batek joystick baten bidez mugimenduak zuzendu ahal izango ditu. Filma berriak ikusteko aukera ere izango duzu bertan.



Informazio gehiago: www.miramon.org edota 943 01 24 78

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78
www.miramon.org

Ordutegia
Astelehenetan ixita.
Asterartetik ostiralera 10:00-19:00.
Asteburu eta jai-egunetan 11:00-19:00

kutxa | www.kutxasocial.net

Karpetak apaintzeko erritua

ESKOLARA ITZULERA Kurtso berria hasterekin batera eskolako karpetak apaintzea tokatzen da

AKTORE ETA ABESLARIAK 'Física y Química' eta 'El internado'-ko aktoreak dituzte gustuko egungo nerabeek

ALDIZKARIAK Gaztetxoei zuzendutako aldizkarietan aurkitzen dituzte telebistako pertsonaien argazkiak

ARRITXU BARRUSO > BERGARA

Ainhoak, Anek eta Jonek 15 urte dituzte, Bergarako Aranzadi ikastolan ikasten dute eta joan den astelehenean hasi zuten DBHko laugarren maila. Lehenengo eskola egunera, gainera, etxeko lanak ondo eginda joan ziren; izan ere, eskolara itzulerak, adin horretan, erritu garrantzitsua dakar berarekin: ikasturte berrian erabiliko duten karpeta ondo apaintzea. Baina ze abeslari, aktore edo pertsonaia famatu betetzen dituzte gaur egungo nerabeen karpetak?

AKTORE LIRAINEN ARGAZKIAK

Urtetik urtera, pertsonaia eurak aldatzen diren arren, nesken kasuan, mutil gazte lirainez jositako jarraitzen dute eskolako karpetek. Gaur egun *Física y Química* eta *El internado* telesailen aktoreak dira neska gazteen zorarena: "Bi telesail horiek asko gustatzen zaizkigu. Mutil hau *Física y Química*-ko Cabano da [Maxi Iglesias] eta asko gustatzen zaigu, beste hau Roman da [Nas-

ser Saleh] eta hemengo hau Julio [Gonzalo Ramos]. *El internado*-tik, berriz, Jon Gonzalez bergararra eta Martin Rivas aktoreak gustatzen zaizkigu gehien". Horiek guztiak gutxi balira, mutil lirainen argazki zerrendak jarraitu egiten du, aktoreez gain musikariak ere jarraitzen dituzte-eta: "Musikarien artean Justin Bieber gustatzen zaigu gehien eta Jonas Brothers taldeko kideak ere bai".

ALDIZKARIETATIK MOZTUAK

Argazkiak han eta hemen; nerabeei zuzendutako aldizkarietatik moztutakoak guztiak. "*Bravo*, *Cuore* eta *In Touch* aldizkariak irakurtzen ditugu. *Super Pop* ere bai, baina azken hau behar bada gaztetxoagoendako da".

Mutilen karpeten inguruan ere galdetu diegu. "Desastre samarrak dira, ez dute karpeta apaintzen. Marrazkiren bat edo beste egiten dute eta listo".

Neska horiek hartu duten lanarekin espero dugu mutil lirain horiekin guztiekin arinagoa egitea eskolara itzulera.



KARPETA BERRIAK Ainhoa Mardaras, Ane Zangitu eta Jone Eguren bergarrek DBHko laugarren maila hasi dute aurten. A.B

ahobero

"Ez dut barkamenik eskatzen, ezta gutxiago ere. Ez nengoen edanda"

Jesus Neira > Irakaslea

Pena da alkohola neurtzeko makinak kontrakoa esan izana. Errepidean aldenik alde zebilela atzeman zuten Neira eta onartutako alkohol maila hirukoiztu egin zuen. Haren esanetan, kopa erdi ardo eta likore bat bakarrik hartu zuen; medikamentuekin nahastuta, hori bai. Txundigarria orain gutxira arte "heroia" izan denaren harrokeria.

iturri onetik

Goienaren 10 urteak ospatzeko kantu bat ari dira grabatzen Shot estudioetan

Kantuaren oinarriak idatzi dira eta horretan jardun du Anger taldeko abeslari Arkaitz Biainek. Bestetik, jakin dugu *Komunika* kantua idatzi duela Iturriagak okasiorako eta Debagoieneko abeslariak kantatuko dutela.

Hurrengo astean da pasatzekoa estudioetik seikote bat ahotsak sartzera eta instrumentazioan ere lagunduko dute hainbatek; esaterako, RİPeko Jul Bolinagak.

piperrautsa

Mikel Irizar > 'www.goiena.net/blogak/piperrautsa'

Urrats bat

Uste baino lehenago etorri da adierazpena, presaka bezala. Horregatik agian ez du testuak berritik ezer, ekintza armatuak uzteko erabakia kenduta, eta hori ez da gutxi. Baina esanguratsua adierazpena bera da, kate luzearen begi bat gehiago den heinean, norabide onean egindako urrats bat, garrantzitsua.

Ze, adierazpena ez bezala, berezia eta oso interesgarria prozesua da; zelan esparru horretan lidergo politikoa indartu den eta zelan erakunde armatua ari den lidergo hori onartzen, zailtasunak zailtasun. Horretan datza bilakaeraren interesa eta aurrekoekin diferentzia, horrek pizten du itxaropena. Eraitza posibleari beldurra dionak bidea oztopatzeari ekingo dio, baina, hain zuzen, une horretan eroriko dira mozorroak. Gaudeamus.

ai, ene!



Hau da Apple etxeari falta zaion bakarra

I hizkia aurretik ipini eta denetarik produktuak atera ditu Apple enpresak. Komuna izango ote da hurrengoa?

www.nirmaltv.com

Finantzaketa kuota pertsonalizatuak

SIMS
SERVIMASA

Sukaldeko altzariak eta osagarriak

Aitziturri 4, Posta-kutxa 173
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49
20570 BERGARA

103 Industria poligonoa
Tel.: 943 52 05 00 Faxa: 943 51 57 57
20100 LEZO